

Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco

Zuzenbide Fakultatea

Kriminologiako Gradua


2019-2020 Ikasturtea

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria. Espainiar arauketa
eta Zuzenbide konparatuko analisia

Olatz Iriberry Egizabalek egindako lana

Miren Odriozola Gurrutxagak zuzendua

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Aurkibidea

1. Zer da bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria?	5
1.1. Delituarekiko beldurra	5
1.2. Zigor Kodearen gogortasuna	7
1.3. 1/2015 Lege Organikoaren aurrekariak.....	8
1.4. Eztabaida.....	8
2. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren arauketa espainiar Zigor Kodean	9
2.1. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriarekin zigortzen diren delituak	9
2.2. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren arauketa	10
2.2.1. Baldintzapeko askatasuna.....	11
2.2.2. Hirugarren gradua	13
2.2.3. Irteera-baimenak	14
2.2.4. Zigorra azkentzea.....	16
3. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aldeko eta aurkako argudioak	16
3.1. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aldeko argudioak	16
3.1.1. Birgizarteratze printzipioarekin bateragarria	17
3.1.2. Gizatasun printzipioarekin bateragarria	18
3.1.3. Gizartearen eskaerei erantzuna	18
3.1.4. Espainiar organoak	19
3.1.5. Giza Eskubideen Europar Auzitegia eta Zuzenbide konparatua	19
3.2. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aurkako argudioak	20
3.2.1. Espainiar Konstituzioaren aurkakoa	20
3.2.2. Beharrezkoa ez den zigorra.....	31
3.2.3. Zuzenbide konparatua eta Giza Eskubideen Europar Auzitegia	33
3.2.4. Arauketari kritikak.....	34
3.2.5. Hiritarren nahiaren muga	44
3.2.6. Erabilpen sinbolikoa	44
3.2.7. Askatasun-gabetze luzeen ondorioak osasunean.....	45
3.2.8. Bestelako arazoak.....	47

4. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria beste herrialde batzuetan	48
4.1. Alemania.....	49
4.1.1. Aplikazio-eremua.....	49
4.1.2. Berrikuspena	50
4.1.3. Zigorren konstituzionaltasuna.....	51
4.1.4. Giza Eskubideen Europar Auzitegia	52
4.2. Erresuma Batua.....	54
4.2.1. Aplikazio eremua.....	55
4.2.2. Berrikuspena	56
4.2.3. Giza eskubideen Europar Auzitegia.....	57
4.3. Hungaria	60
4.3.1. Espetxe-zigor zehaztugabeak	60
4.3.2. Berrikuspena	60
4.3.3. Giza eskubideen Europar Auzitegia.....	61
4.4. Frantzia.....	64
4.4.1. Bizi arteko espetxe-zigorren arauketak	64
4.4.2. Giza Eskubideen Europar Auzitegia	65
4.5. Italia.....	66
4.5.1. Espetxe-zigor zehaztugabeen arauketak	66
4.5.2. Giza Eskubideen Europar Auzitegia	67
4.6. Finlandia	68
4.6.1. Aplikazio-eremua.....	68
4.6.2. Berrikuspena	69
4.6.3. Zigorren betearazpena	70
4.6.4. Giza Eskubideen Europar Auzitegia	72
4.7. Zipre	72
4.8. Zuzenbide konparatuari buruzko ondorioak	74
5. Ondorioak.....	77
Bibliografia	79

Jurisprudentzia.....	82
Txosten exekutiboa.....	84

1. Zer da bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria?

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria 2015. urtean Zigor Kodea egin zen erreformaren ondorioz barneratutako zigor askatasun-gabetzaile bat da, zehazki, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren, Zigor Kodeko, azaroaren 23ko, 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duenaren bidez barneratua izan zena, erreformako aldaketa nagusienetako bat izanik (Daunis, 2013). Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria ez da espetxe-zigor askatasun-gabetzailearen luzapen baten gisa barneratua izan, izaera autonomoko zigor gisa baizik (López, 2018).

Zigor Kodeko 35. artikuluan zehazten den moduan, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria espainiar Zigor Kodean aurreikusten den lau zigor askatasun-gabetzaileetako bat da, espetxe-zigor arruntarekin, lokalizazio iraunkorrarekin eta isuna ez ordaintzeagatik sorturiko erantzukizun penal subsidiarioarekin batera.

Zigor Kodeko 33 artikuluari jarraiki, zigor larria da, artikuluko bigarren zatiko a) atalean zehazten den gisa, zigor guztien artean larriena izanik, askatasunez gabetzen duen zigorrak luzeena den heinean, ez baitu gehienezko iraupen zehazturik.

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria iraupen zehaztugabeko ohiz kanpoko erantzun gisa definitzen du lege-proiektu organikoaren zioen azalpenak. Espetxe-zigor modalitate zehatz hau delitu konkretu batzuentzat bakarrik dago aurreikusia, larritasun berezia dutenentzat zehazki, Zigor Kodean adierazten direnak. Adierazitako zioen azalpenean aditzera ematen da zigorra berrikusia izango dela zigorraren zati bat bete ostean, non epaileek edo magistratuek presoaren eta delituaren ezaugarriak baloratuko dituen lehenaren birgizarteratze-pronostiko bat egiteko; positiboa izango balitz, presoari baldintzapeko askatasuna emango liokete zigorraren betearazpena eten ostean, betiere beste ukanbehar batzuk ere betetzen baditu (Juantey Dorado, 2013).

Erreforma hau Alderdi Popularrak bultzatu zuen 2011. urtean erabateko gehiengoa lortu ostean. Modu honetan, iraupen luzeko berrikuspenera duten zigorra duten europar herrialdeen zerrendan sartu zen Espainian (López, 2018).

1.1. Delituarekiko beldurra

Espetxe-zigor mota honen inguruan hitz egitean aipagarria da komunikabide eta sare sozialen eragina; izan ere, azken urteotan krimen larrien gertuko jarraipena egitea posible izan da komunikabideei esker, eta berauen jarraipena dela-eta, gizartean kezka eta beldurra sortu da krimen konkretu batzuekiko. Berrien erabilpen honi

agenda-setting deritzo, non komunikabideek erabakitzen duten zein berri argitaratu eta zeintzuk ez eta nola aurkeztu berri hauek, modu horretara gizartean zeren inguruan hitz egingo den ezartzen da (Varona, 2011). Hori dela eta, esku-hartze penal handiagoa eskatzen duten ahotsak sortu dira gizartean (Gálvez, 2018).

Komunikabideen eraginarekin jarraituz, ez dirudi korrelaziorik dagoenik delituarekiko beldur eta segurtasun-ezaren sentimenduen eta delinkuentzia mailaren artean, izan ere, azken urteotan ikusi da delinkuentziak behera egin duela, baina gizartearen delituarekiko beldurrak eta segurtasun-ezaren sentimenduek gorantz egin dutela. Gorakada hau komunikabideek delitu mota zehatz batzuei emandako garrantziarekin erlazionatua dagoela dirudi, beldurrak eta segurtasun-ezak komunikabideetan delitu larriak askotan agertzearekin batera igo baitira. Gizartearen begietan delinkuentzia gora egiten ari da, horregatik pentsatzen dute delituaren aurrezaintza ez dela eraginkorra Espainian, eta, aldi berean, botere publikoek delinkuentziari aurre egiteko dituzten gaitasunengan konfiantza gabezia zabalduz. Kriminalitatearekin erlazionatutako edozerk interes sozial, mediatiko eta politiko berri bat jasotzen du gaur egun, duela hamarkada batzuk ematen ez zena. Komunikabideek horrela erabiltzeak gizartearengan beldurra eta kezka eragiten du, eta horrek esku-hartze penal handiagoa eska dezatela eragiten du (Juanatey Dorado, 2012).

Delituarenganako beldurrari eta ziurgabetasunari erantzuteko Zigor Zuzenbidea erabili izan da, delitugilearenganako zigorraren bidez beldurrari, segurtasun-ezari eta ezegonkortasunari erantzuna eman nahian (Daunis, 2013).

Kezka eta eskaera honi erantzuna emateko Gobernuak bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria Zigor Kodean barneratzea erabaki zuen, gizarteak Administrazioarengan duen konfiantza berrezartzeko helburuarekin, lege-aurreproiektuan adierazten den moduan (Gálvez, 2018). Baina ez da erreforma hau errealitate horren adierazle bakarra; azken hamarkadotan segurtasun falta sentazioa, ezegonkortasuna eta beldurra zabalduz eta orokortuz joan dira, eta horren aurrean Estatuak zigor zuzenbidea erabiltzen du Zigor Kodearen erreforma bidez jokabide berriak zigorruz, zigorrak luzatuz eta espetxe-onura batzuk ezabatuz, gizarteari zerbait egiten ari direnaren mezua helarazteko (Daunis, 2013).

Azken urteotan gizartean segurtasun-faltaren sentazioa nagusituz joan da, gehienetan komunikabideen eraginaren ondorioz, zeintzuek delitu larrietara behin eta berriz jotzen duten, errealitatean ematen direnak baino kasu gehiago ematen direnaren ideia zabalduz gizartean (González, 2013). Estatuari erantzun azkarrak eta eraginkorrak eskatzen zaizkio, delituarekiko “tolerantzia zero” deritzona azpimarratuz,

delitugilearenganako zorrotasuna ere eskatuz. Bestalde, espainiar zigor sistema leuna dela ere pentsatzen duenik bada gizartean, eta ondorioz, Zigor Kodea gogortzea ere eskatzen da. Gainera, gizartean biktimen eta hauen familiak ezarriko den zigorraren inguruan zeresanik badutelaren ideia zabaldu da (González, 2013), Estatuaren *ius puniendiaren* eksklusibotasuna zalantzan jarriz.

1.2. Zigor Kodearen gogortasuna

Europar, orokorrean, eta Espainian, bereziki, askatasunen atzerakada gauzatzen ari da, eta atzerakada horrekin batera, zigorraren gogortzea (González, 2013).

Espainian, trantsizio garaian, zigor arloan garai humanitario eta aurrerakoi bat eman zen, baina azken urteotan joera gizatiar hori alderantzikatu da, joera zigortzailea nagusituz. Aldaketa honen hasiera 1995eko Zigor Kodearekin hasi zen, zigorrak lanaren bidez murriztearen aukera ezabatzearen ondorioz, zigorrak luzatu zituen (Juanatey Dorado, 2012). Bide berean aritu dira ondoren egindako erreforma guztiak ere, bereziki gogorrak izanik 2003 eta 2015ekoa.

1998. urtetik 2010. urtera hogeitalau erreforma jasan ditu espainiar Zigor Kodeak, denak berau gogortzera bideratuta, espetxe-zigorra gehiagotan edo denbora gehiagorako aplikatuz eta jokaera gehiago zigortuz (Diéz Ripollés, 2013).

Kontuan hartu behar da Espainiako Zigor Kodea, baita bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria barneratu baino lehenagotik ere, Europa mailan dagoen Zigor Koderik gogorrenetako bat dela (Gálvez, 2018), kontuan izanik espetxe-zigor arruntaren gehieneko muga berrogei urtetarainokoa izan daitekeela. Hala ere, espetxe-zigor luze hau delitu pilaketa kasu zehatz batzuentzat dago aurreikusia, hau da, delitu bat baino gehiago burutu dituzten pertsonentzat. Hori dela eta, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren barneratzea jauzi handi bat izan da, bizi osorako espetxe-zigorra aurreikusi baitaiteke egitate bakarrarengatik kondenatua izan den pertsona batentzat (Cancio Meliá, 2013).

Badirudi errepresio penala ondorengo faktoreekin dagoela erlazionatuta: delituarekiko beldur sentimendua gizartean (gehienbat komunikabideek eragina dena, delinkuentzia larriaren inguruko albisteak tratatzeko duten eragatik), lege-sistematikiko konfiantza falta, gizarte-baliabide eskasia, ezberdintasun sozio-ekonomikoak, egitura politikoak eta lege-kulturak (Juanatey Dorado, 2012).

1.3. 1/2015 Lege Organikoaren aurrekariak

2015eko erreformaren aurretik, kontuan hartzeko beste erreforma bat da 2003koa, 7/2003 Lege Organikoa, ekainaren 30ekoa, zigorren betearazpen osoa eta benetakoa lortzera bideratutako neurrien erreformarena, hain zuzen ere. Erreforma horrek hirugarren gradua eskuratzeko segurtasun-epeak barneratu zituen Zigor Kodeak bost urtetik gorako espetxe-zigorren zat. Bestalde, delitu pilaketa kasuetarako gehieneko espetxe-zigorra ere handitu zuen, berrogei urteraino igoz muga hori (2015. urtera arte espainiar Zigor Kodeko zigor luzeen eta larriena izan zena, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria barneratua izan zen arte). Azkenik, 2003. urteko erreforma horrek hirugarren gradua, baldintzapeko askatasuna, irteera baimenak eta espetxe-onurak eskuratu ahal izateko zigorraren zati bat betetzea eskatu zuen (Landa, 2015).

Zehazki, hirugarren graduan sailkatua izateko zigorraren erdia betetzea eska dezake epaileak bost urtetik gorako espetxe-zigorretan, Zigor Kodeko 36.2 artikuluari jarraiki. Hala ere, terrorismo delituetan, erakunde kriminal baten barruan edo adin txikikoen aurkako delitu sexual zehatz batzuen kasuan, segurtasun-epe hori ezinbestekoa izango da.

Bestalde, Zigor Kodeko 78. artikulua ere lerro beretik doa, delitu pilaketa kasuetan baldintzapeko askatasuna, hirugarren gradua, irteera baimenak eta espetxe-onurak eskuratu ahal izateko eskatzen den bete beharreko zigorraren gutxiengoa igoz (76. artikuluko mugen ondorioz presoak benetan beteko duen zigorra ezarritako zigorraren erdia baino gutxiago den kasuetan, baldintzapeko askatasuna edo hirugarren gradua eskuratzeko eskatzen den zatia bete beharko lukeen zigorretik kalkulatzeko aukera ematen du, benetan beteko duen zigorretik kalkulatu ordez). Kasu honetan ere, erregimen gogorragoa dute terrorismo delituengatik edo erakunde kriminal baten barruan burututako delituengatik zigortuta dauden pertsonak (Landa, 2015).

2003ko erreformaren ondoren, Zigor Zuzenbide gizatiar batetik, birgizarteratzea helburu duen Zigor Zuzenbide batetik, Estatu Sozialeko Zigor Zuzenbide batetik zigorraren Zigor Zuzenbide batera, gogortasunaren Zigor Zuzenbide batera, mendekuaren Zigor Zuzenbide batera pasa zen (Daunis, 2013).

1.4. Eztabaida

Zigor mota honen inguruan polemika handia sortu zen lege-proiektuan azaldu zen momentutik, gaur egun arte mantendu dena. Hiritar eta aditu batzuk zigor honen alde agertu dira, beste batzuk, aldiz, aurka agertu dira. Bi alderdiak eta berauek emandako

argudioak hobeto ulertzeko ezinbestekoa da Zigor Kodean jasotzen den bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren arauketa ezagutzea, bereziki kontuan izanik Espainiar Auzitegi Konstituzionalak adierazi duela zigor bat gizagabeko egiten duena ez dela iraupenak bakarrik zehazten duen zerbait, baizik eta zigorraren arauketak eta modalitateek eta eztabaidatzen den puntu bat zigor gizatiarra ote den edo ez da. Beraz, ondorengo orrialdeetan arauketa hori garatuko da (STC 65/1986 maiatzaren 22koa).

2015eko ekainaren 30ean bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aurkako konstituzio-kontrakotasun helegite bat tarteratu zen Konstituzio Auzitegiaren aurrean. Zigor Kodeko hamaika artikuluri eragiten die helegiteak (Serrano eta Serrano, 2017). Konstituzio Auzitegiak ez dio helegiteari erantzun oraindik.

2. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren arauketa espainiar Zigor Kodean

2.1. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriarekin zigortzen diren delituak

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria, esan bezala, delitu konkretu batzuetarako bakarrik aurreikusten da, bereziki larriak kontsideratzen diren delituetarako, zehazki. Kasu gehienetan errepikatzen den elementua biktimaren heriotza eskatzea da, salbuespen gutxirekin (Gálvez, 2018).

Lehenik eta behin, Zigor Kodeko 140. artikulura jo behar dugu jakiteko zein delitu motarentzat aurreikusten den zigor mota konkretu hau. Artikuluko lehen zatian adierazten da bizi arteko espetxe zigorrak zigortua izango dela ondorengo baldintzetako bat betetzen duen erailketa burutzen duena:

- Biktima hamasei uretik beherakoa izatea, edo pertsona bereziki zaugarria izatea bere adin, gaixotasun edo ezgaitasunagatik.
- Egileak biktima erailtzea honen sexu askatasunaren aurkako delitu bat burutu ostean.
- Egilea talde edo erakunde kriminal bateko kide izatea.

Bigarren atalean, aldiz, bi pertsona edo gehiago erailtzen dituen pertsonari ezartzen dio bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria.

Zigor berdina ezartzen dio Zigor Kodeko 485. artikulua Erregea edo Erregina, edo Asturiaseko Printzea edo Printzesa hiltzen duenari ere.

Bestalde, 573 bis 1 artikuluan ere bizi arteko espetxe-zigor berriusgarriz zigortzen da pertsona baten heriotza gauzatze duenari, baldin eta 573. artikuluan deskribatzen den terrorismo delitu bat gauzatzen duenean. Nahiz eta ez den bizi arteko espetxe-zigor berriusgarriaren izena agertzen, Zigor Kodean dagoen gehieneko espetxe-zigorrari egiten dio erreferentzia.

Zigor Kodeko 605. artikulua ere bizi arteko espetxe-zigor berriusgarriz zigortzen du Espainian beste herrialde bateko burua edo hitzarmen baten bidez internazionalki babestutako pertsona bat hiltzen duen edozein.

Zigor Kodeko 607. artikulua, berriz, genozidio kasu konkretu batzuei ezartzen die bizi arteko espetxe-zigor berriusgarria. Zehazki, talde nazional, etniko, arrazial edo erlijioso bat erabat edo zati batean suntsitzeko asmoarekin talde horretako kide bat hiltzen duen edonor edo kideren bat sexualki eraso edo 149. artikuluan aurreikusitako lesioak eragiten dizkion edonor.

Zigor bera ezartzen die ondorengo artikulua, hau da, 607 bis artikulua, gizateriaren aurkako delituren bat burutuz heriotzaren bat gauzatzen duten pertsonari ere.

Bestalde, 2018. urtean Alderdi Popularrak aplikazio-eremua zabaltzeko proposamena egin zuen, baina ez zen aurrera atera (López, 2018).

2.2. Bizi arteko espetxe-zigor berriusgarriaren arauketa

Bizi arteko espetxe-zigor berriusgarria denboran mugatu gabeko espetxe-zigor bat da. Hori dela-eta, legegileak arauketa berri bat sortu behar izan du, bestelako espetxe-zigorretan, zigorraren erdia, laurden bat eta halako neurketak betetzea eskatu ohi delako (Gálvez, 2018).

Espetxe-irteerak, baldintzapeko askatasuna eta hirugarren gradua lortu ahal izateko hainbat muga eta baldintza ezartzen dira, bereziki espetxe-zigorraren zati bat betetzea eskatzen dutenak espetxe-onura zehatz bat lortu baino lehen, gutxienezko epe ezberdinak ezarriz. Epe horiek pasa arte presoek ezin izango dituzte onura horiek jaso, beraien ordura arteko garapena kontuan izan gabe (Juanatey Dorado, 2012).

2.2.1. Baldintzapeko askatasuna

Zigor hau eteteak berrikuspena onartu dela esan nahi du, eta beraz, kondenatuari baldintzapeko askatasuna emango zaiola. Kontuan hartu behar da baldintzapeko askatasuna 2015. urtera arte betearazpen modalitate bat zela, laugarren betearazpen gradua, zehazki, baina aipatutako erreformaren ondoren, etete modalitate bat izatera igaro da, horrek dakartzan aldaketa guztiekin.

Bizi arteko espetxe-zigorren betearazpena eteteko beharrezkoak diren ukanbeharrak Zigor Kodeko 92. artikulua zehazten ditu. Lehenik eta behin, kondenatuak kondenaren hogeita bost urte betetzea eskatzen da arau orokor gisa. Bestalde, hirugarren graduan sailkatua egotea ere ezinbesteko ukanbeharra da (ondoren azalduko direlarik hirugarren graduan sailkatua egon ahal izateko bete beharreko ukanbeharrak). Azkenik, epaia emandako epaile edo magistratuen aldetik birgizarteratzearen aldeko pronostiko bat jasotzea galdatzen da, espetxeak eta epaile edo magistratuen beharrezkotzat jotzen dituen adituek igorritako presoaren garapenari buruzko informeak irakurri ostean (Lujan-Lago, 2016).

Pronostiko hori egiteko ondorengo hauek izango ditu kontuan: kondenatuaren izaera, bere aurrekariak, burututako delituaren inguruabarrak, berreroriko balitz kaltetuak gerta litezken ondasun juridikoak, zigorrak iraun duen bitartean izandako jokaera, inguruabar sozial eta familiarak, eta eteteak berak izan ditzatekeen ondorioak. Delitu bat baino gehiagotatik zigortua izan bada, baldintza hauek delitu guztiak kontuan izanda baloratuko dira.

Berrikuspena egin ahal izateko gutxieneko epe hori ezberdina izango da delitu pilaketan kasuetan (Pinedo, 2017). Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaz gain ezarritako zigorrek ez badute hogeita bost urteko muga gainditzen, segurtasun epea hogeita bost urtean mantenduko da, baina hogeita bost urtetik gorako zigorra bete behar badu edo bizi arteko espetxe-zigor bat baino gehiago ezarri bazaio, epe hori hogeita hamar urtetarainokoa izango da (Zigor Kodeko 78 bis.2 artikulua).

Delitu pilaketak ematen direnean delitu konkretu batzuen kasuan ere epeak luzeagoak dira, terrorismo delituen kasuan, zehazki. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaz gain ezarritako zigorrak edo zigorrek ez badute hogeita bost urteko muga gainditzeko berrikuspena egin ahal izateko zigorraren hogeita zortzi urte bete beharko dira, hogeita hamabost izango direnak muga hori gainditzen bada edo bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarri bat baino gehiago ezartzen badira (Zigor Kodeko 78 bis.3 artikulua).

Etetearen inguruko erabakia ahozko prozesu batean erabakiko da, Ministeritza Fiskala eta akusatua entzun ostean, bigarrenak bere abokatuaren laguntza jasoko duelarik.

Zigor Kodeko 92. artikuluan, bigarren zatian, baldintza gehigarri bat ezartzen da delitu konkretu batzuentzat, zehazki erakunde edo talde terroristekin lotutako delituak eta Zigor Kodeko II Liburuko XXII Tituluko XII Kapituluko terrorismo delituak burutzen diren kasuetan. Kasu hauetan ezartzen den baldintza gehigarria helburu eta bide terroristak utzi izanaren zantzu argiak erakustea eta autoritateekin modu aktiboan kolaboratu izana dira, bai talde edo erakundeak beste delitu batzuk egitea ekiditeko, bai bere delituaren ondorioak gutxitzeko, bai delitu terroristen erantzuleak identifikatzeko, atzemateko eta prozesatzeko, bai presoak kide izandako talde edo erakunde terroristen garapena edo jarduera ekiditeko edo frogak lortzeko (Pinedo, 2017).

Baldintza gehigarri hau eman dela egiaztatzeko beharrezkoa izango da bere jarduera deliktiboekiko arbuia eta indarkeriarekiko abandonua adierazten dituen berariazko deklarazio bat, baita biktimei barkamena eskatzen dien deklarazio bat ere. Bestalde, aldaketa hau egiaztatzeko beste modu bat da presoak benetan erakunde edo talde terroristatik eta elkartearen eta kolektiboaren legez-kontrako jardueratik eta ingurugirotik aldendu dela eta autoritateekin kolaboratu duela adierazten duten txosten teknikoak (Landa, 2015).

Eteteak bost eta hamar urte arteko iraupena izango du, kondenatua aske geratzen den momentutik kontatzen hasiko dena. Eteteak dirauen bitartean aplikagarriak izango dira Zigor Kodeko 83. artikuluko debekuak eta betebeharrak epailearen aldetik. Presoaren egoera aldatzen bada epaileak ezarritako debekuak edota betebeharrak aldatzeko, kentzeko edo berriak ezartzeko aukera izango da (Zigor Kodeko 92.3 artikulua).

Bestalde, espetxe-zaintzarako epaileak etetea bertan behera utzi ahal izango du etetea eman izana oinarritzen den egoera aldatzen bada eta aldaketa horren ondorioz ezin bada birgizarteratzearen aldeko pronostikoa mantendu (Zigor Kodeko 92.3 artikulua).

Berrikuspena ukatzen den kasuetan, epaile edo magistratuek bi urtetik behin ofizioz berrikusi beharko du kasua, etetea emango ote dion erabakitzeko berriro. Hala ere, kondenatuak eskatzen duen bakoitzean ere berrikusi beharko du. Presoak berrikuspena etengabe eskatzea ekiditeko, berrikuspena ukatu ostean adierazitako epaile edo magistratuek aukera izango du urte beteko gehieneko epea ezartzeko non presoak ezin izango duen berrikuspenik eskatu (Zigor Kodeko 92.4 artikulua).

Berrikuspena onartzen den kasuetan, aldiz, epaileak, gutxienez bi urtean behin, kondenatuaren egoera berrikusiko beharko du baldintzapeko askatasuna ematea justifikatzen duten arrazoiak ez direla aldatu egiaztatzeko.

2.2.2. Hirugarren gradua

Baldintzapeko askatasuna lortzeko ezinbesteko baldintza denez hirugarren graduan sailkatua egotea, berau emateko galdatzen diren baldintzak ere aztertu beharrekoak dira (Gálvez, 2018).

Kondenatua hirugarren graduan sailkatzea edo ez erabakitzea epaia emandako epaile edo magistratuei dagokie, birgizarteratzearen aldeko pronostiko indibidual bat jaso ostean, beti ere Ministeritza Fiskal eta Espetxe Erakundeak entzunda (Zigor Kodeko 36.1 artikulua).

Sailkapen hau ezin izango da egin zigorraren hamabost urte bete arte. Zigor Kodeko II Liburuko XXII Tituluko VII Kapituluko delitu batengatik (terrorismo delituak) kondenatuak izan direnen kasuan, ezin izango da sailkapena egin zigorraren hogeitun urte bete arte (Zigor Kodeko 36.1 artikulua).

Delitu bat baino gehiagotatik (eta gutxienez bat bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarritz zigortua dagoenean) kondenatuak izan diren pertsonen kasuetan hirugarren gradua lortu ahal izateko beste segurtasun-epe batzuk ezartzen dira (Gálvez, 2018). Zehazki, ezarritako zigorretako bat bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria bada eta gainontzeko zigor guztiak bost urteko muga gainditzen badute, hemezortzi urteko segurtasun epea ezarriko da. Epe hori hogeitun urtetaraino igoko da ezarritako zigorrak edo zigorrek hamabost urteko muga gainditzen badute, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarri batez gain. Segurtasun epea hogeita bi urtetakoa izango da bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaz gain ezarritako zigorrak edo zigorrek hogeita bost urteko muga gainditzen badute edo bizi arteko espetxe-zigor bat baino gehiago ezartzen badira (Zigor Kodeko 78 bis.1 artikulua).

Terrorismo kasuetan edo erakunde kriminalen baitan emandakoetan, aldiz, epeak luzeagoak dira. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaz gain ezarritako zigorrak hogeita bost urte gainditzen ez badituzte, zigorraren hogeita lau urte bete beharko dira hirugarren graduan sailkatua izan ahal izateko. Bizi arteko espetxe-zigor bat baino gehiago ezartzen bada, edo ezarritako gainontzeko zigorrek hogeita bost urtetako muga hori gainditzen badute hirugarren gradua eskuratu ahal izateko zigorraren hogeita hamabi urte bete beharko dira (Zigor Kodeko 78 bis.3 artikulua).

Hala ere, Zigor Kodeko 36. artikuluko hirugarren eta azken zatian hirugarren gradua emateko salbuespen bat ezartzen da, espetxe-zigor guztiei aplikagarri zaiena; ondorioz, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarrira kondenatutako pertsonen ere aplikagarri zaielike. Auzitegiak pertsona bat hirugarren graduan sailkatzea erabaki dezake zigorraren gutxienerako epe horiek bete gabe pertsona horrek hirurogeita hamar urte edo

gehiago baldin baditu edota pairamen jasanezinak dituen gaixo larri bat bada (Pinedo, 2017). Salbuespen honen oinarrian arrazoi humanitarioak eta giza duintasunezkoak daude, baina bereziki kontuan hartzekoa da pertsona hauen arriskugarritasun baxua. Hala ere, sailkapena ez da zerbait automatikoa izango eta Ministeritza Fiskala, Espetxe Erakundeak eta gainontzeko alderdiak entzun beharko ditu auzitegiak (Gálvez, 2018).

Denboraz gain, bestelako baldintza batzuk ere eskatzen dira hirugarren graduan sailkatua izan ahal izateko (Sánchez, 2016). Alde batetik, erantzukizun zibila asetzea eskatzen da, ñabardura batzuekin (presoak ez badu erantzukizun zibil osoa ordaindu ezin duelako baina modu sinesgarrian hitz ematen badu ordaintzen amaituko duela eta erantzukizun zibilaren zati garrantzitsu bat ordaindua badu, baldintza hau betetzen duela ulertu ahal izango da) (Espetxeko Lege Organiko Orokorreko 72.5 artikulua).

Bestalde, terrorismo kasuetan etetea emateko eskatzen den baldintza gehigarri berdina eskatzen da (Landa, 2015); hau da, terrorismoaren bide eta helburuetatik aldentzea eta autoritateekin modu aktiboan kolaboratzea (Espetxeko Lege Organiko Orokorreko 72.6 artikulua).

2.2.3. Irteera-baimenak

Irteera-baimenen arauketa, oro har, honako bi arau hauetan jasotzen da irailaren 26ko 1/1979 Espetxeen Lege Organiko Orokorrean eta Espetxeko Orokorrean, eta 190/1996 Errege Dekretuan, otsailaren 9koa, zeinaren bidez Espetxe Erreglamendua onartzen den. Deigarria da 1/2015 Lege Organikoak ez dituela bi arau hauek aldatu bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren arauketa berria barneratzeke, horren ordez Zigor Kodean jasoz zigor mota horrekin lotura duten epeak (Gálvez, 2018).

Epeei dagokionean, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria betetzera kondenatutako pertsonak ezin izango dute irteera baimenez gozatu zigorraren zortzi urte bete arte. Epe hori hamabi urtetakoa izango da terrorismo delituren batengatik kondenatuak izan direnen kasuan (Zigor Kodeko 36.1 artikulua).

Zigor Kodean irteera baimenak eskatzeko epeei erreferentzia egiten dien artikulua bakarra 36. izanik, eta ikusirik bertan ez zaiela delitu pilaketen kasuei erreferentziarik egiten, uler dezakegu ez dagoela inolako epe berezi edo luzeagorik delitu pilaketen kasuetarako (Gálvez, 2018).

Irteera baimenak bi motakoak izan daitezke, arruntak eta bereziak. Arrunten helburua birgizarteratze prozesuan laguntzea da, bereziena, aldiz, kondenatuarekin

erlazioatutako egoera berezietan espetxetik irteten uztea da (adibidez emazteak erditzea edo gertuko familiako kideren baten heriotza edo gaixo egotea). Irteera-baimenak eta berauek emateko baldintzak Espetxeko Lege Organiko Orokorrean jasotzen dira, 47. artikuluan zehazki (Pinedo, 2017). Lehenengo zatian irteera baimen bereziei egiten die aipamena. Bertan adierazten da presoak egoera berezi horietakoren bat badu irteera baimena emango zaiola salbuespenezko arrazoirik ez badago ukatzeko, beraz, uler dezakegu bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarrira kondenatutako pertsonak ere eskubide hau dutela eta artikulua aplikagarri zaiela (López, 2018).

Bigarren zatian, berriz, irteera baimen arruntak emateko bete behar diren baldakizunak zehazten ditu. Hiru ukanbehar bete behar dira: bigarren edo hirugarren graduan sailkatua egotea, kondenaren laurden bat bete izana eta jarrera ona izatea. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren kasuan ez dagoenez gehieneko muga bat, ezin daiteke zehaztu noiz beteko duen kondenaren laurdena; hori dela eta Zigor Kodeak epe bat zehazten du kasu guztietarako, zortzi urtetakoa (hamabira igotzen dena terrorismo kasuetan) (Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 47. artikulua). Epe horiek zigorraren laurden gisa hartzen baditugu, ondoriozta dezakegu bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarrira kondenatutako pertsona bat hogeita hamabi urteko espetxe-zigorrera kondenatuta egongo balitz bezala dela. Terrorismo kasuetan, berriz, berrogeita zortzi urtetara kondenatuta egotea bezala litzateke (Gálvez, 2018).

Kontuan hartu beharreko elementu bat da hirugarren eta bigarren graduan sailkatuta dauden presoek baimen-egun kopuru ezberdina izan dezaketela. Bigarren graduan sailkatuta dauden pertsonak urtean hogeita hamasei baimen-egun izan ditzakete, hirugarren graduan sailkatuta daudenek izan ditzaketen berrogeita zortzien aurrean. Hau bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarrira kondenatuak izan diren pertsonetara eramaten badugu, ikus dezakegu ezin izango dituztela urteko berrogeita zortzi baimen-egunak eskuratu hamabost urte espetxean pasa arte, hori baita hirugarren graduan sailkatuta egoteko eskatzen den gutxieneko epea.

Jarrera ona izan ote duen edo ez erabakitzeko Talde Teknikoaren nahitaezko txostenera jo behar da. Txosten hau presoaren aurkakoa izan daiteke hainbat arrazoirengatik, besteak beste, presoaren izaera anomaloa, kondena urratzea gertagarria izatea, irteera presoarentzat kaltegarria izan litekeenaren susmoa edota irteerak dirauen bitartean pertsonak beste delituren bat burutuko duenaren susmoa (Gálvez, 2018).

2.2.4. Zigorra azkentzea

Ezarritako baldintzapeko askatasuneko epea deliturik burutu gabe pasatzen bada, eta berrikuspena onartu zuen epaile edo magistratuak beragandik espero zuten jarrera mantendu badu, zigorra azkenduko da, erantzukizun penala azkenduz zigorrarekin batera (Zigor Kodeko 87.1 artikulua). Aurrekari penalak kondena amaitzen denetik hamar urtera desagertuko dira, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria zigor larri bat baita (Zigor Kodeko 136.1.e) artikulua).

3. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aldeko eta aurkako argudioak

Lehengo puntuan aurreratu bezala, zigor mota zehatz honen inguruan eztabaida sortu zen 2010. urtean Legearen Aurreproiektuan agertu zenetik guz egunera arte. Doktrinaren zati gehiena zigorraren eta Zigor Kodean aurreikusia duen arauketaren aurka agertu da, baina badago bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren alde egiten duenik ere. Ondorengo orrialdeetan bi alderdietatik eman diren hainbat argudio azalduko dira.

3.1. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aldeko argudioak

Lehenik eta behin, zigor hau defendatzen dutenek Konstituzioarekin bateragarria dela defendatzen dute, ez delako kasu guztietan konstituziokontraoa izango, ez delako beti bizi artekoa izango (Daunis, 2013). Baieztapen hori defendatzeko, aske geratzeko aukera bat dagoela argudiatzen da, beraz, ez dela betirako zigor bat (nahiz eta mugagabea den) zeinetan Estatuak kondenatuaz ahazten den (Gálvez, 2018). Beste era batera esanda, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria bateragarria da Estaturen *ius puniendi*-aren muga eta berme konstituzionalekin, bereziki zigorraren gizatasun printzipioarekin (Espainiar Konstituzioko 10 eta 15. artikulua), birgizarteratze eta gizarte-birheziketa printzipioarekin (Espainiar Konstituzioko 25.2. artikulua), berdintasun printzipioarekin (Espainiar Konstituzioko 14. artikulua) eta legezotasun printzipioarekin (Espainiar Konstituzioko 25.1. artikulua) (Daunis, 2013).

3.1.1. Birgizarteratze printzipioarekin bateragarria

Espetxe-zigor honen alde erabiltzen den argudio nagusia honako hau da: ez dela zigortuaren birgizarteratzearentzat traba bat, legegileak adierazi duen moduan; izan ere, birgizarteratzearen aldeko pronostikoa lortzeko aukera izango du ezarritako baldintzak betetzen baditu (Gálvez, 2018). Zigor mota hau berrikusgarria denez eta birgizarteratze irizpide batzuetan oinarritzen denez, birgizarteratze printzipioarekin bateragarria izateaz gain, gizatasun printzipioarekin bateragarria ere bada (Juanatey Dorado, 2012).

Honez gain, aipatutako printzipioa errespetatzen duela defendatzeko ondorego argudioa ere erabiltzen da: espetxe-baimenak lortzeko aukera bermatzen duela, baita hirugarren graduan sailkatua izateko aukera ere (Gonzalez, 2013). Erantzukizunaren larritasunaren arabera erantzuna da, birgizarteratzeraz zuzendutakoa (Gálvez, 2018).

Berrikuspena egiteko garaian presoaren egoera pertsonal berria izango da kontuan. Beraz, egokitutako erantzuna jasoko du (Cancio Meliá, 2013); aske geratzea presoaren garapenaren menpe egotea bateragarriagoa da birgizarteratze printzipioarekin berrogei urtera arteko espetxe-zigorra baino (Daunis, 2013). Esan beharra dago gaur egun ez dagoela berrikuspen mekanismo berezirik aurreikusita delitu pilaketa kasuentzat, ezta espetxe-zigor luzeentzat ere, esan bezala, berrogei urtetaraino irits daitekeena (Juanatey Dorado, 2013). Azken honekin harremanetan, delitu-pilaketa kasu zehatz batzuetan, Zigor Kodeko 78. artikulua aplikazioaren ondorioz, berrogei urtera arteko betearazpen osoko espetxe-zigorra aurreikusia dagoenez, praktikan, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriak aurreikusia duen arauaketa baino erregimen gogorragoa izatea eragiten du (López, 2018).

Zigor honen defendatzaileek aipatzen dute Espainiar Konstituzioko 25.2. artikulua ez duela zigorren betikotasuna erabat ukatzen, baldin eta norbanakoa gizartean askatasunean bizitzeko gai denean berau aske geratzeko bide posible eta bideragarri bat badago (Daunis, 2013). Zigorra bizi artekoa izateak edo denbora baterako izateak ez dio birgizarteratzeko gaitasunari eragiten, espetxe-tratamenduak gai izan beharko lukeelako edozein presoren birgizarteratzea lortzeko; bereziki kontuan hartzen bada delitugile arriskutsuen arriskugarritasun pronostikoari egokitzea ahalbidetzen duela (Daunis, 2013).

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriak galdera zehatz bati erantzuten dio: “Zer egin behar da zigorra bete ostean birgizarteratzearen aurkako pronostikoa duten pertsonekin, gizartearentzako arrisku bat suposatzen duten heinean?” Zigor honen bidez ematen zaion erantzuna pertsona arriskutsu horiek kontrolatzen jarraitzea da

(Daunis, 2013). Ildo beretik, zigor honen bidez sistemak arriskutsutzat jotzen dituen delitugile talde zehatz batzuek sor dezaketen arriskuaren gaineko erabateko kontrola ahalbidetzen duela ere adierazten da (Daunis, 2013), adibidez, terroristengan, gizartearengan kezka berezia sortzen duten delitugile talde bat izanik.

3.1.2. Gizatasun printzipioarekin bateragarria

Berrikuspena aldizka egiten dela eta birgizarteratzearen aldeko pronostiko bat izan dezakeela argudiatzen da, eta ondorioz, ez dela Espainiar Konstituzioko 15. artikulua urratzen, tortura eta tratu eta zigor gizagabeak zigortzen dituen artikulua (Gálvez, 2018). Izan ere, zigor bat gizagabeko egiten duena aske geratzeko aukerarik ez izatea da, baina zigor honek berrikuspena aldizka egiteko aukera ematen duenez, ez dela gizagabekoa defendatzen da (Juanatey Dorado, 2013).

Bizi osoa espetxeratua egonda ere, ez da gizagabeko zigor bat izango berrikuspen mekanismo erreal eta bideragarri bat badago aurreikusia, izan ere, “esperantzarako eskubidea” deritzona ez litzateke urratuko (López, 2018). Nahiz eta ez den Konstituzioan jasotako eskubide bat, garrantzia handia du betearazpena gizatiarra egiteko garaian.

3.1.3. Gizartearen eskaerei erantzuna

Espetxe-zigor mota berri hau espainiar arauketan barneratzearen arrazoietakoa bat Justizia-Administrazioarenganako konfiantza indartzea dela adierazi du legegileak legearen aurreproiektuan bertan, hiritarren esku jarriz aurreikusgarriak diren erantzun judizialak bermatzen dituen lege-sistema, zeina gizartean bidezko bezala ikusia dena (Daunis, 2013). Honekin harremanetan, gizartearen zati batek pentsatzen du bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria ez bada Espainiar Konstituzioarekin bateragarria, Konstituzioa aldatu beharko litzatekeela bateragarria izan dadin, helburu horretarako sinadurak biltzeraino iritsiz (González, 2013). Bestalde, gizartearen zati batek desengainua sentitzen duela adierazi du Justizia Ministroak terrorismo delituengatik zigortutako pertsonen zegoen aplikazio-eremua murrizteagatik (González, 2013).

Erabiltzen den beste aldeko argudio bat da delitu zehatz batzuentzat bakarrik dagoela aurreikusia, larrienak kontsideratzen diren horientzat (Cancio Meliá, 2013). Honekin harremanetan, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aldeko pertsonen begietan beharrezkoa da gizartea babesteko bereziki arriskutsuak diren gizabanakoengandik,

zeinak aske geratzen diren zigorra bete ostean, berreroriko ez direla seguru izan gabe (Daunis, 2013).

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren alde hitz egitean, ezinbestekoa da, defendatzen dutenen ustez, ekarriko lituzkeen onurez hitz egitea. Lehenik eta behin, aurrezaintza berezi eta orokor eraginkorra egin lezake delinkuentzia bereziki larriaren kasuan, delitu horietarako baitago aurreikusia zigor mota hau (Juanatey Dorado, 2013). Bigarrenik, gizartearen eskaerei erantzungo lieke, esku-hartze penal handiagoa eta bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria espainiar Zigor Kodean barneratzea eskatzen baitute (Juanatey Dorado, 2013). Hirugarrenik eta azkenik, herritarrak lasaiago eta seguruagoa sentituko lirateke delitu oso larriak burutzen dituzten pertsonak denbora luzerako espetxeratuak direla ikustearen ondorioz (Juanatey Dorado, 2013).

Kontuan hartu behar da aurreikusten den segurtasun epea laburtua izan dela, izan ere, 2012. urteko aurreproiektuak 32 urteko segurtasun epea aurreikusten zuen kasu guztietarako (López, 2018).

3.1.4. Espainiar organoak

Espainiar organo batzuk ere mintzatu dira zigor honen inguruan. Zehazki, Kontseilu Fiskalak ere espetxe-zigor modalitate hau Espainiar Konstituzioko 25.2. artikuluekin bateragarria dela adierazi du, berriro ere, zigorraren zati bat bete ostean askatasuna lortzeko aukera baitago (González, 2013). Estatuko Kontseiluak ere zigor hau barneratzearen alde egin du, aditzera emanez Espainiak, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutua berretsi zuen momentuan, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria legedian barneratzeko atea zabaldu zuela (Gálvez, 2018).

3.1.5. Giza Eskubideen Europar Auzitegia eta Zuzenbide konparatua

Bestalde, Giza Eskubideen Europar Auzitegiari ere erreferentzia egiten zaio, organo honek beste europar herrialde batzuetan ezartzen diren bizi arteko espetxe-zigorraren antzeko zigorrak Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3. artikuluekin bateragarri direla interpretatu izan baitu hainbatetan (Cancio Meliá, 2013); izan ere, pertsona heldu bati bizi arteko espetxe-zigorra ezartzeak ez duela adierazitako hitzarmeneko 3. artikulua, ez beste artikulurik ere, urratzen adierazi du (Daunis, 2013).

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak hori erabakitzeko irizpidetzat hartzen du zigorra berrikusia izateko aukera aurreikusita egotea legedian, zigorraren zati bat bete ostean,

eta zigorra eteteko benetako aukera bat aurreikusia egotea (Gálvez, 2018). Hori dela eta, zigor honen birgizarteratzeko helburua ez litzateke kaltetuta edo urratuta geratuko aldizka barneratuaren egoera berrikusteko aukera aurreikusten bada, eta, askatasunean bizitzeko baldintzak betetzen baditu, baldintzapeko askatasuna ematen bazaio edo aske geratzeko data bat ezartzen bazaio (Daunis, 2013).

Aurrekoarekin lotutako beste aldeko argudio bat honako hau da: Europako beste herrialde batzuetan Espainian aurreikusten den zigor honen antzeko zigorrak aurreikusten dituztela euren legedietan (González, 2013), kondenatuen oinarrizko eskubideekin eta giza eskubideekin bateragarria den zigor gisa ikusten dutelarik, zigorra eteteko aukera dagoen bitartean (Daunis, 2013), eta beraz, Zuzenbide Konparatuko modelotan ere barneratua dagoen zigor mota dela (Gálvez, 2018).

Zigor hau defendatzen dutenen iritziz, litekeena da Espainiar Konstituzio Auzitegiak eta Giza Eskubideen Europar Auzitegiak erabakitzea zigor hau ez dela zigor gizagabe bat, eta beraz, Espainiar Konstituzioko 10 eta 15. artikuluekin eta Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3. artikuluekin bateragarria dela, ez baita askatasuna lortzeko aukera ukatzen (González, 2013).

3.2. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aurkako argudioak

Doktrinaren gehiengoa zigor mota honen aurka agertu da, eta ondorioz, aurkako argudio asko eman izan dira azken urteotan. Nagusienak ondoren adieraziko dira, baina kritika horiekin hasi aurretik ideia batzuk argitzea gomendagarria da.

Lehenik eta behin, Espainiako zigor sistemak edozein zigor “berrikusteko” aukera aurreikusten du, hau da, baldintzapeko askatasuna eskuratzeko aukera aurreikusia dago, birgizarteratze irizpideen arabera, beraz, berrogei urteko zigorrentzat ez dagoela berrikuspenik aurreikusita esatea ez da erabat zuzena (Juanatey Dorado, 2013).

Bigarrenik, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria ez da zigor ezberdin bat, nahiz eta Zigor Kodeak hori adierazten duen, bizi arteko espetxe-zigor bat izaten jarraitzen baitu, honen amaierarako mekanismo zehatz eta propio bat aurreikusi gabe (Daunis, 2013).

3.2.1. Espainiar Konstituzioaren aurkakoa

Legearen aurreproiektuaren zioen azalpenean badirudi bi argudio erabiltzen direla, ondoren jasoko zituen konstituzio-aurkakotasunaren inguruko kritikei alde aurretik

erantzun nahian. Argudio horiek Europa mailan onartua dagoen zigor mota bat dela eta delitu bereziki larrientzat aurreikusten dela dira (Cancio Meliá, 2013).

Hala ere, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria konstituzio-aurkakoa dela adierazi dute egile askok, izan ere, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria mugagabea den heinean, Espainiar Konstituzioan jasotzen diren gutxieneko berme eta eskubideak errespetatzen dituen arauketa bat izan beharko luke, baina aurreikusia duen erregulazioak ez duela baldintza hori betetzen dirudi (Gálvez, 2018). Zehazki, Espainiar Konstituzioko 10. (pertsoneko duintasuna), 14. (berdintasuna), 15. (zigor gizagabeen debekua) eta 25. (legezkotasuna eta birgizarteratzea) artikulak urratzen dituela defendatzen da (Daunis, 2013).

Zigorra betearazpenaren arabera moldatzea legezkotasun, berdintasun eta ziurtasun printzipioen aurkakoa da, hain zuzen ere (Juanatey Dorado, 2012), eta zigorren helburua birgizarteratzea izatea urratzen du (López, 2018).

Espetxe-onurak lortzeko ezartzen diren epe luzeak eta txostenak idazteko garaian erabili daitezkeen subjektibitateak ere traba gisa jokatzen dute. Zigorrek objektiboki murrizgarri izan behar lukeela defendatzen da, bestela presoari bizi arteko espetxe-zigorra ezartzea bezala izango litzatekeela (Gálvez, 2018).

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren bidez berme juridiko eta printzipio penalen atzerapauso garrantzitsu bat eman dela adierazten da (Daunis, 2013), baita zigor onartezin bat dela ere, gutxieneko bermeak babesten dituen zigor sistema bat arautzen duen konstituzioarekin erabat bateraezina dena eta eman zaion arauketak berez duen gogortasun eta zorrotasuna azpimarratzen duena (Daunis, 2013).

Zigor honen aurka daudenek adierazten dute batzuetan badirudiela ahaztu egiten dela krimen arloko politika Espainiar Konstituzioak mugatzen duela (González, 2013).

3.2.1.1. Birgizarteratze printzipioaren aurkakoa

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria Espainiar Konstituzioko 25.2. artikularen aurkakoa dela defendatzen da, zigorren helburua birgizarteratzea lortzea izan beharko litzatekeela adierazten duen artikularen aurkakoa, zehazki. Botere Judizialaren Kontseilu Orokorreko Ikerketa eta Txostenen Batzordeak iritzi hau dela adierazi du (González, 2013). Aipatutako artikuluan beraien luzapenagatik, izaeragatik edo betearazteko moduagatik barneratuen birgizarteratzea oztopatzen duten zigor askatasun-gabetzaileen debekua jasotzen da (Daunis, 2013).

Kontuan hartu behar da birgizarteratzea barneratu guztiek duten eskubide bat dela, baina baita Estatuak duen erantzukizun bat ere, etorkizuneko delituak ekiditeko helburuarekin dituen baliabide guztiak erabili behar baititu kondenatuaren birgizarteratzea lortzeko, hau da, preso askatasunean bizitzeko gai egitea espetxetik irteten denerako. Betekizun hau zigor mota guztiei zaie aplikagarri; ezartzen diren zigor guztiek birgizarteratzerantz bideratuta egon behar dute, hori baita Konstituzioko 25.2 artikulua eskatzen duena. Horregatik, espetxeko bizitzaren antolakuntza eta jarduerak birgizarteratzea erraztera eta ahalbidetzerantz bideratuak egon behar dute (Landa, 2015).

Hala ere, zigorraren helburu nagusia birgizarteratzea lortzea izan beharrak ez du ekiditen espetxearen bidez bestelako helburu batzuk betetzea, baina horrek ez du esan nahi birgizarteratzea bigarren mailako helburu bilakatu daitekeenik, aurrezaintza orokorreko helburu bat beronen gainetik jartzeko (Daunis, 2013).

3.2.1.1.1. Bizi osorako izan daiteke

Zigorra berriusgarria den arren, berriuspen hori ukatzeko aukera dago, eta horrek bizi osorako espetxe-zigor bat ezartzeko aukera ematen du, zigorra mugagabea den heinean, izan ere, aske geratzeko aukerak ez du esan nahi aske geratuko denaren ziurtasuna duenik (González, 2013).

Beraz, kondenatu bat bere heriotzara arte espetxean egon daiteke zigor honen aplikazioaren ondorioz (Gálvez, 2018), hau da, **bizi osorako izan daitekeen zigor bat** onartu zen 2015. urtean (López, 2018). Bizi osorako iraupena izan dezakeen espetxe-zigor batek arrazoitzeko eta hausnartzeko gaitasuna duen pertsonaren ideiarekin talka egiten du (Juanatey Dorado, 2012), eta ondorioz, birgizarteratzea urratzen du.

Esperantzarako eskubidea ere aipagarria da, nahiz eta formalki ez den eskubide bat. Zigor honen aurka dauden iritziz, berau eskubide teoriko hutsa besterik ez da, presoak baldintzapeko askatasuna eskuratu ahal izateko ezarritako baldintzetan birgizarteratu ahal izateko oztopoak bakarrik ikusiko dituelako, beraz, askatasuna ilusio bat bihurtuko da errealitate bat baino gehiago (Landa, 2015).

Bestalde, gizartearen begietan delitugilea modu librean delitu bat egitea erabakitzen duen pertsona da, beraz, delitu bat burutu duen pertsonari ezarritako zigorraren helburua ez da birgizarteratzea lortzea izango, hiritarrak beldurraraztea baizik, delitu hori ez burutzea erabaki dezaten (Daunis, 2013).

Horregatik, zigor mota zehatz honek birgizarteratzearen ideia baztertzen duela defendatzen du doktrinaren zati batek, delitugile arriskutsua kontrolatzearekin eta

neutralizatzearekin ordezkatur, “**Etsaiaren Zigor Zuzenbidea**” deritzonaren bidez pertsona talde zehatz batzuen berme penal eta prozesalak malgutzen diren bitartean (Daunis, 2013). Etsai kontsideratzen diren pertsoneri bermez osatutako Zigor Zuzenbidetik kanpo geratzen diren zigorrak ezartzen zaizkie (Daunis, 2013), bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria zigor horietako bat kontsideratu daitekeelarik zigor honen aurka daudenen ustez. “Etsaiaren Zigor Zuzenbidearen” helburua ez da birgizarteratzea lortzea, delitugilearen neutralizazioa bakarrik bilatzen da, bizi osorako espetxeratu behar badute ere (Daunis, 2013).

Zigor eta segurtasun neurri mugagabeek delitugileen neutralizazio eta **inokuizatzea** ahalbidetzen du, pertsona horrek gizartearentzat arrisku bat izateari uzten dion momentura arte (Daunis, 2013). Horregatik bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren oinarrian honako ideia hau dagoela dirudiela adierazten da: kondenatua birgizarteratze ezina dela aurkakoa erakutsi arte, aurkakoa izan beharko lukeenean (López, 2018).

3.2.1.1.2. Epe luzeegiak

Zigorraren helburu nagusiak birgizarteratzea lortzea izan beharko luke, horretara bideratuz dauden baliabide guztiak. Hala ere, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria kondenatutako pertsonak zailtasun handiak izango dituztela birgizarteratzea lortzeko argudiatzen dute zigor honen aurkakoek, praktikan eskatzen diren **baldintza gogorrak** direla-eta (Gálvez, 2018).

Birgizarteratzea gero eta bideragarriagoa eta egingarriagoa izango da barneratua ez badago desozializatua. Horretarako garrantzitsua da zigorra bereziki luzea ez izatea (Landa, 2015), barneratuak dituen harreman sozial eta familia-harremanak ez hondatzeko (Daunis, 2013).

Honekin harremanetan, azpimarragarria da aurkakoen iritziz zigor honek ez duela birgizarteratze printzipioa errespetatzen honen aurkakoa delako **epe hain luzeak ezartzea** (Daunis, 2013); irteera-baimen arruntak eskatzeko ezartzen den zortzi urteko epea luzeegia da, baita hirugarren gradua eskuratu ahal izateko eskatzen diren hamabost urteak eta berrikuspena lortzeko ezarritako hogeita bost urteak (Daunis, 2013). Gainera, epe hauek luzeagoak dira terrorismo kasuetan eta delitu-pilaketa kasuetan (irteera-baimenak lortzeko epea izan ezik). Ezarritako epe hauek ezin daitezke “kondenaren gutxieneko zati” gisa kalifikatu, Zigor Kodeko 36. artikulua ezarritako hogeitazko epea gaintzen baitute (López, 2018). Epe oso luzeak izateaz gain, espetxean pasako duen denbora ez da ziurra eta bizi osorako egon daiteke

presoa espetxeratua (Juanatey Dorado, 2012), birgizarteratze printzipioa urratuz askoren ustez.

Izan ere, zigor bat geroz eta luzeagoa izan orduan eta zailagoa izango da presoak birgizarteratzea lortzea (Juanatey Dorado, 2013). Gainera, aurreikusten den arauketari erreparatuz gero, birgizarteratzearen inguruan modu formal batean bakarrik hitz egin dezakegula adierazten da, epe oso luzeak ezartzen direlako, salbuespenik egin gabe kondenatuaren garapenari erreparatuz (Juanatey Dorado, 2013). Honez gain, berrikuspena lortzeko ezartzen diren irizpideak lortzea oso zaila dela defendatzen da, eta ez dagoenez gehiengo muga bat bizi osoa espetxean pasa dezake kondenatuak. Epe luze horiek Giza Eskubideen Europar Auzitegiak ezarritako baldintzak ere apurtzen ditu askoren ustez, ez baitago aldizkako berrikuspena kontsideratzerik hogeita bost urte pasa behar baditu espetxean lehen aldiz berrikuspena egin ahal izateko (Juanatey Dorado, 2013).

Ezin dezakegu ahaztu hamabost urtetik gorako zigor askatasun-gabetzaileek arrisku bat suposatzen dutela barneratuaren izaerarentzat; horregatik, zigorrek ez lukete hamabost urteko epe hori baino luzeagoak izan beharko (Daunis, 2013), hamar edo hamabost urte baino gehiagoko askatasun-gabetzeak barneratuaren izaeraren hondatze atzeraezina ekar dezaketelako (Landa, 2015), bestelako eragin kaltegarriez gain, hala barneratuarengan nola hauen familiako kideengan (González, 2013). Beraz, hirugarren graduan sailkatua izateko ezartzen den hamabost urteko epea (luzeagoa izan daitekeena hainbat kasutan) luzeegia dela eta prisionizaziotik gertu dagoela defendatzen da (Daunis, 2013). Kalte hauek birgizarteratzea zailtzen dute, pertsonak bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean parte hartzeko zailtasunak eraginez (González, 2013).

Birgizarteratzeraz zuzendutako sistema bat defendatzeko, barneratua espetxeratuta egongo den gehieneko epea ezartzen duten arauak beharrezkotzat jotzen ditu doktrinaren zati batek, eta muga horrek hamar eta hamabost urte artean egon beharko lukeela ematen dute aditzera (Juanatey Dorado, 2012).

3.2.1.1.3. Irizpide zehaztugabe eta nahasiak

Bestalde, **ezarritako irizpideei** dagokionean, legegileak birgizarteratzearen aldeko pronostikoa aipatzen duenean, irizpide nahasiak eta elkarren artean hierarkiarik gabekoak aurkezten dituela adierazi du doktrinaren zati batek, eta horrek epaileek hartzen duten erabakiaren gaineko kontrol bat egitea zailtzen duela, proportzionaltasuna errespetatu dela egiaztatu ahal izateko (Landa, 2015).

Zehazki, irteera-baimenak lortu ahal izateko, ezarritako epeaz gain, irizpideek beraiek ere zailtasunak ezartzen dituzte, bereziki Arriskuaren Balore Taulan eta Inguruabar Berezien Elkartzeko Taulan jasotzen direnak (López, 2018). Berrikuspenari dagokionean, epaia emandako epaile edo magistratuek berau onartzeak edo ez onartzeak eduki subjektibo handi bat du, hainbat elementu eta faktorek eragiten dutelarik erabaki horretan, presio politiko, mediatiko eta hiritarra izanik nabarmentzen direnak (Daunis, 2013).

Gainera, denbora askoz espetxeratua dauden pertsonak beraien ingurugiro sozial eta familia-ingurugirotik aldenduz doaz apurka-apurka deserrotzera iritsi arte, harremanen hondatze progresibo baten ondorioz, prisionizazioa eraginez. Prisionizazio prozesuak berak eragin negatiboa du barneratuarengan, askatasunean bizitzeko beharrezkoak diren gaitasun, trebetasun eta abileziak hondatzen dituelako (Daunis, 2013). Horrez gain, hogeita bost urte edo gehiagoko espetxe-zigorra bete ostean lehen berrikuspenean ez badu askatasuna lortu, oso zaila izango da urtebete edo bi urte pasa ostean gauzak aldatu izana eta berrikuspena lortzea (López, 2018).

Prisionizazio prozesuak, gainera, espetxe-tratamendua ere oztopatzen du, izan ere, barneratuak kanpoko munduarengandik desozializatu behar du espetxe barruan sozializatu ahal izateko, beraz, prisionizazioak desozializazioa dakar (Daunis, 2013).

Horrez gain, zigor hau kritikatzeko dutenen iritziz, ez lirateke kontuan hartu behariko kondenatuak aldatu ezin dituen irizpideak, familiako egoera edota egoera soziala, kasu. Eteteak berak izan ditzakeen ondorioaren irizpidea ere kritikatu da, zehaztugabea izateagatik. Gainera, irizpide honek arazoak ekar ditzateke praktikan, aske geratzeak ekar lezakeen alarma soziala izan baitezakete kontuan, askatasuna ukatuz kasu askotan (López, 2018).

Aipagarria da segurtasun epeak zenbat eta luzeagoak izan, orduan eta zailagoa izango dela kondenatuaren jokaerarekin erlacionatuta dauden ezarritako irizpideak betetzea, adierazi den moduan, prisionizazioak birgizarteratzea oztopatzen duelako (López, 2018).

Aurrekari penalak eta burututako delituaren inguruabarrak kontuan izatea ere kritikatu izan da, delituaren ondorio juridikoa erabakitzeke eta graduko sailkapena egiteko erabiltzen diren irizpide berberak direlako, eta, aldi berean, ez dutelako birgizarteratzearen inguruko daturik ematen (Daunis, 2013). Irteera-baimenak onartu edo ez onartu erabakitzeari dagokionean, delituaren larritasuna eta zigorra betetzeko geratzen den denbora kontuan izateak irteera-baimenak ukatzea eragingo lukeela ia kasu guztietan argudiatzen da (López, 2018).

Ilido beretik, berrikustea onartzea arriskugarritasunik ez egotea edo jokaera ona bezalako kontzeptuetan oinarritzen da. Egiatzatu ezin diren kontzeptu subjektiboak dira, eta ondorioz, baliteke epaile batentzat irizpide horiek betetzea baina beste batentzat ez, kasu berdina aztertzen dutenean (Juanatey Dorado, 2012).

Arriskugarritasunaren inguruan hitz egitean adierazi behar da arriskugarritasunaren pronostikoa bera ez dela guztiz fidagarria askoren iritziz, eta hainbatetan ikusi dela arriskugarritasuna neurritz kanpo balioztatzeko joera dagoela, positibo faltsu asko eraginez. Gainera, errore marjina handia du. Delitu bereziki arriskutsuak diren kasuetan neurritz kanpoko balorazioa handiagoa denez, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren kasuan gehiagotan emango liriteke positibo faltsuak (López, 2018).

Gainera, ez dago argi zein erlazio egiten duen legegileak birgizarteratze pronostikoaren eta kondenatua berreroriko balitz kaltetuak suertatuko liritekeen ondasun juridikoen artean. Kontuan hartuz bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria bereziki heriotzaren bat eragin duten pertsonentzat aurreikusten den zigorra dela, berrerortzen badira kaltetua gertatuko den ondasun juridikoa gehienetan bizi izango da, eta horrek praktikan baldintzapeko askatasuna lortzea blokea dezake. Bestalde, aurrekari penalek eta burututako delituaren inguruabarrek ez dute birgizarteratzeari buruzko informaziorik ematen, bereziki, gutxienez, hogeita bost urte espetxeratua egon ostean (Daunis, 2013).

Berrikusgarria izateak eta kondenatuak, salbuespenezko moduan eta irizpide zehatz batzuk betetzen ditutenean, zigorraren betearazpena eteteko aukera izateak ez du esan nahi barneratu guztien kasuan emaitza berdina izango denik, baldintzapeko askatasuna onartzea oso kasu gutxitan ematen den errealitatea bihurtu daitekeelarik zigor honen aurka daudenen begietan (Daunis 2013).

3.2.1.1.4. Ondorioak

Ezartzen diren epe luze horiek prisionizazioan sakontzen dute. Kondenatua hamabost urtez erregimen arruntean mantentzeak, barneratze hain luzeetarako egokitu gabeko tratamendu zehatzik ezarri gabe gainera, birgizarteratzeko esperantza guztiarekin amai dezake, eta beraz, bizi arterako espetxe-zigorra bihurtzen da (López, 2018).

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria defendatzen duten pertsonak ezin dute zigorren helburua birgizarteratzea dela defendatu aldi berean, bata bestearen aurkakoak baitira (Juanatey Dorado, 2012); izan ere, ezartzen diren epe luzeei eskatzen diren irizpide nahasiak eta arriskugarritasuna auresateko balio ez dutenak

gehitzen bazaizkie, birgizarteratzea lortzea zailtzen dute, bereziki terrorismo kasuetan (Landa, 2015). Zigor honen arauketak zigorraren gogortasuna eta zorrotasuna azpimarratzen du, aurreikusten diren epeak, adierazi den moduan, proportzioz kanpoko luzeera izateaz gain, birgizarteratzearen aldeko pronostikoa oinarritzeko irizpide nahasiak proposatuz, interes ezberdinei erantzuten dieten irizpideak izenik, gizarte alarma edota ordainketa izanik horietako batzuk, zeinek ez duten kontutan izaten pertsonak gizartean askatasunean bizitzeko duen gaitasuna (Daunis, 2013).

Hori dela eta, zigor honen aurka daudenen ustez esan daiteke zigorraren betearazpena eteteko erabakia hartzea salbuespenezko erabaki bat dela, eta ez arau orokorra, ezarritako irizpide horiek guztiak betetzea ia ezinezkoa delako (Cancio Meliá, 2013).

Laburbilduz, zigor hau ez dela beharrezkoa, krimen arloko politikaren ikuspuntutik onartezina dela eta juridiko-teknikoki modu desegokian eta konstituzioarenganako errespetuaren mugan egina izan dela defendatzen da (Cancio Meliá, 2013).

3.2.1.2. Gizatasun printzipioaren aurkakoa

Espaniar Konstituzioko 10. eta 15. artikuluek zigorren gizatasun printzipioa jasotzen dute. Zehazki, 10.1. artikuluan gizabanakoa gauza bat bezala tratatzea debekatzen da, bestelako helburu bat lortzeko erabili ezin daitekeena, eta aldi berean, gizabanakotik aldentzen diren eta fokoa gizartearengan jartzen duten zigorrak debekatu. 15. artikulua, berriz, giza duintasunaren aurkako zigorrak baztertzen ditu, inork jasan beharko ez lituzkeen tratatu anker eta ez-gizatiarrak eragiten dituzten zigorrak, zehazki. Hori dela eta, bizi arteko espetxe-zigor berriusgarria ez da bateragarria bi artikulua hauekin (Daunis, 2013).

Printzipio honek lotura estua du birgizarteratze printzipioarekin, izan ere, azaldu den moduan, espetxe-zigorren helburuak birgizarteratzea lortzea izan behar du, beraz, espetxeak pertsonen depositu huts ez bihurtzeko hartu beharreko neurriak hartu behar dira, eta hori ekiditeko ezinbestekoa da zigorren gizatasuna errespetatzea eta espetxe-tratamendu egoki bat bere eskura jartzea (de la Cuesta, 2013).

Izan ere, askatasuna eta autonomia pertsonala mugatzeaz gain, barneratuaren izaeraren garapena ere mugatzen du, eta horri gehitzen badizkiogu iraupen luzeak eragin ditzakeen kalte fisiko eta psikologikoak, agerikoa da zigor mota honek ez duela esandako artikulua errespetatzen (Gálvez, 2018).

Zigorraren betearazpena eteteko aukera egotea epaile edo magistratuen esku uzten den aukera bat besterik ez da, barneratuaren heriotzara arte berrikuspena behin eta berriz ukatzea eman daitekeelako (López, 2018). Pertsona bat bere bizitza osorako espetxeratzeko aukera aurreikusten duen arauak Espainiar Konstituzioko 15. artikulua urratzen du modu nabarian (Daunis, 2013).

Aurrekoarekin harremanetan, 1870. urtean bizi osorako kondenatuak zeuden pertsonen indultua emateko betebeharra zegoen hogeita hamar urte betetzen zituenean, salbuespen gutxi batzuk aplikatuz beren jokaeragatik (González, 2013), horrek aske geratzeko esperantza mantentzen zuen eta bizi osorako espetxean egoteko aukerak nabarmenki jaisten zituen.

3.2.1.3. Berdintasun printzipioaren aurkakoa

Berdintasun printzipioa ere ez du errespetatzen zigor mota honek (Juanatey Dorado, 2012), espainiar Konstituzioko 14. artikuluan jasotzen dena.

Lehenik eta behin, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria zigor gisa aurreikusi duten delituen zerrendak berak urratzen du berdintasun printzipioa. Hasteko, genozidio kasuetan lesioak eragiten direnean edo sexu askatasunaren aurkako delituak burutzen direnean, adierazi den moduan, espetxe-zigor mota honekin zigortzen da, baina ez luke heriotza bat eragitearen zigor berdina izan beharko (Daunis, 2013; Pinedo, 2017), larritasun oso ezberdina duten delituak izanik. Sexu askatasunaren aurkako delitu bat burutu ostean pertsona erailtzen den kasuei dagokionez, ez da ezberdintasunik egiten delitu motaren arabera, sexu abusuak eta bortxaketak parekatuz eta zigor berdina ezarriz; eta gainera ez da justifikatzen zergatik ezartzen zaion zigor gogorragoa sexu askatasunaren aurkako delitu bat burutu ostean ematen diren hilketei, baina ez bestelako ondasun juridiko pertsonalen aurkako delituak burutu ostean ematen diren hilketei, adibidez, lapurretak (Daunis, 2013). Erailketa terroristari erreparatuz, kasu horietan aurreikusten den zigorra da, baina ez da talde kriminalen baitan ematen diren erailketa kasuetarako aurreikusten, antzeko egoerak izanik biak (Daunis, 2013).

Bigarrenik, berdintasun printzipioarekin jarraituz, zigor honen eragin eta iraupenean eragina izango duen elementu bakarra ez da kondenatuaren erruduntasuna izango, barneratuaren erresistentzia fisiko eta psikikoak eta gorpuzkerak ere garrantzia izango dute. Zigor hau gogorragoa izango da barneratu gazteentzat adinekoentzat baino (Daunis, 2013), gazteagoak diren heinean denbora gehiago pasa baitezakete barneratuta.

Hirugarrenik, aske geratzeko aukerak potentzialki edonoren esku egon beharko luke, burututako delitua dena dela ere (Landa, 2015). Gainera, gehieneko eta gutxieneko mugarik ezartzen ez duen zigor bat denez, epaile edo magistratuek ezin dute zigorra emandako jokaerara egokitu, ezin daitekeelako egokitu, beraz, zigorra gertatutako delitura egokitzeko ezintasuna suposatzen du, eta ondorioz beste delitu guztietan egiten den egokitzea ez ematea eragiten du zigor mota honetan (Daunis, 2013).

Horrez gain, espetxe-baimenak lortzeko bestelako espetxe-zigorretan ez da epe zehatz bat ezartzen, zigorraren laurden bat betetzea eskatzen da eta ez da ezberdintasunik egiten delitu motaren arabera, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren kasuan errespetatzen ez den baldintza bat, eta beraz, berdintasuna urratzen duena beste behin (Daunis, 2013).

Azkenik, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarrian bertan, legegileak ez ditu beti egoera berdinak ezartzen salbuespen gisa; hala ere, terrorismoa kasu guztietan zigortzen da gehiago, epe luzeagoak ezarriz, aurrezaintza bereziaren aurretik jarriz delitu mota hauek zigortzea (López, 2018).

3.2.1.4. Legezketasun printzipioaren aurkakoa

Legezketasun printzipioa espainiar Konstituzioko 25.1. artikuluan, Lege Prozesal Penaleko 990.1. artikuluan eta Espetxeko Lege Organiko Orokorreko 2. artikuluan jasotzen da. Konstituzio Auzitegiak aditzera eman du delituak eta hauen ondorio juridikoak legean aurreikustean argi utzi behar dela zein jokaera diren delitu eta hauengatik ezarri daitezkeen zigorrak zein diren (Daunis, 2013), modu horretara hiritarrek ezer egin baino lehenago jakingo dute zein jokaera burutu ditzaketen eta zeintzuk ez, eta debekatuta dagoenetako bat egiten badute zein zigor eta zenbat denborarako jasoko duten.

Adierazitako printzipioak hainbat berme barnebiltzen ditu: berme kriminala, berme penala, berme jurisdikzionala eta betearazpeneko bermea. Lehenaren arabera, ezin izango da jokaera bat delitutzat hartu aurretik legean adierazten ez bada delitua dela eta dagokion zigorra ezartzen ez bazaio (*nullum crimen sine lege praevia*). Bigarren bermeari jarraiki, debekatu dago aurrez legean ezarrita ez dagoen zigor edo segurtasun-neurririk ezartzea hiritarrei (*nulla poena sine lege*). Hirugarrenak, aldiz, zigor edota segurtasun-neurriren aplikatu ahal izateko eskuduntza duen epaile edo auzitegi batek emandako epai irmoa behar dela adierazten du, epaiketak ematen dituen berme guztiak errespetatuz. Laugarren bermeak, aldiz, zigorra betearazten denean epaik berariaz murrizten ez dituen oinarrizko eskubideak urratzea debekatzen

du. Hori betetzeko zigor edota segurtasun-neurriak legeak eta erreglamenduetan adierazitako moduan bakarrik betearaziko direla adierazten da, eskuduntza duen epaile edo auzitegiaren kontrolpean egongo delarik betearazpena (Rodríguez, 2006).

Bizi arteko espetxe zigor berrikusgarriak legezkotasun printzipioa urratzen duela esaten denean berme penalarik egiten zaio erreferentzia bereziki, izan ere, berme honi jarriki, zigorrak modu zehatzean aurreikusi behar dira, hauen natura eta iraupena barne. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren kasuan, ziurra da espetxeratzearen data, baina ez irteera data, horregatik ez dela berme honekin bateragarria defendatzen da (Pinedo, 2017).

Printzipio honek zigor arbitrario eta mugagabeak baztertzeko ditu, eta zigorren zehaztapen sistema ezartzen du, legearen errespetu osoari garrantzia handia emanez, non argi geratu behar den jokaera baten ondorioz ezarriko den ondorio penala edo zigorra; zigorra ezarri aurretik argi geratu behar dira gutxieneko eta gehieneko mugak, non epaileak dosimetria penalarik legeak aplikatuz erabakiko duen ezarriko zaion zigorraren epe zehatza (Daunis, 2013). Gainera, barneratuak hasieratik ezagutu beharko lituzke berrikuspen positiboa edo negatiboa egiteko kontuan hartuko diren irizpideak (Landa, 2015), baina errealitatean ez da horrela gertatzen. Birgizarteratzearen aldeko pronostikoa motibatuzeko kontuan hartu beharreko irizpideen arauketari erreparatu gero argi ikus dezakegu irizpideak bereziki lausoak, abstraktuak eta trinkotasunik gabekoak direla, eta horrek berrikuspena onartzea edo ez onartzea prozesu arbitrario eta aurreikusi ezina bihurtzen du (Daunis, 2013).

Gehieneko muga bat zehaztua ez duen heinean, ziurtasun azpi-printzipioa urratzen du (González, 2013), eta mugatua ez dagoen heinean, epailearen edo auzitegiaren interpretazioaren arabeko iraupena izango du, gutxieneko epea bete ostean betiere, birgizarteratzearen inguruko erabakia hartzeko kontuan hartuko dituzten irizpideak bereziki ezberdinak eta loturarik gabekoak direlarik, aipatu den moduan (Daunis, 2013).

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriak dakarren segurtasun-eza juridikoaz gain, beronen arauketa kaltegarria gehitzen zaio, birgizarteratzea lortzeko irizpide zerrenda nahasi bat aurkeztuz (Daunis, 2013).

3.2.1.5. Proporzionaltasun printzipioaren aurkakoa

Bizi arteko espetxe-zigor berriusgarria ezin daiteke zigor proporzionaltzat kontsideratu, eta beraz, zigorren proporzionaltasun printzipioa urratzen du (Juanatey Dorado, 2012).

Zigorak helburura bideratuta egon behar du proporziozkoa izateko, eta zigor guztien helburu nagusia birgizarteratzea izan behar dela kontuan izanik, ezin daiteke esan zigor hau proporzionala denik. Zigorren artean eraginkortasun berdina dutenen artean kalte gutxiena eragiten duena aukeratu beharko litzateke, eta zigorra indibidualizatzea ere garrantzitsua da, baina zigor honek ez du horretarako aukerarik ematen (González, 2013); izan ere, bizi arteko espetxe-zigor berriusgarriak modalitate bakarra du aurreikusita eta ezartzen diren epeentzat eta baldintzentzat ez da inolako salbuespenik aurreikusten. Beraz, kondenatu guztiei zigor berbera ezarriko zaie, indibidualizatzeko aukerarik eman gabe epaile edo magistratuei.

3.2.2. Beharrezkoa ez den zigorra

Esku-hartze penalak beharrezkoa izan behar du, beharrezkotasun printzipioaren ondorioz, eta horrek esan nahi du beharrezkoa den zigorra bakarrik ezarriko dela, hau da, sozialki erabilgarria den zigorrak bakarrik izango direla bidezkoak Zuzenbideko Estatu batean (Cancio Meliá, 2013).

Ez dirudi beharrezkoa denik bizi arteko espetxe-zigor berriusgarria barneratzea, kontuan hartzen bada Espainiako delinkuentziak behera egin duela (Gálvez, 2018). Zigor honen barneratzea ez da kriminalitatearen gorakada batean oinarritzen, ez delako halako gorakadarik eman. Zigor Zuzenbideak azken urte hauetan hartu duen hedatzeko joerak ez die ikerketa enpirikoei erantzuten; izan ere, ez dago frogaren enpirikorik adierazten duenik Espainiako delinkuentziari aurre egiteko modurik onena esku gogorreko Zigor Kode bat dela (Juanatey Dorado, 2012). Gainera, zigor honen bidez zigortzea aurreikusten den delinkuentzia larriaren kasuan, berrerortze-tasak estatistikoki oso baxuak edo ia hutsalak dira, baina gizartean badirudi terroristek birgizarteratu ezin dutelaren irudia dagoela, beraien ideologia alda ezin dezaketena, alegia (Daunis, 2013). Sexu-askatasunaren aurkako delituak burututa dituzten pertsonen berrerortze-tasa ere baxua dela adierazi duten hainbat ikerketa ere badaude (Daunis, 2013).

Laburbilduz, ez dirudi beharrezko erreforma zenik, Europa osoko delinkuentzia tasa txikienetako bat duen herrialdeetako bat baita (baita delinkuentzia larrian ere)

(Fuentes, 2014), baina, aldi berean, Zigor Kode gogorrenetako bat duena zen, berrogei urtetarainoko betearazpen osoa aurreikusten baitzuen (López, 2018).

Adierazi behar da zigor sistemaren gogortzeak ez duela automatikoki delinkuentziaren beherakada bat ekartzen, eta, aldi berean, zigor sistema leuntzeak ez duela delinkuentziaren gorakada bat ekarri behar (González, 2013).

Bestalde, legearen aurreproiektuan ez da inongo arrazoirik ematen zigor hau barneratzea justifikatzen duenik (Juanatey Dorado, 2012); legegileak, aurreproiektua aurkeztean, ez zuen zigor honen beharrezkotasunaren inguruko ikerketa enpiriko edo normatibotik aurkeztu (Cancio Meliá, 2013).

Aipagarria da zigor hau oso kasu gutxitan aplikatuko dela (terrorismo kasuak salbuetsita) eduki oso zehatza duten artikuluetan aurreikusten baita bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria (Gálvez, 2018).

Zigor bat beharrezkoa dela esateko honen aurretik ezarritako zigorrek ez lukete duten helburua bete beharko; hau da, 20,25,30 eta 40 urtetako espetxe-zigorrek bete ostean berrerortze tasa handi batek egon beharko luke. Kontuan hartzen badugu berrogei urtetako gehieneko muga 2003. urtean barneratua izan zela, 2043. urtera arte itxaron beharko genuke lehen kondenatu horien berrerortze-tasak ikusi ahal izateko; beste modu batera esanda, oraindik ez da nahikoa denbora pasa zigor horietara kondenatuta dauden pertsonak aske geratu ahal izateko, beraz, ezin dezakegu egiaztatu berrerortze-tasa altua ote duten (Juanatey Dorado, 2013).

Bestalde, zigor bereziki larrientzat aurreikusten denez, zigor mota horien gorakada batean oinarrituta egon beharko luke zigorraren barneratzeak, baina Espainiako hilketa eta sexu erasoen tasak Europako baxuenetakoak dira, eta ez da gorakada nabarmenik eman hauetan. Gainera, ETAREN armagabetzearen ostean terrorismo delituen tasa ere behera joan da (Juanatey Dorado, 2013).

Aurrekoaz gain, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriak orain arte ezarritako espetxe-zigorrek baina aurrezaintza negatibo eraginkorragoa egiten ote duen aztertu dute hainbat autorek, hau da, ea bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriak beldurrarazte handiagoa eragiten duen eta delitugile potentzial gehiagok delitua ez burutzea erabakitzen ote duten beldurrarazte horren ondorioz. Egia da zigor luzeek beldurrarazte handiagoa eragin dezaketela gizartean, baina dagoeneko berrogei urte arterainoko espetxe-zigorra existitzen dela kontuan izanda, zigorra ez dela beharrezkoa ondorioztatzen dute hainbat autorek (Juanatey Dorado, 2013).

3.2.3. Zuzenbide konparatua eta Giza Eskubideen Europar Auzitegia

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren alde hitz egitean askotan erabili izan den argudio bat da Giza Eskubideen Europar Auzitegiak zigor honen antzeko zigorrak onartu izan dituela eta hainbat herrialde europarretan aurreikusitako zigor bat den heinean, Zuzenbide konparatuan ere onartzen den zigor bat dela. Baieztapen horiek egia dira, baina hainbat ñabardura egitea garrantzitsua da, izan ere, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak zigorra baldintza batzuekin onartzen du.

Batetik, erabateko debekua ezartzen du pertsona bat bizi osorako espetxeratzea ahalbidetzen duen zigorren gainean. Auzitegi honentzat garrantzitsua da iraupen luzea duten zigorren kasuan berrikuspen mekanismo bat egotea, bideragarria eta erreal dena, birgizarteratzea lortzeko aukera bermatuz (Gálvez, 2018), Espainiako arauketaren kasuan birgizarteratzea lortzeko aukera bermatzen dela eztabaidagarria dela argudiatzen da, eta bizi osorako espetxeratua egotea ahalbidetzen du (Landa, 2015).

Bestetik, Auzitegi honen irizpidearen arabera, bizi arteko espetxe-zigorrek baldintza batzuk bete behar dituzte Giza Eskubideen Europar Hitzarmenaren 3. artikuluekin (tortura eta tratu eta trataera ez-gizatiarrak debekatzen dituena) bateragarria izateko. Espetxe-zigorrak murrizgarria izan beharko luke *de iure*, baina baita *de facto* ere, hau da, aske geratzeko aukera batek aurreikusia egon behar du legean, baina, horrez gain, askatasun hori lortzeko mekanismo egoki bat izan behar da, askatasuna lortzea ahalbidetzen duena (Landa, 2015). Beraz, bizi arteko espetxe-zigor murrizgaitz batek, presoari aske geratzeko esperantza guztia ezabatzen dionak, Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3. artikulua urratzen du (Daunis, 2013), aske geratzearen aukera ukatzen duen legediak norbanakoari aldatzeko duen gaitasuna kentzen baitio (Landa, 2015).

Berrikuspenerako aukera teoriko bat egotea ez da nahiko espetxe-zigorra Giza Eskubideen Europar Hitzarmenarekin bateragarria dela baieztatzeko, herrialdeek betebeharrak prozesal bat dute kondenatuen gainean, zehazki, berrikuspen mekanismo bat izatera behartzen ditu (Landa, 2015). Berrikuspena egiteko epeak ez lukeela hogeita bost urtetik gorakoa izan behar gomendatzen du auzitegiak. Gainera, berrikuspen horren ondoren berrikuspen periodikoak egiteko betebeharra ere ezartzen du (Landa, 2015).

Zigor honen aurka daudenen iritziz, Espainian aurreikusten den berrikuspenaren arauketa ez da barneratua askatasunean geratzeko berme bat, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak ezarritako irizpideekin bateragarria dela adierazteko mekanismo

bat baino ez da. Betearazpena ezinezkoa izango da *de facto*, berrikuspena onartzeko ezarri diren irizpideak, azaldu den bezala, nahasiak baitira (Landa, 2015). Gainera, epaileak edo auzitegiak hartzen duen erabakiak eduki baloratibo handia du eta presio mediatiko, politiko eta sozialak eragiten dio (López, 2018).

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak berrikuspenaren helburu gisa finkatzen du autoritateek ondorengo ebaluatzea ahalbidetzea: zigorra mantentzea jada ez egotea justifikatua barneratuak egindako birgizarteratzearen aldeko garapen eta aldaketa dela-eta (Landa, 2015).

Edonola ere, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren antzeko zigorrak aztertzeke garaian, ez du kontuan hartzen halako zigor batek giza duintasunean eragin dezakeen oinazea. Ez du balioztatzen zigor mota honek birgizarteratzea *de facto* errespetatzen ote duen, ezta ea zigor hau ez-gizatiarra den bere naturagatik ere (Daunis, 2013).

Bestalde, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak honako hau eskatu zien kide diren herrialdeei: bizi arteko espetxe-zigorrak iraupen luzeko espetxe-zigorretarako aurreikusitako printzipioetara egokitzeko, berrikuspena zortzi eta hamalau urteko betearazpenaren artean egitea aginduz (González, 2013).

Honekin harremanetan, Zuzenbide konparatuak espetxe-zigorren gehieneko muga hamabost urtetan ezartzea gomendatzen du (Gálvez, 2018). Beraz, espainiar Zigor Kodean aurreikusita dagoen gutxieneko hogeita bost urteko muga luzeegia dela esan daiteke, bereziki kontuan hartzen badugu europar herrialdeek ezartzen duten epeen oso gainera dagoela (López, 2018).

Gainera, beste herrialdeetan ezartzen diren segurtasun epeak laburragoak izateaz gain, berrikuspena onartzeko kontuan hartzen diren irizpideak zehatzagoak dira, eta beraz, errazagoa da berrikuspena lortzea Espainiako arauketarekin alderatzen baditugu (Cancio Meliá, 2013). Gainera, beste herrialde horietako konstituzioetan 25.2 artikulua parekiderik ez dagoela azpimarratu dute egile batzuek (González, 2013).

3.2.4. Arauketari kritikak

Ezin daiteke esan bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria modu egokian araututa dagoenik (López, 2018), horregatik zigor honen arauketak kritika asko jasan ditu, hainbat arrazoi direla eta.

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren aurka erabiltzen diren argudio asko 2003. urteko erreformaren aurka erabilitakoen berdinak dira, bien arteko antzekotasun estruktural asko baitaude (López, 2018). Hala ere, 2015. urteko erreformak ez du 2003. urtekoa konpontzen, eta gainera, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria sartu zuen (López, 2018).

Zigor Kodea erreformatu zen bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria arautzeko, baina ez Espetxeen Lege Organiko Orokorra eta Espetxe Erreglamendua, beraz, hauetan espetxe-zigor orokorrerako arautzen den guztiak ez du balio bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriarako. Instrukzio berezi bat beharko litzateke honetarako, baina oraindik ez da eman, hainbat pertsona zigor horretara kondenatuak izan badira ere (López, 2018). Horrek azaltzen du Erreglamenduan eta Lege Organikoan jasota egon beharko luketen arau batzuk Zigor Kodean agertzea.

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren barneratzearekin eta honen arauketarekin ikusten da zigor arloan ematen diren aldaketa asko krimen arloko politikaren inguruan dagoen ezjakintasunak eraginak direla (González, 2013). Bereziki Zigor Kodean jasotzen den bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren arauketak akats eta hutsune asko eta garrantzitsuak dituelako; ez du inolako mekanismo zehatzik proposatzen zigorraren amaierarako edota eteterako eta pertsona bat bizi osoan zehar espetxeratua egotea onartzen du (López, 2018).

Bizi osorako zigor bat izan daitekeenez, betearazpen bereziki arretatsua izan beharko luke arautua, bete beharreko gutxieneko epeak bete ostean birgizarteratzea lortu daitekeela ziurtatzeko eta iraupen luzeko zigorren berezitasunera egokitutako arauketa ezarriz (López, 2018), baina ondoren azalduko den moduan, ez da hala izan.

3.2.4.1. Aplikazio-eremua

Doktrinaren zati batek zigorraren aplikazio-eremua kritikatu du, aukeraketaren atzean dagoen logika argi ez ikusteagatik (Gálvez, 2018). Gainera, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria lehen aldiz legearen aurreproiektuan agertu zenetik zigor honen aplikazio-eremua askotan aldatu da denbora labur batean, portaera ezberdinentzat ezarriz zigor hau aurreproiektu bakoitzean (Cancio Meliá, 2013).

Bestalde, kritika asko jaso ditu zigor gogor hau delitu bakarra burutu duen pertsonari ezartzeko aukera aurreikusteagatik, bereziki kontuan izaten badugu espainiar legediako zigor larriena modu lauso eta zehaztugabearen araututako delituei aplikagarri izango zaiela eta hauen aplikazio-eremua ez dagoela modu egokian mugatua (López,

2018). Jarraian delitu bakoitza sakonago aztertuko da dakartzaten arazoak azpimarratuz.

Doktrinaren zati batek kritikatu du erailketa kualifikatuen kasuan, hamasei urtetik beherako pertsonak eta pertsona bereziki zaurgarriak parekatu izana, hauen artean ezberdintasun handiak egon daitezkeelarik (15 urteko nerabe bat, oligofrenia sakona duen pertsona bat, edo ezintasun handi bat dela eta paralizatuta dagoen norbait), eta gainera, hamasei urteko muga inongo azalpenik eman gabe zehaztu da (López, 2018).

Orobat, kasu zehatz hauek maltzurkeriarekiko mugarekin arazoak ere planteatzen dituzte, zehazki babesgabetasunagatiko maltzurkeriarekin, izan ere, Auzitegi Gorenak automatikoki erailketa kontsideratzen du oso gazteak diren adintxikikoen, pertsona adinduen, gaixotasunen bat dutenen, eta halako babesgabetasun egoeran dauden pertsonen hilketa. Halako kasuen aurrean bi aukera leudeke; hilketa erailketa kontsideratzea babesgabetasunagatiko maltzurkeria ez den beste arrazoi batengatik eta ondoren bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria aplikatu, edo babesgabetasunagatiko maltzurkeria mantendu (jurisprudentziak dioen bezala), baina 140. artikulua aplikatu gabe, izan ere, erailketa kontsideratu ahal izateko erabili delako zaurgarritasun hori, eta bestela *non bis in idem* printzipioa urratuko litzateke (López, 2018).

Beste erailketa mota bati helduz, sexu-askatasunaren aurkako delitu bat gertatu ostean ematen diren erailketei dagokionean, lehenik eta behin ez da argi geratzen legegileak zergatik kontsideratzen duen larriagoa sexu-askatasunaren aurka burututako delitu baten ostean hiltzea biktima eta ez beste edozein delitu burutzen bada aurretik, adibidez, lapurretak edo bahiketak (Francisco eta Cabrera, 2015). Azken urteotan adintxikikoen sexu-ukigabetasunaren aurkako hainbat delitu eman dira, eta badirudi hau dela erabaki honen oinarrian dagoena, izan ere, sexu-askatasunaren aurkako delituak burutzen dituzten pertsonak birgizarteratzeko gaitasunik ez duten pertsona gisa ikusten ditu gizarteak, nahiz eta errealitatean mota honetako delituen berrerortze-tasa oso baxua dela dioten ikerketa asko dauden (López, 2018).

Halaber, sexu-askatasunaren aurkako delitu ezberdinak parekatzearen arrazoia (bortxaketa eta exhibizionismoa, adibidez) eta sexu-ukigabetasunaren inguruan ezer ez aipatzea (arauan barnebildua dagoela ulertzen dena) ez dira ulertzen, sexu-askatasunaren aurkako delitu guztiek ez dutelako larritasun bera (Pérez, 2018). Gainera, hilketa sexu-askatasunaren aurkako delitua burutu ostean egitea eskatzen denean, legezkotasun printzipioa dela eta ulertu behar da lehenengo sexu-askatasunaren aurkako delitua ematen dela-eta, ondoren hilketa; hori horrela izanda,

hilketa sexu-askatasunaren aurkako delitua gertatzen den bitartean emango balitz, supostu hori kanpo geratuko litzateke. Ez da argi geratzen zergatik ezartzen den zigor larriagoa ondoren gertatzen bada baina ez bitartean geratzen bada (López, 2018).

Azkenik, *non bis in idem* arazo batzuk ere planteatzen ditu. Alde batetik, erailketa hiperkualifikatu hau sexu-askatasunaren aurkako delituarekin delitu-pilaketa errealean dagoela interpretatzen bada, beharrezko arauak betetzen diren kasuetan, ezin izango da erailketa hiperkualifikatu gisa hartu. Bestalde, hilketa sexu-askatasunaren aurkako delitu bat eman dela ezkutatzeko burutu bada eta horegatik erailketa gisa hartzen bada, orduan ez litzateke erailketa hiperkualifikatua aplikatu beharko (López, 2018).

Ondorengo arazoa talde eta erakunde kriminalak parekatzen direnean ematen da, nahiz eta bestelako delituetan zigor ezberdina jasotzen duten (Pérez, 2018). Gainera, ez da zehazten hilketak zerikusia izan behar ote duen talde edo erakunde kriminalaren jardurekin, Zigor Kodeak ez duelako eskakizun hori egiten, baina erlaziorik ez izateak ez luke zentzurik izango (López, 2018).

Bi pertsona baino gehiago erail diren kasuei dagokionean ere arazoak ematen dira, izan ere doktrinaren zati batek sententzia berean hiru pertsonaren edo gehiagoren erailketa epaitzen diren kasuez ari dela interpretatzen du, baina beste zati baten aburuz arauak erreferentzia egiten dio erailketa batengatik epaitzen ari den momentuan pertsonak bizitzaren aurkako bi delitu edo gehiagorengatik aurrekari penalak izateari, berrerortzeagatik hiperkualifikazio bat izanez (Arroyo eta besteak, 2016). Ez da inon adierazten erailketa horiek lehendik epaituak egon behar diren edo ez, hori dela eta, araua bi kasuetan aplikagarri izan daitekeela dirudi. Bestalde, ez da argi geratzen “heriotza” terminoaren barruan bizitzaren aurkako delitu guztiak barnebildurik ote dauden; gomendagarriena interpretazio murriztaile bat egitea izango litzateke, kanpoan utziz zuhurtziagabekeriako hilketak eta norberari bere buruaz beste egiten laguntzea, dolozko giza-hilketa eta erailketak bakarrik hartuz kontutan, edo erailketak bakarrik. Azkenik, arauak ez du eskatzen hilketen artean denbora mugarik, ezta hauen arteko erlaziorik ere (López, 2018).

Terrorismo kasuetan ematen diren hilketen kasuan, arau honen aplikazio-eremuko hilketa gehienak dagoeneko zigor zitezkeen 140. artikuluko erailketa hiperkualifikatu bidez, talde edo erakunde kriminal bateko kide batek burututako hilketa bidez zehazki, baina terrorismo indibiduala kanpo geratzen zen, beraz, kasu hauentzako erabilgarria da arau hau. Gainera, 140. artikuluan lehenik eta behin erailketatzat kalifikatzea eskatzen da, baina kasu honetan dolozko hilketak ere zigor litezke. Hala ere, delitu zehatz hau bizi arteko espetxe-zigor berriusgarri bidez zigortzeko erabakia ez da

erraz azaltzen, izan ere, ez dirudi oso erabilgarria izango denik terrorismo yihadista berrirako (bizitza galtzeko prest daudelako) eta ETAren terrorismoaren beherakadaren ondorioz ez dirudi beharrezkoa denik kasu horientzako ere (López, 2018). Gainera, delitu mota honen berrerortze-tasa oso baxua da (Daunis, 2013), eta gaur egun terrorismo delituak araututa dauden modu zabal eta lausoa dela-eta, arau honen aplikazio-eremua zabalegia izan liteke (Landa, 2015).

Gainerako zigorrei dagokionean, Espainian ez dira maiztasun handiz eman diren delituak izan, eta ez dute arazo larririk eragiten, beraz jokaera hauek bizi arteko espetxe-zigor berriusgarri bidez zigortzea ez dago justifikatua (Gálvez, 2018). Badirudi lehenik eta behin zigor zehatz batzuk zigortzea erabaki zela, gizartean arbuiapen gehien sortzen duten delituak, eta gero jokaera gehiago sartu zituztela zigorra justifikatzeko (López, 2018).

3.2.4.2. Baldintzapeko askatasuna

Baldintzapeko askatasunaren arauketari dagokionean azpimarragarriak dira ondorengo lau ideiak hauek.

Lehenik eta behin, lehenago adierazi den moduan, deigarria da baldintzapeko askatasuna eman ahal izateko irizpide gisa aurrekari penalak, burututako delituaren inguruabarrak eta kaltetutako ondasun juridikoak hartzea, ondorio juridikoa ezartzeko eta graduaren sailkapena erabakitzeko kontuan izaten diren irizpideak izateaz gain, hogeita bost urteko betearazpenaren ostean ez dutelako informaziorik ematen birgizarteratze pronostikoa burutzeko (López, 2018).

Bigarrenik, berriuspenaren eskaera egin ostean erabakia hartzeko epe zehatz bat ezarri ez izana ere kritikatu da, erabaki horrek garrantzi handia duelako barneratuarentzat (Pinedo, 2017).

Hirugarrenik, hirurogeita hamar urtetik gorako pertsonen edo pairamen jasanezinak dituzten pertsonen kasuan, hirugarren graduan aipatzen den salbuespenari dagokionean, ez da ezer esaten baldintzapeko askatasunaren inguruan, baina gizatasun arrazoietan oinarritzen denez eta barneratuaren mesedetan denez, baldintzapeko askatasunari ere aplikagarri zaiola interpreta dezakegu (López, 2018).

Azkenik, baldintzapeko askatasuna aurreratzeko aukera ez litzateke egongo, horretarako zigorraren bi heren betetzea eskatzen delako, bizi arteko espetxe-zigor berriusgarrian egin ezin daitekeen kalkulua (López, 2018).

3.2.4.3. Hirugarren gradua

Hirugarren graduari dagokionean, kritikatu izan den puntua hurrengo hau izan da: hirugarren gradua eskuratu ahal izateko epe luzeagoa ezartzea delitu-pilaketa kasu ezberdinetan, hau da, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaz gain bestelako zigorrak ezartzen direnean eta hainbat bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarri ezartzen direnean (González, 2013).

Bestalde, hirugarren graduan sailkatua izateko epeak ezartzeko hogeitahamar eta berrogei urte arterainoko espetxe-zigorrak hartu dira erreferentzia gisa, baina ez irteera-baimenak eskatzeko. Hala egin izan balitz, irteera-baimenak zazpi urte eta sei hilabetetara, edo hamar urtetara terrorismo kasuetan, eskatu ahal izango lirateke (Gálvez, 2018).

3.2.4.4. Etetea baliogabetzea

Arauketan adierazi den moduan, zigorraren etetearen baliogabetzea eman ostean berau baliogabetzeko aukera dago. Bizi osorako iraupena izan dezakeen zigor baten kasuan, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria izan daitekena, arauketa zehatza izan beharko luke, eta berrikuspena baliogabetzeko supostuak zorrotzak izan beharko lukete (López, 2018).

Etetea baliogabetzearen eraginak ikusirik, delitu guztiek ez lituzkete ondorio berdinak izan beharko, zuhurtziagabekeriak delituek edota delitu ez hain larriek ez lituzketelako halako ondorioak izan beharko (González, 2013), hau da, ez lukete zigorraren betearazpenaren etetearen baliogabetzea ekarri beharko.

3.2.4.5. Zigorraren izaera autonomoa

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriak espetxe-zigorraren ezkutuko luzapen bat dirudi zigor autonomo bat baino gehiago (Daunis, 2013). Esan bezala, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren beheko graduko zigorra 20 eta 30 urte bitarteko espetxe-zigorra da, beraz, badirudi, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria hogeita hamar urtetik gorako zigor gisa konfiguratzeko dela (López, 2018).

Gainera, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria zigor autonomo gisa ulertuko bagenu, arauketan hutsune asko aurkituko genituzke, oraingoz konponbiderik ez dituztenak (López, 2018).

3.2.4.6. Zigorra moldatzea

Zigor mugagabe bat izanik, ezin daiteke beheko graduko zigorra aplikatu (Gálvez, 2018), baina legegileak, esan bezala, 20 eta 30 urte arteko espetxe-zigorra ezartzea agintzen du, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria espetxe-zigorraren luzapen bat bezala ulertuz eta ez zigor autonomo bezala, aurreko puntuan adierazitako moduan. Zigorra goiko graduan aplikatu behar den kasuetarako ez da ezer aurreikusten, ez lukeelako zentzurik izango zigor hau graduz igotzea. Baina posible izango balitz kasu berean zigorra graduz jaistea eta igotzea, graduz jaitsi ostean zer egin beharko litzatekeen ez dago aurreikusia. Espetxe-zigorrak ezin du hogeita hamar urteko epea gainditu legezko arrazoiak egonda ere, eta gradua igo ostean berriz ere bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria aplikatuko balitz, zigor mota hau hogeita hamar urteko espetxe-zigorraren goiko graduko zigorra dela esatea izango litzateke, legalki aurreikusia ez dagoena (López, 2018).

Hau horrela ulertuko balitz, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria legean aurreikusi gabeko supostuetan aplikatzeko aukera egongo litzateke hogeita hamar urteko espetxe-zigorra goiko graduan aplikatuz. Eta ez luke zentzurik izango bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria hogeita hamar urteko espetxe-zigorraren goiko gradua izatea bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren beheko gradua aplikatu ostean igo behar denean (López, 2018).

Gainera, zigor honek ez du goiko eta beheko erdia, beraz, ezin da momentuko erruduntasunera egokitu, betearazpenean egokitu beharko delarik (López, 2018; Pinedo, 2017).

3.2.4.7. Legean kokapen arazoak

Bizi arteko espetxe-zigorra Zigor Kodean arautzen da, baina arautzen duen materiaren zati batek Espetxeen Lege Organikoan geon beharko luke, espetxe-zigor arruntaren arauketarekin gertatzen den bezala (Gálvez, 2018). Hori dela-eta, bizi arteko espetxe-zigorra arautzen duten artikuluen batzuen kokapena kritikatu izan da, gainerako artikuluekiko koherentzia faltagatik.

Lehenik eta behin, delitu-pilaketa kasuetan, 76. artikuluan hainbat zigor ezartzen zaizkionean eta horietako bat bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria izatea aurreikusten da, baina horrek ez du justifikaziorik. Ez du zentzurik halako adierazpen bat egiteak, izan ere, bizi arteko espetxe-zigorra ezartzen zaionean ez direla

aplikagarri 76. artikuluko gehieneko mugak ulertzen da. Eta gainera, ez du zentzurik betearazpenaren gehieneko mugak ezartzen diren artikuluko batean bete beharreko gutxieneko epeen inguruan hitz egiteak (López, 2018).

Bigarrenik, Zigor Kodeko 92.3 artikulua erreferentzia egiten dio Kode bereko 80.1 artikuluari, azken artikuluko honetako bigarren paragrafoan jasotako arauak aplikagarri direla esanez. Ez du zentzurik erreferentzia horrek, esandako artikuluko horretan ez delako araurik jasotzen, erregimen orokorrean bi urtetik beherako zigorraren betearazpena eteteko kontuan hartu beharreko irizpideak baizik, 92.1.c) artikuluan jasotzen diren berdinak izanik (López, 2018).

3.2.4.8. Zigorra ordezkatea

Zigor mota honek aurkezten duen beste arazo bat kanpotarrekin zer egitea da, izan ere, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria zigor autonomoa bada, ezin daiteke ulertu "espetxe" terminoan barnebildurik dagoenik, beraz, gerta liteke iraupen luzeko espetxe-zigorrak nazio lurraldetik kanporatzearekin ordezkatea, baina ez bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria (López, 2018).

3.2.4.9. Egotzezinak eta erdi-egozgarriak

Arazoak planteatzen ditu egotzezinekin eta erdi-egozgarriekin. Erdi-egozgarrien kasuan, zigorra gradu bat edo bi jaisten da (Gálvez, 2018), beraz, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria espetxe-zigor mugatu bat bihurtzen da. Gainera, barneratzeko neurriak ezin duela zigorraren iraupena gaintitu zehazten da, baina zigor honen kasuan, bizi arteko barneratze berrikusgarri baten aurrean egongo ginateke, arauketak aukera hori ahalbidetzen baitu (López, 2018), baina halako neurri bat ez dago inon araututa eta beraz ez dago argi zer den.

Egotzezinen kasuan, berriz, aurrekoen kasuan bezala, barnerapenak ezin duela zigorraren gehieneko epea gaintitu zehazten da, baina zigor honen kasuan, esan bezala, ez dago gehieneko mugarik, beraz, mugarik gabeko barneratze baten aurrean egongo ginateke (López, 2018).

Bi kasuetan, barneratzeak ez du gehieneko mugarik zehaztuta, beraz, epailearen esku egongo litzateke, eta honek ez badu barneratze neurria berrikustea edo ordezkatea erabakitzen hogeita bost urteko betearazpena eman ostean, pertsona hori bizi osorako egon liteke barneratua (López, 2018).

Hala ere, arazo hau ez da plano teoriko batean geratzen, dagoeneko Espainian halako bi kasu eman baitira eta bakoitzean erantzun ezberdin bat eman da; Valentzian zentro psikiatriko batean bizi arteko barneratze berrikusgarria ezarri zen, auzitegiak *ex novo* sorturiko neurri bat dena, eta A Coruña, aldiz, hogeita bost urteko gehieneko muga ezarri zen Ministeritza Fiskalak eskatzen zuen muga zelako. Epaileek inongo irizpide zehatzik gabe erabakitzea barneratzea nola egin behar den ez da egokia, eta are gutxiago legezketasun printzipioa urratzen denean (López, 2018).

3.2.4.10. Zaintzapeko askatasuna

Zigorra bete ostean, Zigor Kodeko II. Liburuko I. Tituluko delituren bat burutu ostean zaintzapeko askatasuna ezartzeko aukera aurreikusten da, beharrezkoa izango dena terrorismo delituetan (Gálvez, 2018). Zaintzapeko askatasunaren helburua arriksutsuak kontsideratzen diren kondenatuen jarraipena egiten jarraitzea da hauek espetxe-zigorra betetzen dutenean, baina bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren kasuan arriskutsuak kontsideratzen badira ez zaio berrikuspena emango, beraz, aske geratzen denean zaintzapeko askatasuna ezartzeak ez luke zentzurik izango jada ez delako arriskutsua kontsideratua izango. Terrorismo kasuetan beharrezkoa denez zaintzapeko askatasuna ezartzea, arriskutsua ez den pertsona bati neurri hau ezarri beharko litzaioke, eta hamar urteko iraupena duen neurria izanik, pertsona berrogei urtez baino gehiago zigor kontrolaren menpe egongo litzateke (López, 2018).

3.2.4.11. Zigor erantsiak

Hamar urtetik gorako espetxe-zigorretan erabateko desgaiakuntza ezartzeko betebeharra ezartzen da legean zigorrak duen iraupenen berdinerako, beraz, aplikatuko balitz, bizitza osorako desgaiakuntza aplikatzea posible izango litzateke. Hala ere, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria zigor autonomo gisa ulertuko balitz zigor gehigarri hau ez litzeteki aplikagarria. Horrek eragingo luke zigor arinago batera zigortua dagoen pertsona bati, adibidez 13 urteko espetxe-zigorra ezarri zaion pertsona bati, desgaitasuna ezartzea, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria zigortutako pertsona bati ezarriko ez zaion bitartean. Tenerifen dagoeneko eman da bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria kondenatutako pertsona bati kondenak dirauen denborarako desgaitasuna ezarri zaion kasu bat (López, 2018).

Bestalde, adierazi den moduan, 48. artikuluko debeku eta betebeharrak ezartzeko aukera dago, delitu larria izanik, urtebete eta hamar urteko epean epaian ezarritako zigorra betetzen duten momentutik hasita. Kalkulu hori ezin dakioke aplikatu bizi arteko

espetxe-zigor berrikusgarrira kondenatutako norbaiti. Hala ere, zigor mota horretara zigortutako pertsonen debeku eta betebeharrak ez aplikatzeak ez luke zentzurik izango, kasu batzuetan, berauen aplikazioa ezinbestekoa delako. Baina onartezina liteke epe mugagabe baterako ezartzea. Logikoena izango litzateke kasuan betetzen duen gutxieneko espetxe-zigorraren epea bete ostean kontatzen hastea, hori baita ezagutzen den muga bakarra (López, 2018).

3.2.4.12. Eskuduntza aldaketa

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren kasuan hainbat eskuduntza aldaketa eman dira, hau da, espetxe-zigor arruntaren kasuan erabakia hartzea organo bati dagokio, baina zigor honetan erabaki hori hartzea beste organo bati dagokio. Alde batetik, hirugarren graduan sailkatzea edo ez erabakitzea espetxeko Zuzendaritzari dagokio, Tratamendu Batzordeak proposamena egin ostean, espetxe-zigor arruntetan, baina bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarrian ez dagokio espetxeko Zuzendaritzari, epaia emandako epaile edo magistratuei baizik (López, 2018).

Bestalde, berrikuspena onartzea edo ukatzeak espetxe-zaintzarako epailearen lana izan beharko luke, hau baita kondenatuaren egoera ondoen ezagutzen duena, gertuen dagoen epailea den heinean (López, 2018), baina ez da hala, epaia emandako epaile edo magistratuen esku geratzen den ardura izanik (Gálvez, 2018).

3.2.4.13. Autoritateekin kolaboratzea eskatzea

Terrorismo kasuetan autoritateekin kolaboratzearen betebeharra ezartzean hirugarren gradua lortu ahal izateko praktikan ia ezinezkoa egiten du hirugarren gradua eskuratu ahal izatea, izan ere hainbeste urte espetxean egon ondoren (gutxienez hogeita hiru urte) informazio gutxi eman ahal izango du gaur egun talde terroristak dituen helburu eta kideen inguruan (Pinedo, 2017; López, 2018). Horrek, alde batetik, akusazio faltsuak egotea eragin dezake, eta bestetik, praktikan oztopo bat da berrikuspena onartua izan dadin eta pertsonak askatasuna lortu ahal izateko, bereziki kontuan hartzen bada ez dela salbuespenik aurreikusten baldintza honentzat (González, 2013).

Bestalde, ez da onargarria Zuzenbide Estatu sozial eta demokratiko batean kondenatuaren arlo pertsonal eta mentalean esku-hartzea (López, 2018).

3.2.4.14. Behin behineko espetxealdia

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria espetxe-zigor gisa ulertzen bada, bi urteko muga gainditzen duenez, espetxe-zigor probisionala ezarri dakioke zigor hau aurreikusitako delituren batengatik akusatua dagoen norbaiti. Arazoa da espetxe probisionalean igarotako denbora espetxe-zigorren betearazpenetik kendu behar dela, baina bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren kasuan ez dagoenez gehienengo muga bat hirugarren gradua, baldintzapeko askatasuna eta irteerabaimenak lortzeko epeetatik kendu beharko litzatekeela denbora hori ulertu beharko da (López, 2018).

3.2.5. Hiritarren nahiaren muga

Jasotako beste kritika bat da zigor hau hiritarren eskaeren ondorioz barneratu dela. Hiritarrek egindako eskakizunak ezin dira zigor mugagabe bat ezartzeko oinarri izan; Zigor Kodeko arauak gizartean ematen diren aldaketetara moldatu behar dute, baina hauek ezin dute erabaki zein erataria aldatzen diren arau horiek (Gálvez, 2018).

Aurrerago adierazi den moduan, norbanakoari ezartze zaion zigorrak ezin du gizartearen helburu bat lortzeko tresna bat izan (Daunis, 2013), Espainiar Konstituzioko 10. artikuluan jasotzen den arau bat izanik. Beraz, ezin daiteke bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria, ez beste edozein zigor mota, onartu gizartearen eskaeretan bakarrik oinarrituta, garrantzitsuena barneratuen birgizarteratzea lortzea delako eta horrek izan beharko lukeelako esku hartze penalaren helburu nagusia.

3.2.6. Erabilpen sinbolikoa

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria Zigor Kodean barneratzeak zuzenbidearen erabilpen politiko bati erantzuten diola dirudi, Zuzenbide Sinbolikoa eta zigor-populismo bezala ezagutzen dena (Cancio Meliá, 2013), hau da, izaera sinbolikoa duen erreforma da (Juanatey Dorado, 2012).

Delitua eta zigorra hauteskundeetarako gai garrantzitsuak bihurtu dira; segurtasun faltaren sentazio irreal bat sortzen da eta gero Zigor Kodearen erreformen bidez gelditzen da. Zigor arloko erreformen bidez, Estatua legea errespetatzen duten hiritarren segurtasuna bermatzeko beharrezko neurri eraginkorrak hartzen ari delaren mezua zabaltzen da, hiritar horien onarpena jasotzen duten neurriak direnak (Daunis, 2013).

Hori dela eta, espetxe-zigorra gehiagotan aplikatzen da eta denbora gehiagorako. Espetxeak funtzionatzen duelaren ideia zabaldu da berriro ere, baina ez birgizarteratzeko tresna gisa, delitugileak inokuizatzeko mekanismo gisa baizik. Espetxearen helburua birgizarteratzea dela ulertzen bada, arrazoizkoa da kritikak jasotzea kondenatuek askatasunean zeudenean zituzten erlazioak hondatzen dituelako eta isolatu egiten duelako, baina kritika horiek ez dute zentzurik helburua inokuizatzea denean (González, 2013). Gainera, aipatu beharrekoa da, espetxe-zigorren erabilpen handiak ez duela delinkuentzia jaitsi eta ondorio negatiboak dakartzala kondenatuentzat, hauen familientzat eta gizarte osoarentzat (González, 2013).

Bestalde, ez da inongo justifikaziorik aurkezten terrorismo delituen kasuan epe ezberdinak (luzeagoak) ezartzeko (Daunis, 2013). Horregatik esan dezakegu epe ezberdinak ezartzea kasu horietarako “Etsaiaren Zigor Zuzenbidearen” erabileraren adierazle dela (López, 2018).

3.2.7. Askatasun-gabetze luzeen ondorioak osasunean

Denbora luzeko iraupena duten askatasun-gabetzeek, aipatu den moduan, eragin kaltegarriak eragiten dituzte barneratuarengan. Besteak beste, eragin psikologiko handia izan dezake, hainbat psikopatologia garatzea eragin dezakeelarik. Espetxeratze luzeen eragina gai honetan hainbatetan ikertu izan da, herrialde ezberdinetan eta urte askoan zehar. Besteak beste, Alemanian ikusi zen 6 aste eta 12 urte artean espetxeratuta egon ziren barneratuen artean ondorengo sintomak izan zirela ohikoenak espetxealdiaren ondoren (Bauer eta besteak, 1993): depresio egoera (%19), lo-nahasmendua (%17), hertsadura sentipena (%13), pentsamendu suizidak (%13), buruko mina (%9), nekea (%7), amets gaiztoak (%7), urduritasuna (%7) eta apetituaren galdera (%7). Sintoma hauez gain, hainbat sintoma fisiko ere adierazi zituzten: ahultasuna (%51), pisu galera (%42), pisu igoera (%16), ile galera (%7), tripako mina (%7), ikusmen arazoak (%6), eta bizkarreko mina (%6). Gainera, parte hartzaileen %33ari estres posttraumatikoagatiko nahasmendua diagnostikatu zitzaion beste gaixotasun batekin batera (depresio nagusia, distimia, orokortutako hersturaren nahasmendua eta panikoagatiko nahasmendua). Espetxean zenbat denbora igaroko zuten ez jakiteak sortzen zien ezjakintasunaren ondorioz, barneratuen artean etsaitasunezko eta konfiantza faltako klima bat sortu zela ere adierazi zuten. Ondorio sozialei dagokienean, aldiz, barneratuen %22ak arazoak zituen beste pertsona batekin harremantzeko garaian, eta %18ak fobia sozialen bat garatu zuten (Bauer eta besteak,

1993). Aipatu behar da ikerketa hau arrazoi zehatz batengatik espetxeratuak izan ziren pertsonekin egin zela, arrazoi politikoengatik espetxeratuak izan zirenak, zehazki. Horrek eragina izan zuen parte hartzaileen sintomengan, baina, beraien espetxeratzek Espainian aurreikusten diren hogeita bost urteak baino laburragoak izan zirenez, ikerketa honen emaitzak baliagarriak direla uste dut.

Espainian, 2016. urtean egindako ikerketa batean ikusi zen espetxeratuen artean eman ziren psikopatologia ohikoenak ondorengoak izan zirela (Zabala, 2016): depresio nagusi episodioak (%35,3), depresio nagusiaren nahastea (%28,3), estres postraumatikoagatiko nahastea (%22,8), fobia zehatza (%22,3), substantziek eragindako egoera animikoaren nahastea (%20,7), substantziek eragindako nahaste psikotikoa (%13), eta eskizofrenia (%11,4).

Hauetz gain aipagarriak dira nortasunaren nahasteak, parte hartzaileen %90,8ak aurkeztu baitzuen nahaste hauetako bat. Zehazki, ohikoenak hauek izan ziren: %58,7ak nortasunaren saiheste nahastea zuen, %45,1ak nahaste histrionikoa eta beste %45,1ak nartzisista, %42,9ak paranoidea eta %40,2ak nortasun limitea. Inolako nahaste psikologikorik pairatzen ez zuten parte hartzaileen ehunekoa %9,8 zen, nahaste bat zutenena %12,5 eta bi edo gehiago zituztenena %77,7. Nortasunaren nahastetan aldiz, bat bera ere ez zutenen ehunekoa %9,2 zen, bakarra zutenena %10,3 eta %80,4ak bi edo gehiago zituen. Inolako nahasmenik ez zuten barneratuen ehunekoa, hau da, nortasunaren nahasterik eta nahaste psikologikorik ez zutenena, %2,2 izan zen, lau barneraturi dagokion ehunekoa. Aldi berean, bi nahasmen motak aurkezten zituzten parte hartzaileen ehunekoa %83,2 izan zen (Zabala, 2016).

Espetxeratze luzeen ondorioak zeintzuk diren eta zein punturaino iristen diren ikusteko, ondorengo ikerketa ere oso erabilgarria da, Espainian 2017. urtean egin zena. Bertan parte hartzaileak bi taldetan banatu ziren, alde batetik, hamar urte baino gehiago espetxeratuta zeramaten pertsonak (espetxeratze luzea betetzen ari direnak), eta bestetik, media gisa 18 hilabetez espetxeratuta egon direnak (espetxeratze ertaina) (Barne Ministeritza, 2017). Iraupen luzeko zigorrak betetzen zituzten espetxeratuen artean ohikoenak nortasunaren nahasteak ziren, %37arekin, eta ondoren psikosia eta egoera animikoaren nahasteak (%17,3 eta %16, hurrenez hurren). Iraupen laburreko zigorrak betetzen ari zirenen artean, aldiz, ohikoenak egoera animikoaren nahasteak izan ziren (%29,2), nortasunaren nahasteen (%20,2) eta bulkaden kontrolaren nahastearen (%10,1) aurretik (Barne Ministeritza, 2017).

2011. urtean PERCA taldeak eginiko ikerketa ere aipagarria da, alor honetan egindako lehenengoetarikoa baita Espainian. Ikerketa honetan hiru espainiar espetxetan

barneratutako 707 presok parte hartu zuten. Parte hartzaileen %84,4ak aurkeztu zuen psikopatologiaren bat, substantzien erabilpenagatiko nahastea izan zen ohikoena (%76,2), hersturagatiko nahastea bigarrena (%45,3), nahaste afektiboak hirugarrenak (%41), eta nahaste psikotikoa laugarrena (%10,7). Substantzien erabilpenagatiko nahasteetan, ohikoenak alkoholak eta kokainak eragindakoak izan ziren. Nortasunaren nahastea parte hartzeileen %80ak aurkeztu zuen, ohikoenak B taldekoak izanik (%44) (Vicens eta besteak, 2011).

Honekin harremanetan, espetxean egotearen eta bazterketaren inguruko ikerketa baten emaitzak aipagarriak dira. Espainian 2002. urtean egin zen ikerketa horretan ikusi zen espetxera ez itzultzeko ondorengo beharrak zituztela preso egondako pertsonak (Cabrera, 2002): %87ak lan beharra, %72ak familiaren laguntza, %65ak drogak uztea, %63ak bikotekidea, %62ak lagunartea aldatzea, %59ak laguntza terapeutikoa, heziketarekin erlazionatutakoa edo lanarekin erlazionatutakoa, eta %49ak dirua izatea (Cabrera, 2002).

Espetxe-tratamenduaren garrantzia handia da, baina Espainian hainbat arazo daude tratamendu indibidualizatu eta zientifikoekin 2015. urteko ikerketa beten emaitzei erreparatzen badiegu, deigarria da zein gutxitan izan duten kontaktua barneratuek talde teknikoko kideekin (Cutiño, 2015), zehazki. Barneratu guztien %42,3ak adierazi zuen ez zela inoiz psikologoren batekin egon, %87,2ak ez zuela kontakturik izan pedagogoren batekin, %11,7ak ez zuela sekula hezitzailearen batekin hitz egin, %21,4ak gizarte langileren batekin eta %85,5ak kriminologoren batekin. Bestalde, %3,5ak aditzera eman zuen egunero ikusten zuela psikologoa, %2,7ak pedagogo, %16,4ak hezitzailea, %5,3ak gizarte hezitzailea, eta %1,7ak kriminologoa (Cutiño, 2015).

Beraz, ikerketa hauek emandako datuen argitara, esan dezakegu espetxean denbora asko pasatzeak eragin kaltegarri asko eragin ditzakeela barneratuen osasunean, bereziki osasun psikologikoan. Baina aukera hau ez da posibilitate huts bat bezala geratzen, izan ere, ikerketa gehienetan aurkitu da denbora luzez espetxean dauden pertsonen gehiengoak pairatzen duela psikopatologiaren bat, eta askotan, bat baino gehiago.

3.2.8. Bestelako arazoak

Espainian momentu honetan espetxeetan barneratu gehiegi daude, lehen adierazitako espetxe-zigorraren gehiegizko erabilpenari eta esku gogorreko krimen arloko politika bati erantzuten diona (Juanatey Dorado, 2012). Gainera, bizi arteko espetxe-zigor

berrikusgarriaren kasuan ez dira arriskugarritasuna murriztera bideratutako espetxe-tratamendu zehatzak aurreikusten eta espetxean dagoen gehiegizko biztanleria hori dela-eta zaila izango da espetxe-tratamendu indibidualizatu eta zientifiko bat jasotzea barneratu guztiek (López, 2018). Hori dela eta, barneratuen bizi baldintzak okertuz joan dira (Juanatey Dorado, 2013).

Espetxe-zigorak ez diren bestelako zigorrak hasiera batean espetxearen gehiegizko erabilpena mugatzeko barneratuak izan ziren Zigor Kodean, espetxe-zigorren ordezko gisa, baina gaur egun espetxe-zigorren alternatiba gisa aurreikusten dira gehienak, zigor mota horiek edo espetxe-zigorra ezartzeko aukera emanaz jokaera berdinen aurrean (Daunis, 2013). 2015eko erreforman ez da zigor alternatiboen alde egin, aurkakoa eman da, hain zuzen ere, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria barneratuz zigor sisteman.

Kezkagarritzat kontsideratzen dute zigor honen aurka daudenek legearen aurrekontuan bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria barneratzeak izango lituzkeen ondorio ekonomikoen inguruko txostenik txertatu ez izana eta ez adierazi izana nondik aterako diren beharrezkoak diren baliabide horiek (Juanatey Dorado, 2012).

Ahaztu ezin den datu bat da espetxe-zigorak baliabide pertsonal eta material asko eskatzen dituela (Juanatey Dorado, 2012). Horregatik, arrazionaltasun ekonomikoa dela-eta, gomendagarriena litzateke delinkuentzia ez hain larria zigortzeko garaian espetxe-zigorak ez diren bestelako zigorrak erabiltzea (Daunis, 2013).

4. Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria beste herrialde batzuetan

Aurrerago aipatu den moduan, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria Europa mailan presente dagoen zigor mota bat da, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak hainbatetan onartu izan duen zigorra. Hala ere, herrialde guztietan duen arauketa ez da berdina, ezta Espainian duenaren berdina ere, beraz, jarraian, Europako herrialde batzuetan zigor honen antzekoek duten arauketa eta hauen inguruan Giza Eskubideen Europar Auzitegiak esandakoa azalduko da.

Lan honetarako bereziki interesgarria da Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren jurisprudentzia aztertzea, horregatik aukeratu ditut herrialde hauek, Auzitegi honek Estatu horietako bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriari buruzko jurisprudentzia eman duelako. Hala ere, Finlandia barneratzea erabaki dut, nahiz eta honen inguruan

jurisprudenziaz ez dagoen, bertako sistema hain ezberdina izanik, hura aztertzea garrantzitsua dela uste dudalako.

4.1. Alemania

Alemanian egindako hainbat ikerketan ikusi da espetxe-biztanleriaren %55 eta %86aren artean tratamendu psikologikoa eskatzen zuen psikopatologiaren bat zuela (Dudeck eta besteak, 2011). Estres postraumatikoagatik nahastea %18,4ari diagnostikatu zioten (Dudeck eta besteak, 2011). Gainera, espetxe-biztanleriaren artean jokaera suizidak biztanleria arruntean baino hamar aldiz arruntago zirela ere ikusi zen; espetxe-biztanleriaren %17,2ak halako jokaerak azaleratu zituen (Dudeck eta besteak, 2011).

4.1.1. Aplikazio-eremua

Bizi arteko zigor askatasun-gabetzailea Alemaniako ordenamenduan aurreikusten den zigorrak larriena denez (Conde, 2018), delitu bereziki larriak kontsideratzen diren egitateetarako aurreikusten da, erailketa eta genozidio kasuetarako aurreikusten den zigor bakarra izanik (Sánchez, 2016). Zehazki, zigor absolututzat aurreikusten da, hau da, arintzeko aukerarik ematen ez duen zigor gisa, erailketentzat, genozidio kasu larrientzat, dolozko hilketa bereziki larrientzat, eta gidari baten aurkako indarkeriazko lapurretentzat (Sánchez, 2016). 2014. urtean 1.883 barneratu ari ziren zigor hau betetzen (Gruszczynska, 2015).

Beste kasu batzuetan bizi arteko zigor askatasun-gabetzailea edo hamar urtetik gorako zigor askatasun-gabetzailea ezartzeko aukera aurreikusten da, eta beste kasu batzuetan bost urtetik beherako zigor askatasun-gabetzailea izango da bizi arteko zigorraren alternatiba gisa aurreikusten dena (Conde, 2018).

Bizi arteko zigorra dakarren edozein delitu burutzeko indukzioa, saiakera gradua edo egozgarritasuna murriztuko kausak hiru eta hamabost urte arteko espetxe-zigorrarekin zigortuko dira (Sánchez, 2016).

Bestalde, "Damutuentzat erregimena" deritzona aurreikusten da Alemanian. Hori dela eta zigorra modu nabarian jaitsi dakieke damutzen diren kondenatuei; hala ere, genozidio kasuetan erregimen berezi hau ez da aplikagarri izango (Sánchez, 2016).

Adierazi behar da erailketaren definizioa Espainian baino zabalagoa dela Alemanian, bertako arauketak erailketa hilketatik bereizteko inguruabar gehiago aurreikusten baititu, horien artean, hiltzeko atsegintasuna edota krudeltasuna (Sánchez, 2016).

Alemanian zigor honen inguruan arazo bat dagoela nabaritu dute, erailketa kasuetan epaileek ez dutela aldaketarik edo ñabardurarik egiteko aukerarik (Conde, 2018), Espainian ematen den arazo berbera. Arazo honen aurrean, Alemaniako epaile batzuk erailketa emateko ezaugarriak falta direla epaitzen dute, erailketaren ordezkari gisa kalifikatuz, zigor arinagoa ezarri ahal izateko (Sánchez, 2016).

Bizi arteko zigor askatasun-gabetzailea ezartzea bateragarria da psikiatriko batean edo desintoxikazio zentro batean barneratzearekin alemaniar legedian (Sánchez, 2016).

4.1.2. Berrikuspena

Berrikuspenari dagokionean, Alemaniako arauketa Espainiakoa baino argiagoa eta betekizun gutxiagokoa da. Lehenik eta behin, herrialde honetan hamabost urtetara egiten da berrikuspena (Conde, 2018), hemezortzi urteraino igotzen dena kasu larrietan, eta hogeita seira terrorismo kasuetan (Jensen, Browning eta Waid, 2010). Hala ere, aipatu beharra dago, praktikan, kondenatuak oso kasu gutxitan egote direla hogeitaz biko baino gehiagoz barneratuta (Sánchez, 2016). Bigarrenik, hainbat zigor ezartzen diren kasuetan, bizi arteko zigor askatasun-gabetzailea ezartzen da zigor orokor gisa eta gainerakoak zigor osagarri gisa ezartzen dira (Sánchez, 2016). Hirugarrenik, baldintzapeko askatasuna onartuko da kondenatuaren erantzukizun larriak ez badu aurkakoa gomendatzen eta birgizarteratzearen aldeko pronostikoa badute (Conde, 2018). Laugarrenik, baldintzapeko askatasunak bi eta bost urte arteko iraupena izango du (Sánchez, 2016).

Baldintzapeko askatasuna eman aurretik gizartearen segurtasuna eta aurrezaintzarekin erlazionatutako alderdiak ere kontuan izan behar dira (Sánchez, 2016). Hori dela-eta, bizi osorako zigor askatasun-gabetzailearen betearazpena bertan behera utzi ahal izateko, ezinbesteko da auzitegiak aldeztu aurretik aditu bati barneratuaren inguruko txosten bat eskatzea, arriskugarritasunik ez dagoela ziurta dezan (Sánchez, 2016). Honez gain, auzitegiak psikiatra bati ere txosten bat eska diezaioke, delitua burutu zuenean barneratua fisikoki osasuntsu zegoela eta zigorrak zirauen bitartean anomalia psikikorik izatearen zantzurik azalarazi ez zuela adieraz dezan (Sánchez, 2016).

Bestalde, auzitegiak barneratuak biktimari sortutako kalteak konpontzeko betebeharra ezartzeko aukera du, edo, hala dagokionean, erakunde publiko bati burututako delituaren araberako diru kopurua ordaintzekoa (Sánchez, 2016).

Iraupen luzeko zigor askatasun-gabetzaileak barneratua askatasunera itzultzera bideratu behar dira kasu guztietan, hala adierazten baitu legediak. Horregatik askatasun gabetzearen ondorioak ahalik eta gehien gutxitzen saiatu behar da espetxea (Sánchez, 2016). Hala ere, birgizarteratzearen ideia honek baldintzapeko askatasuna lortzeko ezartzen den erantzukizunaren larritasunaren baldintzarekin talka egiten du kasu batzuetan (Sánchez, 2016). Talka honen aurrean hainbat egilek adierazi dute baldintza hori apelatzeko modukoa denez berrikuspenarekiko independentetzat hartzen dela; izan ere, epaia eman zuen epaileak erantzukizunaren larritasuna onartzen badu ere, horrek ez du esan nahi zigorrak automatikoki hamabost urteak gaindituko dituenik (Sánchez, 2016). Gainera, erantzukizunaren larritasuna pisuzko arrazoiak daudenean bakarrik aztertzen da, adibidez, helburuen izaera arbuigarria denean edo biktima bat baino gehiago dagoenean (Sánchez, 2016).

Baldintzapeko askatasunak dirauen bitartean kondenatuak laguntzaile bat izango du, berrerortzea ekiditeko helburuarekin (Sánchez, 2016). Hala ere, legediak berrikuspena kentzeko aukera aurreikusten du baldin eta kondenatuak, baldintzapeko askatasunak dirauen bitartean, doloz sei hilabetetik gorako zigor askatasun-gabetzaile bat merezi duen delitu bat burutzen badu (Sánchez, 2016).

Hala ere, alemaniar sistemak baditu Espainiakoarekin hainbat berdintasun, besteak beste: barneratuari berrikuspena ukatzen zaion kasuetan berriro ere berrikuspena eskatzeko epe bat ezar diezaioke auzitegiak (kasu honetan, bi urtekoa); birgizarteratzearen aldeko pronostikoa ezinbesteko elementua da baldintzapeko askatasuna lortu ahal izateko; birgizarteratzearen aldeko edo aurkako pronostikoa egiteko jarraitzen diren irizpideak berdintsuak edo berdinak dira (besteak beste, barneratuaren izaera eta burututako delituaren inguruabarrak), baita irteera-baimenen arauketa ere; eta zigorra eten ostean hainbat betebeharrak ezartzeko aukera ere aurreikusten da Alemanian (Sánchez, 2016).

4.1.3. Zigorraren konstituzionaltasuna

Aipagarria da alemaniar legedian ez dagoela birgizarteratzea jasotzen duen artikulurik (Sánchez, 2016), Espainian ez bezala, non Konstituzioko 25.2. artikulua dagoen. Hala ere, gizatasun printzipioa errespetatu behar da, eta ondorioz, Estatuak barneratuen

gaineko betebeharrak bat du, hauen bizi-baldintzak giza-duintasunarekin bateragarriak izan daitezela ziurtatu behar baitu (Sánchez, 2016).

Alemanian zigorrak guztiek burututako delituaren larritasunera eta delitugilearen erantzukizunera egokituta egon behar dute (Sánchez, 2016).

Zigor hau alemaniar Konstituzioarekin bateragarria dela adierazi du Alemaniak, izan ere, inguruabar larriak ematen diren delituetan bakarrik aplikatzen da; erantzukizun baxuko hiltzaile bati aplikatuko balitz, orduan izango litzateke konstituzioaren aurkakoa (Sánchez, 2016).

4.1.4. Giza Eskubideen Europar Auzitegia

Zigor honen arauetatik gain, aipatu beharra dago Giza Eskubideen Europar Auzitegiak zigorrak honen inguruan hartu izan dituen erabaki batzuk.

Lehenik eta behin, Rolf Friedrich Meixner jaunaren kasua¹ dugu, zeina 1986. urtean sexu-eraso eta bortxaketatik kondenatua izan zen, eta hauengatik ezarritako zigorraren baldintzapeko askatasunean zegoen bitartean, erailketa hirukoitza burutu zuen, bi lapurreta astundu eta faltsutzea. Adu baten iritziz, gizon honek gogorkeriarako joera zuen, oso antisoziala zen eta joera sadikoak zituen. Barneratuak espetxeari irteteko baimena eskatu zion bere abokatuarekin elkartzeko, baina berrerortzeko arrisku handian oinarrituta (izaera disozial eta nartzisista diagnostikatuak zituen eta espetxe-tratamenduren bat jasotzea ukatu zuen) baimena ukatu zitzaion, gainera, abokatu bera ikustera espetxera joan zitekeela ere argudiatu zuten. Bestalde, berrikuspena ere ukatu zitzaion arrazoi berean oinarrituta, eta bere erantzukizunaren larritasuna zela-eta, hogeita bost urte arteraino luzatzea erabaki zen. Egoeraren aurrean, barneratuak gaineko organoaren aurrean helegitea tarteratu zuen, baina honek ere berrikuspena ukatu zion, eta gauza bera egin zuen Konstituzio Auzitegi Federalak bere aurrean helegitea tarteratu zuenean.

Helegite-bide nazionalak agortu ostean, Meixner jaunak Europako Auzitegiara jo zuen. Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 2 eta 3. artikulua urratu zirela adierazi zuen, hamabost urteko espetxe-zigorra bete ostean ez baitzieten berrikuspena onartu. Bestetik, hitzarmen bereko 5. artikulua urraketa eman zela ere argudiatu zuen, barneraketa legez-kanpoko izan zelako, ez baitzuen jaso espetxe-tratamendurik, ezta gizarte-birgaikuntzarik ere. Gainera espetxeratzearen zati handi batean isolaturik egon

¹ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (5. sekzioa). Rolf Friedrich Meixner Alemaniaren aurka. 2009ko azaroaren 3ko sententzia.

izanaz ere kexatu zen. Hitzarmeneko 6. artikulua ere urratu zela defendatu zuen, izan ere, bere izaeraren analisia berrikuspenera ukatu baino urte batzuk lehenago egin zen. Azkenik, 13. artikulua urraketa eman zela ere adierazi zuen, dokumentu batzuk kopia ez baitzioten utzi.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak ondorengo esan zuen artikuluen ustezko urraketa hauen inguruan: aipatutako Hitzarmeneko 2. eta 3. artikulua ez zirela urratzen adierazi zuen, izan ere, legedia nazionalak zigorra eteteko aukera aurreikusten badu 3. artikulua errespetatzen dela ulertuko da. Auzitegiak onartzen du hogeita bost urteko askatasun-gabetzea luzea dela eta herstura eta ziurgabetasuna eragin dezakeela, hala ere, barneratuak oraindik bazuen aske geratzeko esperantza, beraz, zigorrak ez zituela 2. eta 3. artikulua urratzen adierazi zuen. Gainerako artikuluei dagokienez, ez zela inolako urraketarik gertatu adierazten zuen, eta ondorioz, tarteratutako helegitea ez onartzea erabaki zuen.

Bigarrenik, Dieter Streicher jaunaren kasua² dugu, lehenengoaren antzekoa dena. Gizon hau hilketaren burutu batengatik eta saiakera graduaren geratutako beste batengatik bizi osorako bi zigor askatasun-gabetzailearekin zigortua izan zen, delitu bakoitzarengatik bat. Bi kasuetan doloz, modu arriskutsuan eta biktimak objektu gisa tratatuz jokatu zuela ezarri zuten. Emozionalki hotza, gehiegizko erreakzioak izateko joera eta izaera antisozial eta psikopatikoa zituela zioen adituen txostenak.

Alemaniar Auzitegiak berrikuspenera ukatu zion bere erantzukizunaren larritasun berezian eta bere izaeran oinarrituta, hogeita sei urte arteraino igoz bere espetxealdia. Gainera, delitu horiek bortxaketa saiakera batengatik betetzen ari zen kondenaren baldintzapeko askatasunak zirauen bitartean burutu zituen. Espetxeratu egon zen denboran zehar hainbat diziplina neurri jaso zituen bere jarreragatik, eta ez zuela inolako harremanik egin ere adierazi zen. Hainbat helegite tarteratu zituen organo ezberdinen aurrean, baina denek helegitea ukatu zioten, espetxean izandako jarreragatik eta egindako delituak ez onartzeagatik arriskutsu gisa kontsideratzeagatik.

Helegite-bide nazionalak agortu ostean, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak jo zuen Streicher jaunak. Helegitean Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko ondorengo artikuluen urraketa eman zela argudiatu zuen: 2. eta 3. artikulua, hamabost urteko espetxe-zigorra bete ostean berrikuspenera ukatu izanagatik eta, gutxienez, hogeita sei urteko zigorra betearazteagatik; eta 7. artikulua, bere erantzukizunaren inguruan erabakia hartzerakoan modu inkoherente batean egiteagatik.

² Giza Eskubideen Europako Auzitegia (5. sekzioa). Dieter Streicher Alemaniaren aurka. 2009ko otsailaren 10eko sententzia.

Auzitegi honen arabera, berrikuspena ukatzeko arrazoietakoz batzuk bere izaera eta espetxeko jokaera izan ziren, eta horiek arrazoi zilegiak dira. Bestalde, hogeita sei urteko askatasun-gabetzea oso luzea dela onartzen du, eta herstura eta ziurgabetasuna sor ditzakeela, baina Alemaniako sistemak askatasuna lortzeko aukera erreal bat aurreikusten duenez, Hitzarmeneko 2. eta 3. artikulua errespetatzen zirela kontsideratu zuen.

Bestalde, bere erantzukizunaren inguruko erabakia modu inkoherentean egin zela ziurtatzen duenean Hitzarmeneko 5. artikuluari erreferentzia egin behar zaiola adierazi zuen Auzitegiak, arbitrariotasuna debekatzen duen artikulua baita. Honen inguruan adierazi zuen artikulua honek arauak nazionalari egiten diola erreferentzia, hartu den erabakia nazioan dagoen legediarekin bat datorrela eta arau horien kalitatea altua dela ziurtatuz. Kasu honetan Alemaniako auzitegiak honako argudio hauetan oinarritu zuen bere erabakia: barneratuaren jokaeran eta delitua baldintzapeko askatasunean zegoenean gauzatu izanean. Arrazoi horiei erreparatu, pertsona hori aske uztea gizartearentzat arriskutsua litzatekeela ondorioztatu zuten, beraz, gomendagarriena barneratzea luzatzea zela adierazi zuen. Erabaki hori alemaniar legediarekin bateragarria denez, Auzitegiak ez zuen 5. artikulua urraketarik zegoela interpretatu.

Azkenik, 7. artikulua urraketari dagokionez, artikulua honek adierazten du legeak argia izan behar duela, norbanakoak hasieratik jakin dezan zein jokaera dauden baimenduta eta zeintzuk ez, eta baimendurik ez dagoen jokaeraren bat egiten badu zein izango den ezarriko zaion zigorra. Alemaniar legedian argi adierazten da berrikuspena barneratuaren jokaeraren mendekoa dela, eta berrikuspena ukatzeko aukera dagoela, beraz, hamabost urteren ostean askatasuna lortzea ez da zerbait automatikoa. Hori dela eta, Auzitegiak azken artikulua honen urraketarik ez zela ematen adierazi zuen, eta ondorioz, ez zuen helegite hau onartu.

4.2. Erresuma Batua

Erresuma Batuan zigor zehaztuak eta zehaztugabeak daude. Azken hauen kasuan, gutxieneko epe bat pasa beharko du barneratuak espetxean (tarifa deritzona) askatasuna lortu aurretik, baina askatasuna berreskuratzea ez da automatikoa izango, Baldintzapeko Askatasuneko Batzordeak arriskugarritasuna baxua dela ondorioztatu behar du lehenengo (Icuza, 2019). Erresuma Batuan bi espetxe-zigor zehaztugabe mota daude: derrigorrezko bizi arteko espetxe-zigorra eta arriskugarritasunean oinarritzen diren zigorrak (Onemli, 2014). 2015. urtean 8.468 pertsona ari ziren bizi arteko espetxe-zigor motaren bat betetzen Erresuma Batuan (Gruszczynska, 2015).

4.2.1. Aplikazio eremua

Lehenengo eraiketa kasuetarako aurreikusita dagoen zigor bakarra da, baina kondenatuaren adinak badu eragina. Hogeita bat urtetik gorako pertsonei bakarrik zaie aplikagarri zigor hau, hemezortzi eta hogeitaz bitartean dituztenek *custody for life* deritzen zigorra jasotzen dute (Icuza, 2019).

Erresuma Batuan eraiketa gisa ulertzen dena eta Espainian ulertzen dena ez da gauza bera; izan ere, Erresuma Batuan duen arauketan, eraiketa gisa kalifikatzen dira Espainian giza-hilketa edo giza-hilketa terrorista gisa kalifikatzen diren hainbat jokaera (Icuza, 2019).

Hala ere, aurreratu den moduan, badago arriskugarritasunean oinarritzen den zigorrik ere. Arriskutsuak kontsideratzen diren delitugileei, aurreikusten diren espetxe-zigor larrienen artean bat ezarri behar zaie: bizi arteko espetxe-zigor diskrezionala, bigarren delituagatik bizi arteko espetxe-zigorra, edo zigor hedatua (Icuza, 2019).

Delitugile arriskutsuak hala kontsideratuak izango dira delitu zehatz batzuk burutu baldin badituzte. 153 delitu dira horiek, delitu bortitzak eta sexualak barne, larritasun ezberdineko delituak barnebilduz (adibidez, bortxaketa eta exhibizionismoa) (Icuza, 2019). Hala ere, lehen biak ezartzeko beharrezkoa izango da burututako delitua larria izatea, hirugarrenean ez bezala (Icuza, 2019).

Bizi arteko espetxe-zigor diskrezionala ezartzeko lau baldintza bete behar dira: barneratua bizi arteko espetxe-zigorra aurreikusia duen delitu batengatik kondenatua izatea, zerrendatutako delituetako bat izatea, auzitegiak kontsideratzea delituaren larritasunak zigor hau ezartzea justifikatzen duela, eta auzitegiak delitugilea arriskutsutzat hartzea (Icuza, 2019). Azken bi irizpideen zehazgabetasuna dela-eta, auzitegiak erabaki ahal izango du zigor hau ezarri edo ez (betiere, beste bi irizpideak betetzen badira), horregatik izena du diskrezionala.

Bigarren delituagatik bizi arteko espetxe-zigorra delitu bortitz eta sexual bereziki larrietarako aurreikusten da, hamar urte edo gehiagoko espetxe-zigorra justifikatzeko bezain larria; eta delitu horien artean lehenik gutxienez hamar urteko zigorra ezarritako pertsonei zaie aplikagarri (Icuza, 2019). Hala ere, zigor hau ez da baldintzak betetzen diren kasu guztietan ezartzen, auzitegiak erabaki beharreko zerbait da, kasuaren inguruabarrak aztertu ostean zigor egokia ote den edo gehiegizkoa ote den ebatziz (Icuza, 2019). Beraz, delitu hau bi delitu larri (lehenengoagatik kondenatua izan ostean

bigarrena burutzen denean) burutu dituen pertsonak zigortzeko aurreikusia dago (Icuza, 2019).

Azkenik, zigor hedatuaren kasuan zaintzapeko askatasunaren luzapena luzatzen da (Icuza, 2019). Zaintzapeko askatasuna espetxe-zigorra bete ostean aplikatzen da, bizi arteko espetxe-zigorra ez dagoenean justifikatuta (Icuza, 2019). Beraz, ez da bizi arteko espetxe-zigor mota bat, eta ondorioz, ez da lan honen eremuan sartzen.

4.4.2. Berrikuspena

Erresuma Batuko legean, derrigorrezko bizi arteko espetxe-zigorraren kausan, berrikuspena egin ahal izateko epea zehazteko abiapuntu gisa bizi arterako barneratzea, hogeita hamar urtekoa, hamabost urtekoa eta hamabi urtekoa aurreikusten ditu (Onemli, 2014). Bizi arteko barneratzea delitu bereziki larriak burutu dituztenei (bi pertsona baino gehiagoren heriotza, planifikazioa egon bada, biktima bahitu bada edo motibazio sexual edo sadiko bat egon bada; biktima bakarra egonda ere, hau haur bat bada eta bahiketa egon bada edo motibazio sexual edo sadikoa egon bada; edo arrazoi politiko, ideologiko edo erlijiosoetan oinarritutako erailketa horregatik aurrekariak dituztenek burutzen badituzte) (Pettigrew, 2016) eta, aurreratu den moduan, hogeita bat urtetik gorako pertsonentzat aurreikusten da (Onemli, 2014).

Hogeita hamar urteko epea ondorengo kasuetan aplikatzen da: polizia edo espetxe-funtzionario baten erailketa burutzean, su-armak edo lehergaiak erabiltzen dituzten erailketetan, arrazoi ekonomikoengatik erailketetan, arrazoi sexual edo sadiko, erlijioso edo arrazazkoetan oinarritzen diren erailketetan (Icuza, 2019). Bizi osorako barneratzea dakarren delituen bat burutzen duten hogeita bat urtetik beherakoentzat ere hogeita hamar urteko epea aurreikusten da; eta hogeita hamar urteko epea aurreikusita duen delituen bat burutu dutenentzat, aldiz hamabost urteko abiapuntua aurreikusten da hogeita bat eta hemezortzi urte artean baditu; eta hamabi urtekoa hemezortzi urtetik beherakoentzat (Icuza, 2019).

Askatasuna lortu ahal izateko auzitegiak ondorengo inguruabarrak izan behar ditu kontuan: burututako delituaren edo delituen larritasuna, delitugilearen adina eta behin-behineko espetxealdian pasatako denbora. Ondorioz, hainbat faktore aztertu ostean ezartzen da gutxieneko epe bat (Icuza, 2019).

Beraz, aipatutako epe hauen artean kasura ondoen egokitzen den abiapuntua hauteman ostean, auzitegiak aringarri (adibidez, alkoholaren eraginpean egotea delitu burututakoan) eta astungarriak (adibidez, biktima bereziki zaurgarria izatea) aztertu

behar ditu, eta ondoren dagokion tarifa ezarriko du (Icuza, 2019). Tarifa honen media igotzen joan zen 2003 eta 2013 urteen artean (Silvestri, 2013); 2013. urtean tarifa honen media 21,1 urtekoa zen; 2003. urtean, berriz, 12,5 urtekoa (Icuza, 2019). Honekin harremanetan, geroz eta pertsona gehiago daude Erresuma Batuan bizi arteko espetxe-zigor modalitatearen batera zigortuta, eta geroz eta gutxiagotan onartzen da baldintzapeko askatasuna (Silvestri, 2013).

Zigor hau ezartzeko garaian ez da arriskugarritasuna kontuan hartzen; horregatik, hainbat kritika jaso ditu, erailketa kasuetarako aurreikusten baita, baina erailketa bat burutzen duten pertsona guztiek ez dute neurri berean arriskutsuak izan beharrik. Beraz, egile batzuen ustez, ez da beharrezkoa hain zigor gogor eta luzea ezartzea gizartea babesteko helburuarekin (Icuza, 2019).

Arriskugarritasunean oinarritzen diren bizi arteko espetxe-zigorren kasuan berrikuspena beste modu batera egiten da. Espetxe-zigor zehatz bat izango balitz bezala hartzen da ezarritako zigorra. Burututako delituaren edo delituen larritasuna eta egon litezken aringarri eta astungarriak kontuan izanda, bizi arteko espetxe-zigorren orde ezarriko litzaiokeen espetxe-zigor zehaztua kalkulatu da, eta denbora horren erdia hartuko da berrikuspena egiteko epe gisa (Icuza, 2019).

4.2.3. Giza eskubideen Europar Auzitegia

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak herrialde honetako zigor zehaztugabeen inguruan emandako adierazpenak aztertzerako orduan, ezinbestekoa da Vinter eta beste kasuaren³ inguruan hitz egitea (Landa, 2015), izan ere, epei honen ondorioz, zigor zehaztugabeen aplikazioa aldatu egin zen Erresuma Batuan.

2009. eta 2010. urteetan Douglas Gary Vinter, Jeremy Neville Bamber eta Peter Howard Moore jaunek helegite bana tarteratu zuten Erresuma Batuen aurka Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren aurrean, Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3. artikulua urraketa argudiatuz, besteak beste.

Vinter jauna bere emaztea hiltzeagatik kondenatua izan zen. Horren aurretik espetxean bi aldiz egon zen, sei hilabete borroka batengatik, eta hamar urte bere lankide baten hilketagatik. Derrigorrezko bizi arteko espetxe-zigorra ezarri zitzaion eta bizi osorako tarifa ezarri zioten. Horregatik tarteratu zuen helegitea ukatu zitzaion.

³ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (4. sekzioa). Douglas Gary Vinter eta besteak Erresuma Batuen aurka. 2013ko uztailaren 9ko sententzia.

Bamber jaunak bere gurasoak, arreba-ordea eta honen bi seme-alabak hil zituen, planifikatuz eta irabazi ekonomiko bat lortzeko helburuarekin. Gainera, krimenaren eszenatokia manipulatu zuen bere arreba-ordea izan zela eman zezan. Bizi arteko tarifa ezarri zitzaion. Honen aurrean helegitea tarteratu zuen Bamber jaunak, baina ez zioten onartu.

Moore jauna, aldiz, lau hilketengatik kondenatua izan zen, hauek gauzatzeko arrazoia kondenatuaren sexu-asetasuna izan zelarik. Beharrezko bizi arteko espetxe-zigorra ezarri zitzaion, bizi osoko tarifa ezarriz. Hau dela-eta, hainbat helegite tarteratu zituen organo ezberdinen aurrean, baina denak ukatu zizkioten.

Hiru gizonek adierazi zuten beraien espetxe-zigorak ez zirela bateragarriak Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3. artikuluekin, tortura eta gizagabeko tratuak debekatzen dituen, bizi osoan zehar espetxeratua egon zitezkeelako eta berrikuspena egiteko epe zehatzik ez zelako ezarri. Auzitegi honen iritziz bizi arteko espetxe-zigorra ez litzateke aipatutako artikuluekin bateragarria izango, batetik, arrazoi penal legitimorik ez balego espetxeratzea mantentzeko, eta, bestetik, zigorra murrizgaitza izango balitz *de facto* eta *de iure*. Hiru kasu hauen larritasunak bizi arteko espetxe-zigor bat justifikatzen zuela ulertzen zen, eta justifikaziorik ez zegoen momentuan aske geratzeko aukera balego, zigorra bateragarria izango zela 3. artikuluekin. Auzitegiak hiru zigor hauetan 3.artikuluen urraketa eman zela adierazi zuen, zigorra ez zelako murrizgarria *de iure* eta *de facto*, eta, beraz, presoari aske geratzeko aukera erreal eta egingarri bat ez zitzaien bermatu, berrikuspena egiterakoan ez baitzegoen argi zein irizpide izango zituzten kontuan.

Bestalde, Hitzarmeneko 4. eta 5. artikuluen urraketa eman zela ere argudiatzen zuten, izan ere, adierazten zuten Erresuma Batuko legedian ez zela berrikuspen mekanismo zehatz bat aurreikusten ezarri zitzaien zigor motarentzat. Auzitegiak honen inguruan adierazi zuen kexa hau ez dela bere jurisdikzio-eremuan sartzen, izan ere Vinter jaunak eta besteek ez zutelara arazo osoa aztertzeke eskaria egin ulertu zuen Auzitegiak, eskari partzial bat baizik, horregatik adierazi zuen kexa hau bere jurisdikzio-eremutik kanpo zegoela.

Azkenik, 41. artikulua aipatzen du Vinter jaunak, non ezartzen den Hitzarmeneko artikuluen baten urraketa eman dela adierazten badu Auzitegiak kaltetuari kalteordaina emateko eska dezakeela. Auzitegiak erabaki zuen Erresuma Batuak Vinter jaunari berrogei mila euro ordaindu beharko zizkiola hiru hilabetetan .

Kasu honez gain, Hutchinson jaunaren kasua⁴ ere aipagarria da. Gizon hau etxe batean sartu zen indarkeriaz eta bertan bizi zen gizona, bere emaztea eta hauen seme heldua hil zituen, ondoren familiaren hemezortzi urteko alaba hainbatetan bortxatu zuen. Bizi osorako espetxe-zigorra ezarri zitzaion, tarifa gisa bizi osorako zigorra ezarriz. Hutchinson jaunak helegitea tarteratu zuen, baina ukatu egin zitzaion.

Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3. artikulua eman zela argudiatu zuen. Erresuma Batuko auzitegien arabera, ezarritako zigorra artikulua honekin bateragarria zen presoak birgizarteratzearen aldeko aldaketa bat egiten bazuen askatasuna lortzeko aukera izango lukeelako, eta hasieratik ezagutzen zituelako berrikuspena egiteko kontuan izango ziren irizpideak (lehen azaldutako Vinter kasuaren ondoren irizpideak argitu baitziren). Hala ere, Hutchinson jaunaren ustez berrikuspena egiteko kontuan izango diren irizpideak ez ziren argiak eta ez zeritzoen egokia zenik halako erabaki bat politikarien esku uztea, epaileen esku utzi beharko litzatekeela argudiatzen zuen. Bestalde, berrikuspena egiteko epe zehatz bat ez izateak segurtasun juridiko falta eragiten ziola ere gehitzen zuen.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak, adierazi zuen ez dagokiola berari erabakitzea berrikuspena eman ala ez erabakitzea nori dagokion. Herrialde bakoitzak erabaki dezake botere judizialaren edo betearazlearen esku utziko duen erabakia, beraz, horren inguruan erabakitzeko eskuduntzarik ez zuela ondorioztatu zuen.

Bestalde, adierazi zuen pertsona bereziki arriskutsuak bizi osorako espetxeratzeak ez duela Hitzarmeneko 3. artikulua urratuko, baldin eta zigor hori murrizgarria bada *de iure* eta *de facto*. Irizpideen inguruan, Auzitegiak adierazi zuen ezarritako irizpideek ez dutela zertan oso zehatzak izan behar, hau da, presoak jakin baldin badezake zer egin behar duen askatasuna berreskuratzeko nahikoa izango da, nahiz eta ezarritako irizpideetan ez erabat zehaztu egin behar den hori. Kasu honetan, birgizarteratzearen aldeko aldaketa bat ematen badu, barneratuak askatasuna lortu ahal izango du, beraz, Hutchinson jaunak badaki zer egin behar duen, nahiz eta ez den zehatz mehatz azaltzen zer egin behar den birgizarteratzearen aldeko aldaketa emateko.

Berrikuspena egiteko gutxieneko epe bat ez egotearen inguruan, Erresuma Batuak adierazi zuen berrikuspena eska zezakeela barneratuak nahi zuenean, eta beraz, ez zuela gutxieneko denbora bat egon beharko espetxeratuta askatasuna berreskuratzeko aukera eduki ahal izateko. Giza Eskubideen Europar Auzitegia arrazoiketa honekin ados agertu zen, adieraziz kasu zehatzean ez zegoela inolako

⁴ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (4. sekzioa). Arthur Hutchinson Erresuma Batuen aurka. 2017ko urtarrilaren 17ko sententzia.

arrazoirik 3. artikuluaurren urraketarik eman zela deklaratzeko; hori dela-eta, helegitea ukatu zuen.

4.3. Hungaria

4.3.1. Espetxe-zigor zehaztugabeak

Hungarian, orain arte ikusitako herrialdeetan bezala, espetxe zigor zehaztugabea aurreikusten da, Hungariako Zigor Kodeko zigorrak larriena izanik (Köhalmi, 2006). Zehazki, hiru bizi arteko espetxe-zigor mota aurreikusten dira, denak hogeitertetik gorako delitugileentzat: baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera duen bizi arteko espetxe-zigorra, baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera ez duen bizi arteko espetxe-zigorra (auzitegiaren erabakian oinarritzen dena), eta baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera ez duen beharrezko bizi arteko espetxe-zigorra (delitu eta delitugile zehatz batzuentzat aurreikusten dena) (Lévay, 2016). Azken hau derrigorrez ezarri beharko du auzitegiak barneratuak adierazitako delitu zehatzetako bat burutzen badu, dolozko delitu bortitzen kasuetan, zehazki (Lévay, 2016). Hala ere, beste delituren bat burutzen duen pertsonari ere (bizi arteko espetxe-zigor bat dakarren delitu bat bada, betiere) baldintzapeko askatasunerako aukerarik gabeko espetxe-zigorra ezarri ahal izango dio. 2015. urtean bizi arteko espetxe-zigorren bat betetzen ari ziren 315 preso hungariar (Gruszczynska, 2015).

Edozein bizi arteko espetxe-zigor mota ezarri ahal izateko Hungarian, hogeita hamar delitu hauetako bat burutu behar da, zehazki, estatuaren aurkako lau delitu mota, bakearen aurkako bi, bost gerra-krimen, bederatzi krimen arrunt, eta hamar delitu militar; hala ere, gehienbat dolozko hilketak zigortzeko erabiltzen da (Köhalmi, 2006).

Zigor mota horiez gain ezin izango da inolako isunik ezarri (Köhalmi, 2006). Bizi arteko espetxe-zigor mota hau beti alternatiba moduan aurreikusten da, hamar eta hamabost edo bost eta hamabost urte arteko espetxe-zigorren alternatiba gisa, zehazki (Köhalmi, 2006).

4.3.2. Berrikuspena

Bizi arteko espetxe-zigorra ezartzen den kasuetan, arau orokor gisa, berrikuspena hogeitertetara egingo da (delitu pilaketan kasuan, hogeita hamar urtetara) (Köhalmi, 2006).

Aipatu behar da hungariar legedian aldaketa bat egon zela berrikuspenerako epeei dagokionez baldintzapeko askatasunerako aukerarik ez duen espetxe-zigorrekin

harremanetan. Aldaketaren aurretik, kasu zehatz batzuetan, auzitegiak baldintzapeko askatasuna eskatzeko aukera uka zizezaioken barneratuari, beraz, barneratu horrek askatasuna berreskuratzeko zuen aukera bakarra betearazpeneko errukia izango zen (Köhalmi, 2006). Baldintzapeko askatasuna eskuratu ahal izateko aukera kentzea kritikatu zuten hainbat egile Hungariarrek, askatasuna berreskuratzeko esperantza guztia ezabatzeniolako barneratuari (Köhalmi, 2006). 2014. urtean Giza Eskubideen Europar Auzitegiak Hungaria kondenatu zuen berrikuspena egiteko aukera errealik ez aurreikusteagatik (ondoren azalduko den Magyar jaunaren kasuan, zehazki), beraz, legedian aldaketa bat eman zen eta bizi arteko espetxe-zigor guztiak berrogei urteko betearazpenaren ondoren berrikusteko betebeharra ezarri zuen. Ondorioz, baldintzapeko askatasunerako aukerarik aurreikusten ez duten espetxe-zigorrek, izen berbera mantendu badute ere, berrogei urteko betearazpenaren ondoren berrikuspena egiteko aukera bermatzen dute (GEEAS, 2017ko martxoaren 6koa).

Baldintzapeko askatasuna lortzeko birgizarteratzearen aldeko pronostikoa eskatzen da Hungarian, hau da, epaileak edo auzitegiak uste izatea pertsona horri askatasuna ematean ez duela beste deliturik burutuko, eta beraz, ez dela arriskutsua ondorioztatzea (Nagy, 2016).

4.3.3. Giza eskubideen Europar Auzitegia

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak herrialde honetako bizi arteko espetxe-zigorren inguruan deklaratu duena aztertzeko, László Magyar jaunaren kasua⁵ garrantzitsua da. Kasu honetan, Magyar jauna zigortua izan zen hainbat deliturengatik, zehazki, hiru giza-hilketagatik, hemeretzi lapurreta, hemeretzi askatasunaren aurkako delitu, lau lesio larri, zazpi egoitza bortxaketa, eta hiru ebasketa edo ebasketa saiakera. Antza denez, Magyar jauna, beste pertsona batzuekin batera, pertsona adinduen etxeetara sartzen zen, adindu hauek lotu eta, jipoitu edo mehatxatu ostean, zutena lapurtzen zieten eta gero alde egiten zuten. Adindu batzuk zaurien ondorioz hil ziren. Hori dela-eta, Magyar jauna baldintzapeko askatasunik gabeko bizi arteko espetxe-zigorrera kondenatu zuten.

Magyar jaunak Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko hainbat urraketa argudiatu zituen Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren aurrean. Lehenik eta behin, hirugarren artikulua bortxatu zela adierazi zuen, izan ere, ezarritako espetxe-zigorra ez zen murrizgarria ez *de iure*, ez *de facto*. Betearazpenerako errukia egoteak ez zuela

⁵ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2. sekzioa). László Magyar Hungariaren aurka. 2014ko urriaren 13ko sententzia.

egoera aldatzen defendatu zuen Magyar jaunak, aurreikusezina baitzen hartuko zen erabakia, inolako arrazoiketaren mende ez dagoen heinean. Gainera, *de facto* elementuari dagokionean, berari ezarritako zigor berdina ezarritako inori ez zaiola halako errukiaren ondorioko barkamenik eman adierazi zuen.

Argudiaketa honen inguruan Hungariako gobernuak aurkakoa adierazi zuen. Aipatutako artikuluekin bateragarria izateko askatasuna lortzeko aukera bat egon behar da aurreikusia legedian, baina horrek ez du esan nahi aukera hori dela-eta beti lortuko dela askatasuna. Beraz, errukitasunean oinarritutako barkamena aurreikustearekin artikulua betekizunak asetzen direla defendatu zuen, barneratuak bazuelako barkamen hori eskatzeko aukera.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak adierazi zuen presidentearen barkamena ez dagoela inolako arau zehatzetara mugatuta eta ez dagoela inolako irizpiderik ezarrita, beraz, ezin daiteke justifikatu zergatik bati askatasuna itzultzen zaion eta beste bati ez. Hau da, baliteke zigorra jada ez egotea justifikatuta arrazoi penalengatik, baina, hala ere, presidenteak ez du barneratu horri barkamena emateko betebeharririk. Gainera, barneratuek ezin dezakete jakin zer egin behar duten askatasuna lortzeko, ez dagoelako inolako irizpiderik, beraz, 3. artikulua ematen zela adierazi zuen Auzitegiak.

Bigarrenik, Magyar jaunak Hitzarmen bereko 6. artikulua ere urratu zela adierazi zuen, zortzi urte iraun zituelako bere aurkako prozesuak, eta horrek artikulua horretan eskatzen den "arrazoizko denbora" neurritz gainditzen zuela argudiatu zuen. Auzitegiak adierazi zuen nahiz eta kasua puntu bateraino zaila izan, eman zen denbora gehiegizkoa zela, ondorioz, 6. artikulua urratuz.

Hirugarrenik, dokumentu bereko 41. Artikuluari egin zion erreferentzia Magyar jaunak. Artikulu honen arabera, Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko artikulua baten urraketa jasan duen pertsona batek dagokion kalte-ordaina jasotzeko eskubidea du. Auzitegiak kalte-ordaina ematea erabaki zuen, beraz, Hungariari hiru hilabeteko epea eman zion Magyar jaunari 6.150 euro ordaintzeko.

Magyar jaunaren antzeko kasua da Törköly jaunarena⁶, hain antzeko da non Magyar jaunaren kasuan erreferentzia zuzena egiten zitzaion bigarren honi. Tibor Törköly, berrerorlea zen, eta bizi osorako espetxe-zigorraz zigortua izan zen bere emaztea ankerkeriaz hiltzeagatik, bederatzi labankada emanez emakumea lotu eta jipoitu

⁶ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2. sekzioa). Tibor Törköly Hungariaren aurka. 2011ko apirilaren 5eko sententzia.

ostean. Baldintzapeko askatasuna eskatu ahal izateko berrogei urteko epea ezarri zitzaion.

Törköly jaunak Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3. eta 6. artikulua urratu zirela argudiatu zuen, batetik 75 urte bete arte ezin izango zuelako baldintzapeko askatasuna eskuratzeko eskaririk egin, eta bestetik, modu okerrean zigortua izan zelako.

Auzitegiak, aldiz, 6. artikulua urraketa ezin zitekeela argudiatu deklaratu zuen, helegitea tarteratu ahal izateko ezartzen den sei hilabeteko epea gainditu baitzuen (epai irmoa ematen den momentutik). 3. artikulua dagokionez, burututako delituaren larritasunak berrogei urteko segurtasun epea justifikatzen duela adierazi zuen, eta gainera askatasuna lehenago lortu zezakeela gobernuko presidentek barkamena ematen bazion. Beraz, zigorra *de iure* eta *de facto* murrizgarria zela ondorioztatu zuen, izan ere, aske geratzeko esperantza erreal bat badu, nahiz eta hori urruna den (berrogei urtekoa, zehazki). Hori dela-eta, ez zela artikulua honen urraketarik eman deklaratu zuen eta helegitea ukatu zuen.

Bi epai hauez gain, T.P. eta A.T. jaunen kasua⁷ ere interesgarria da. Lehen gizona erailketa bereziki ankerkeriagatik, su armen gehiegizko erabilpenarekin burutu zuena, baldintzapeko askatasuna lortzeko aukerarik gabeko bizi osorako espetxe-zigorrera kondenatu zuten. A.T. jauna, aldiz, bi erailketagatik eta su armen gehiegizko erabileragatik izan zen zigortua, eta honi ere baldintzapeko askatasunik gabeko bizi arteko espetxe-zigorra ezarri zitzaion.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren aurrean Hitzarmeneko 3. artikulua urraketa argudiatu zuten bi gizonak, zigorra *de facto* murrizezina kontsideratuz. Kontsiderazio hori egiten zuten presidentearen barkamena ez zutelako ikusten askatasuna lortzeko mekanismo erreal eta betegarri gisa, Magyar jaunak bere garaian argudiatu zuen bezala, erabaki erabat diskrezionala delako eta ez delako inolako justifikaziorik eskatzen askatasun eskaera onartzeko edo ukatzeko. Magyar jaunaren kasuari erreferentzia egiten diote, adieraziz Giza Eskubideen Europar Auzitegiak kasu horretan azpimarratu zituen arazo berdinak zeudela mekanismo berrian. Gainera, baldintzapeko askatasuna lortzeko eskaria egin ahal izateko berrogei urte itxaron behar zituztelaz ere kexatu ziren.

Gobernuaren iritziz, arauketa berriak askatasuna berreskuratzeko aukera ematen du *de iure* eta *de facto*, berrogei urteren buruan zigorra justifikatzen jarraitzeko arrazoi penalik ote dagoen berrikusiko baita eta barneratuak hasieratik baitaiki zer egin behar

⁷ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (4. sekzioa). T.P. eta A.T. Hungariaren aurka. 2016ko urriaren 4ko sententzia.

duen askatasuna berreskuratu ahal izateko. Berrogei urteko epea burututako delituaren larritasunarekiko proportzionala dela ere defendatu zuen gobernu hungariarrak. Gainera, presidentearen barkamena lortzeko aukera zutela gehitu zuen.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak adierazi zuen berrogei urteko epea oso luzea dela, hainbatetan gomendatu duen hogeita bost urteko epea baino askoz ere luzeagoa, eta beraz, ez dela onargarria. Gobernuko presidentearen barkamenaren inguruan, Magyar jaunaren kasua aztertu zenetik ez zela inongo aldaketarik eman deklaratu zuen, eta beraz, aukera hori ez zela nahikoa 3. artikulua urraketa baztertzeko. Hori dela-eta, berrogei urteko mugan oinarritua, aipatutako artikulua urraketa eman zela adierazi zuen, berrikuspena ez baita egingarria *de facto*.

Bestetik, Hitzarmen bereko 41. artikulua ere erreferentzia egin zioten, kalte-ordaina eskatuz emandako urraketa-egitekin. Auzitegiak Hungariari hiru hilabeteko epea ematen zion barneratu bakoitzari 1.500 euroko kalte-ordaina eman diezaien.

4.4. Frantzia

4.4.1. Bizi arteko espetxe-zigorren arauak

Frantzian ere espetxe-zigor zehaztuz gain, zehaztugabeak ezartzeko aukera dago. Herrialde honetan, espetxe-zigorren betearazpena bertan behera uzteko eta horren ordez bestelako neurriren bat ezarri ahal izateko (adibidez, baldintzapeko askatasuna), barneratuak 18 urteko espetxe-zigorra bete beharko du, eta berrerortze kasuetan 22 urtekoa (Crétenot eta Liaras, 2013), baina epe horiek luzatzeko edo murrizteko aukera izango du auzitegiak, barneratu bakoitzaren egoerara ondoen egokitzen den epea ezartzeko (Conde, 2018). Herrialde honetan 466 barneratu ari ziren zigor hau betetzen 2014. urtean (Gruszczynska, 2015).

Delitu zehatz batzuentzat bakarrik aurreikusten da bizi arteko espetxe-zigorra, bereziki larriak kontsideratzen direnentzat: gizahilketa, terrorismoa, gizateriaren aurkako delituak, tortura, espioitza, Estatuaren segurtasunaren aurkakoak, droga trafikarekin erlazionatuak, biktimaren heriotza eragiten duten bestelako delituak eta, kasuaren inguruabarren arabera, erailketa (Conde, 2018).

Frantzian, berrikuspena onartu ostean ondorengo prozedura jarraitzen da: urtebeterainoko ikuskatze epe bat egongo da lehenengo, ondoren bi urterainoko erdi-askatasuneko erregimena, eta azkenik, bost urterainoko zaintzapeko askatasuna (Conde, 2018). Hala ere, salbuespenak aurreikusten dira; gaixo larrien kasuan zigorraren betearazpena etetea bezala (Conde, 2018).

Halako espetxe-zigor luzeak bete behar dituzten pertsonentzat ez da espetxe-programa berezirik aurreikusten, eta, nahiz eta plangintzak indibidualizatua izan beharko lukeen, praktikan modu orokorrean egin ohi dira (Crétenot eta Liaras, 2013).

Aipagarria da barneratuak arazo psikologikoak baldin baditu, eta horiek beste barneratuekiko elkarbizitza arriskuan jartzen badute, bizi arteko espetxe-zigorra hogeita hamar urteko espetxe-zigor arrunterekin ordezkatu daitekeela (Conde, 2018).

Bestalde, delitu larriak burutu dituzten eta arriskutsu kontsideratzen diren pertsonentzat aukera berezi bat aurreikusten da: zentro sozio-mediko-legal batean, espetxean kokatua dagoena, barneratuak izan daitezke modu zehaztugabea (Crétenot eta Liaras, 2013).

4.4.2. Giza Eskubideen Europar Auzitegia

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak Frantzian zigor honen inguruan esandakoa aztertzeko Bodein jaunaren kasua⁸ dugu. Pierre Bodein jauna hiru erailketengatik izan zen zigortua bizi arteko espetxe-zigorrera, epaia doitzeko aukera ere ukatu zioten. Erail zituen pertsonetako bi hamabost urtetik beherakoak ziren, eta bi hauen aurkako bortxaketagatik ere izan zen zigortua.

Bodein jaunak argudiatu zuen zigor honek Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3. artikulua urratzen zuela, bere ustez, ez zelako epaia bere egoerara egokitu eta askatasuna berreskuratzeko geratzen zitzaion bide bakarra presidentearen barkamena zelako. Giza Eskubideen Europar Auzitegiak erabaki zuen ezarritako zigorra bateragarria zela aipatutako artikuluekin, Bodein jaunaren arriskugarritasunean oinarritzen baitzen epaia doitzeko aukera kentzea. Gainera, hogeitasei urteko barnerapenaren ostean berrikuspena eskatu ahal izango du, eta badaki zer egin behar duen askatasuna berreskuratzeko, beraz, askatasuna lortzeko aukera erreal eta ezagun bat bazuen.

Bestalde, Léger jaunaren kasua⁹ ere aztertzeko modukoa da. Lucien Léger jauna hamaika urteko mutiko baten bahiketa eta erailketagatik bizi arteko espetxe-zigorrera kondenatu zuten. Hamabost urteko betearazpenaren ondoren berrikuspena egiteko aukera izan zuen, baina askatasuna lortzeko egindako saiakera guztiak ukatu

⁸ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (3. sekzioa). Pierre Bodein Frantziaren aurka. 2014ko azaroaren 13ko sententzia.

⁹ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (4. sekzioa). Lucien Léger Frantziaren aurka. 2006ko apirilaren 11ko sententzia.

zitzaizkion. Gainera, hainbatetan presidentearen barkamena lortzen ere saiatu zen, baina hau ere ukatua izan zitzaion.

Léger jaunak Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren aurrean helegite bat tarteratu zuen, ezarri zitzaion zigorrak Hitzarmeneko 3. eta 5. artikulua urratzen zituela argudiatuz, bere barneratzea arbitrarioa bihurtu zela adieraziz (bereziki 2001. urtean egin zuen eskaera ukatu ostean, non adierazten zuen bere lagun bat prest zegoela berari lana emateko eta bere etxean hartzeko).

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak adierazi zuen Léger jauna espetxean mantentzea bere arriusgarritasunean justifikatuta zegoela, izan ere, adituen ustez, tratamendu psikiatrikoa jaso beharko luke baina Léger jaunak tratamendu hori ukatu zuen. Beraz, barneratuta jarraitzea justifikatuta zegoen eta ez zen arbitrarioki egindako erabaki bat, ondorioz, zigorra Hitzarmeneko 5. artikuluekin bateragarria zen. 3. artikuluari dagokionez, barneratuak hamabost urteren buruan, periodikoki askatasuna eskatzeko aukera izan zuen, nahiz eta ukatu egin zitzaizkion eskari guztiak. Beraz, aske geratzeko esperantza izan zezakeen eta ezarri zitzaion zigorra murrizgarria zen, nahiz eta ez zitzaion murriztu.

4.5. Italia

4.5.1. Espetxe-zigor zehaztugabeen arauketa

Italian ere badago espetxe-zigor zehaztugabea ezartzeko aukera. Espetxe-zigorra ordezkatzeko bi neurri daude: hogeit urteko betearazpenaren ostean erregimen irekian sailkatua izateko aukera; edo "*liberazione condizionale*" deritzona, hogeita sei urteko betearazpenaren ostean zigorraren betearazpena bertan behera uztea, hau da, baldintzapeko askatasuna ematea (Marietti, 2013).

20 urteren ostean erregimen irekian sailkatzen dituzten pertsonak heziketa eta lana bezalako jarduerak egiteko irtengo dira espetxetik, beraien birgizarteratzea lortu ahal izateko garrantzitsuak deritzeten jarduerak burutu ditzaten, hain zuzen ere. Dagokion organoak erabakiko du barneratu bakoitzari neurri hau ezarriko zaion edo ez, presoaren jarreraren oinarrituz (Gualazzi, Mancuso eta Mangiaracina, 2012).

Bizi arteko espetxe-zigorra Italian delitu larriak burutu dituzten pertsonentzat bakarrik aurreikusten da, aukera bakar gisa: hilketa eta erailketa astundu kasuak (ahaidetasun edo planifikazio bezalako astungarriak ematen direnean); "Estatuaren izaeraren aurkako delituak" deritzenak; eta osasun publikoaren aurkako delitu batzuk (Conde,

2018). Bizi arteko espetxe-zigorra betetzen ari ziren 1.611 barneratu 2015. urtean (Gruszczynska, 2015).

Zigor honetara kondenatuta dauden pertsonen kondena beraiantzat eksklusiboki den espetxeetan betetzen dute (Conde, 2018). Aipatu behar da delitu zehatz batzuegatik zigortuak izan diren pertsonen (adibidez, antolatutako delinkuentziarekin zerikusia dutenak) justiziarekin kolaboratzea eskatzen zaiela askatasuna berreskuratu ahal izateko baldintza gisa. Beraz, ez badute kolaboratzen, ez dutelako nahi edo ezin dutelako, informaziorik ez dutelako edo, pertsona horiek ez dute sekula askatasunik lortuko, eta ondorioz, bizi osorako egongo dira zigortuta, italiaraz “*ergastolo ostativo*” deritzona (Marietti, 2013).

Halako zigor luzea bete behar duten pertsonen espetxe-tratamenduari dagokionez, ez da tratamendu berezirik aurreikusten hauentzat, baina arreta berezia jartzen zaie, denbora bereziki luzea egongo direlako espetxeratuta (Marietti, 2013).

4.5.2. Giza Eskubideen Europar Auzitegia

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak Italiako arauketari buruz esandakoa aztertzeko Garagin jaunaren kasua¹⁰ aztertuko dugu. Gagarin jaunak bi bizi arteko espetxe-zigor jaso zituen bi italiar auzitegi ezberdinengandik, bata 28 urteko espetxe-zigorra ezarri zion eta besteak 30 urtekoa. 1999. urtean Bolognako fiskalak erabaki zuen hogeitahamar urteko espetxe-zigorra bete beharko zuela, baina 2006. urtean Erromako Apelazio Auzitegiak bizi arteko espetxe-zigorra betetzea egokiagoa zela deklaratu zuen eta zigorra aldatu zion. Hori dela-eta, Garagin jaunak helegitea tarteratu zuen, baina ukatu egin zioten.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren aurrean Hitzarmeneko 3, 5 eta 7. artikuluen urraketa eman zela argudiatu zuen. Auzitegiak adierazi zuen 3. artikuluen urraketarik ez zegoela, Italian zigor mota hori murrizgarria baita *de iure* eta *de facto*. 5. artikuluen urraketarik ere ez zela egon defendatu zuen, erabakia Italiako Zigor Kodean oinarritzen zelako, interpretazio egokia eta ez-arbitrariora izanik. Azkenik, 7. artikuluen urraketarik ere ez zegoela ondorioztatu zuen, ez baitzen legea atzeraeraginkortasunez aplikatu, aldiz, egindako akatsa konpondu zuten. Beraz, helegitea ukatu zitzaion.

¹⁰ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2. sekzioa). Garagin Italiaren aurka. 2008ko apirilaren 29ko sententzia.

Bestalde, Viola jaunaren kasua¹¹ ere aztertzeko modukoa da, zein lehena baino berriagoa den. Marcello Viola jaunari hamabost urteko espetxe-zigorra ezarri zitzaion mafiako kide izanda burututako delitu batzuegatik, baina ondoren hamabi urtera jaitsi zioten zigor hori. Hala ere, 1999. urtean bizi arteko espetxe-zigorra ezarri zitzaion, lehendik leporatutako zigorren gain giza-hilketa, bahiketa, biktimaren heriotza eragindako legez kontrako espetxeratzea eta legez kontrako su armak izategatik. 2008. urtean, bete beharreko espetxe-zigorra bizi artekoa izan behar zuela adierazi zuen Helegiteen Auzitegiak, bi urte eta bi hilabeteko eguneko isolamenduekin. Viola jaunak bi aldiz eskatu zuen espetxetik irteera, baina bi aldietan ukatu egin zioten eskaera, mafiarekiko erlazioa moztu zuelako zantzurik ez zegoelako eta ez zuelako justiziarekin kolaboratu.

Honen aurrean Viola jaunak Giza Eskubideen Europar Auzitegira jo zuen. Hitzarmeneko 3. artikularen urraketa ematen zela argudiatu zuen, bere zigorra ez baitzen murrizgarria. Auzitegiak Viola jaunak aske geratzeko zuen aukera bakarra aztertu zuen, justiziarekin kolaboratzea. Honen inguruan adierazi zuen kolaboratzea baldintza gisa ezartzean kolaborazio honen borondatezko izaera kolokan geratzen dela. Gainera, ez kolaboratzea askotan ez da erabaki libre bat izaten, beldurragatik erabaki baitaiteke ez hitz egitea, beraz, kolaborazio eza arrikusgarritasunarekin parekatzea ez dela egokia adierazi zuen. Gainera, Viola jaunak jokaera ona izan zuen espetxean, baina espetxe-onura guztiak ukatu zizkioten, kooperazio faltan oinarrituz. Bestalde, lankidetze eza dela-eta, ez da barneratuaren birgizarteratzearen aldeko prozesua kontuan izaten, eta gainera aske geratzeko aukera errealista guztiak ezabatzen dira, elkarlanean aritzen ez duen bitartean ezin izango duelako askatasuna berreskuratu. Hori dela-eta, Auzitegiak zigor hau ez dela Hitzarmeneko 3. artikularekin bateragarri adierazi zuen, aske geratzeko aukera errealistarik ez zegoelako eta ez zelako barneratuaren garapena kontuan izaten. Honez gain, Hitzarmeneko 41. artikuluari jarraiki, Italiak Viola jaunari 6.000 euroko kalte-ordaina eman behar ziola ere adierazi zuen.

4.6. Finlandia

4.6.1. Aplikazio-eremua

Finlandian ere espetxe-zigor zehaztugabea ezartzeko aukera dago. Zehazki, bizi arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio automatikoki hilketa bat burutzen duen pertsonari, planifikazioz eta modu berezi anker edo indarkeriazkoan burutzen badu, gizarteari

¹¹ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2. sekzioa). Marcello Viola Italiaren aurka. 2019ko ekainaren 13ko sententzia.

arrisku handia eraginez, edo ofizial publiko bat hiltzen badu gizarteko segurtasuna edo ordena mantentzen duen bitartean, edo akzio ofizial bidez burutzen badu; betiere hemezortzi urtetik gorakoa bada (Schartmueller, 2015). Astundutako hilketetan ere bizi arteko espetxe-zigorra izango da aplikagarri, baita genozidio kasuetan, gizateriaren aurkako delituetan, gerra-krimen kasuetan, astundutako traizio kasuetan, astundutako espioitza kasuetan, eta terrorista asmoekin burututako hilketetan (Schartmueller, 2015). 203 pertsona ari ziren zigor mota hau betetzen Finlandian 2015. urtean (Gruszczynska, 2015).

Hala ere, Finlandian hilketaren bat burutzen duten pertsonen gehiengoari espetxe-zigor zehaztua ezartzen zaio, eta ez bizi arteko espetxe-zigorra, nahiz eta zigor horretara zigortutakoen ehunekoak gora egin duen azken urteetan, baita berrikuspena egiteko espetxean egon beharreko denborak ere, 2013. urtean hamabost urtetan zegoelarik bataz bestekoa (Schartmueller, 2015).

4.6.2. Berrikuspena

Berrikuspena hamabi urtetara egiten da, hamar urtetaraino jaisten dena delitugilea hogeitabat urtetik beherako pertsona bada, eta berrikuspena eman edo ukatu erabakitzeko eskuduna Helsinkiko Helegiteen Auzitegia da (Schartmueller, 2015). Hala ere, berrikuspena lortzeko beste aukera bat aurreikusten da, 2006. urtearen aurretik arau orokorra zena, presidentearen barkamena (Schartmueller, 2015).

Berrikuspena barneratuaren eskariarekin hasiko da, salbuespenezko arrazoirik ez dagoen kasuetan, bestela Zigor Kriminalaren Agentziak aurkeztuko du eskaria barneratuaren ordeztuz (Schartmueller, 2015). Gainera, horien administrazioak kondenatu zehatz horri baldintzapeko askatasuna ematearen inguruan duen iritzia ere emango du, Finlandiako Zigor Kodeari jarraiki baldintzapeko askatasuna eman beharko litzaiokeen edo ez adieraziz (Schartmueller, 2015).

Auzitegiak, aldiz, espetxeko ospitale mentalak eginiko txostena kontuan izan beharko du. Txosten horretan psikiatra forentse batek barneratuak berriro gaixotzeko duen arriskua aztertuko du, etorkizunean beste delitu bortitz bat burutzeko duen arriskuari erreparatuz, hiru mailako eskala bati jarraiki (Schartmueller, 2015). Txosten horretaz gain, auzitegiak Zigor Kriminalaren Agentzietako bateko ebaluazio zentroko txosten bat ere jasoko du, barneratuaren kualifikazioaren inguruko informazioa eman dezaten (Schartmueller, 2015).

Berrikuspenaren inguruko erabakiak hiru epailek osatutako auzitegiak hartu beharko ditu, bizi osorako espetxe-zigorrek ezarritako barneratuen inguruan erabakiak hartu ohi dituzten epaileak, zehazki (Schartmueller, 2015). Erabaki hori hartzeko hogeita hamar eguneko epea izango dute, salbuespen gutxirekin (Schartmueller, 2015).

Auzitegiak ondorengo ezaugarriak izan behar ditu kontuan berrikuspena ematea edo ukatzea erabakitzeko garaian: zigor hori ezartzea justifikatzen ote duen burututako delituak edo delituek, eta kondenak zirauen bitartean burutu dituen guztiek, egon badira; banakako sententzian ezarritako planari jarraitu ote dion barneratuak eta espetxeko langileek bere jokabidearen inguruan egindako ebaluazioa; eta barneratuak droga menpekotasunaren aurkako edo baldintzapeko askatasuna lortzeko baldintza gisa joka dezakeen bestelako tratamenduetan parte hartu ote duen (Schartmueller, 2015).

Berrikuspena lortzeko, oro har, bi aldiz eskatu behar izaten dute barneratuek, hau da, lehengo eskaera ukatu egin ohi zaie (Schartmueller, 2015). Eskari hau egiten denetik erabakia hartzen den arte, oro har, urtebete pasatzen da, eta askotan barneratuek ez dakite zergatik ukatu ote zaien berrikuspen eskaria (Schartmueller, 2015).

Berrikuspena onartzen den kasuetan baldintzapeko askatasuna ezartzen da hiru urtez, non Zigor Kriminalaren Agentzia izango den gainbegiraketaren arduradun. Denbora horretan modu erregularrean elkartu beharko du barneratuak bere ikuskatzailearekin eta programa zehatz batzuetan parte hartzeko eska diezaiolke honek (Schartmueller, 2015). Hala ere, kanpotarrak diren barneratuei berrikuspena onartzen zaienean, nazio lurraldetik kanporatzen dira, eta ez zaie baldintzapeko askatasuna ezartzen, herritar finlandiarrei bezala (Schartmueller, 2015).

Berrikuspena ukatzen den kasuetan, barneratuak beste eskaera bat aurkeztu ahal izango du urtero (Schartmueller, 2015). Hala ere, erabakia aurkatzeko aukera dago goiko organoaren aurrean, hau da, Finlandiako Auzitegi Gorenaren aurrean (Schartmueller, 2015).

4.6.3. Zigorraren betearazpena

Pertsona bat espetxeratzean askatasuna izan beharko litzateke kentzen den eskubide bakarra, beraz, herrialde honetan garrantzi handia ematen zaio presoek trataerari, barneratuak askatasunean bizitzeko eta deliturik burutu gabeko bizitza bat aurrera eramatera bideratuz espetxe-tratamenduak (Schartmueller, 2015).

Hori dela-eta, denbora bereziki luzea pasako dutenez espetxeratuta, bizi arteko espetxe-zigorrera kondenatutako pertsonen hasierako ebaluazioa kontu handiz eta arreta bereziz egin ohi da, garrantzi handia ematen zaiolako espetxe egokienera bidaltzeari eta programa egokienak aurkitzeari (Schartmueller, 2015). Ebaluazio horretan oinarrituz, barneratu bakoitzari egokitutako birgizarteratze plan bat egiten da, norbanakoaren birgizarteratzea lortzera bideratuta (lana, heziketa, osasuna, eta behar duena erraztuz) (Schartmueller, 2015).

Gainera, laguntza psikologikoa jasotzea ere garrantzizkotzat dute; bi momentutan jasotzen dute barneratuek laguntza psikologikoa: espetxeratuak diren momentuan eta irtetear daudenean (Schartmueller, 2015).

Espetxe-zigor zehaztugabea hamabi urteko espetxe-zigor gisa hartzen da, hamar urtetara jaisten dena delitugileak hogeita bat urte baino gutxiago baditu, horregatik irteera-baimenak eskatu ahal izateko zortzi urte pasa behar ditu espetxean, hau da, zigorraren bi herena (Schartmueller, 2015). Baimen hauek ukatzen diren kasuetan, gainbegiratuta irteteko aukera eman beharko zaio, gutxienez urtean behin (Schartmueller, 2015). Hasieran hamabi orduz irten daitezke espetxetik, gainbegiratuta betiere, eta arazorik gabe igarotzen bada denbora hori, gainbegiraturik joan gabe irteteko aukera izango dute barneratuek. Irteteko data gerturatuz doanean denbora luzeagoz irteteko aukera izango dute (Schartmueller, 2015).

1992. eta 2012. urteen artean amaitu ziren bizi arteko espetxe-zigorrei erreparatuz gero, ikusten da amaitutako hirurogeita hamasei zigorren artean hamabi zigor amaitu zirela barneratuaren heriotzaren ondorioz, kasu guztien %16a baino gutxiago dena. Gainontzeko kasuetan zigorraren amaierari dagokionean, hirurogeita hamasei horien artean, hogeita hamazazpi presidentearen barkamen bidez amaitu ziren (azkena 2007an eman zen), %49a; hogeita sei, auzitegiaren erabaki bidez (2007. urteteik aurrera), %34a; eta geratzen den bakarra beste herrialde batera bidalia izan zen, %1a (Schartmueller, 2015). Denboraren banaketari dagokionez, bizi arteko espetxe-zigor kopuru handiena 2009an amaitu ziren, zortzi zigor, hain zuzen ere, eta denak auzitegiaren erabaki bidez amaitu ziren. Kopuru txikienak, aldiz, 1995 eta 1998. urteetan eman ziren, zigor bakarrarekin bakoitza, biak barneratuaren heriotzagatik (Schartmueller, 2015).

Aipatzekoak dira ere Finlandian egindako ikerketa baten emaitzak, zeinyzuen arabera herrialde horretan barneratuen %27,8ak estres postraumatikoagatiko nahastea zuten (Dudeck eta besteak, 2011). Europa mailan egindako ikerketa baten emaitzei erreparatuta, ikus dezakegu barneratuen artean jokaera suizida gehien dituen

herrialdea dela, %24,3arekin, eta norbere burua zauritzen duten barneratuen ia ehuneko altuena duen herrialde ere bada, %48,6arekin (Dudeck eta besteak, 2011). Honek harremana izan dezake barneratu askok beraien zigorrak isolaturik betetzearekin (Dudeck eta besteak, 2011).

Bestalde, Finlandiar Zigor Kodeak denbora luzerako barneratuta dauden pertsonen baldintzapeko askatasuna eman aurretik, gainbegiratutako proba-epeko askatasuna ezartzeko aukera aurreikusten du, sei hilabeteko iraupena izan dezakena (Schartmueller, 2015). Proba-epe honen helburua barneratu hauei laguntza handiagoa ematea eta ikuskaketa handiagoa eskaintzea da, hauen birgizarteratzea errazteko (Schartmueller, 2015). Sei hilabeteko gehieneko iraupenaren ostean, baldintzapeko askatasuna hasiko da eta ikuskaketa intermitenteagoa bihurtuko da (Schartmueller, 2015).

4.6.4. Giza Eskubideen Europar Auzitegia

Azkenik, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak zigor honen inguruan esandakoa aztertzeke ez dago kasu bat bera ere. Beraz, ondoriozta dezakegu zigor honen inguruan ez dela helegiterik tarteratu Europa mailan eta tarteratu diren helegite guztiak Finlandian bertan argitu direla, Europara jo beharrik gabe.

4.7. Zipre

Zipren bizi arteko espetxe-zigorra 12 urtetara berrikusten da (Antinucci, 2017), eta 23 barneratutako betetzen zuten bizi arteko espetxe-zigorra 2015. urtean (Gruszczynska, 2015).

Herrialde hau aipatzea beharrezkoa da Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren jurisprudentzian emandako epairik garrantzitsuenetako bat herrialde honen inguruan eman zelako iraupen bereziki luzeko espetxe-zigorrei dagokionez. Orain arte aipatu diren epai gehienetan egiten zaio erreferentzia epai horri, Kafkaris jaunaren kasuari¹², zehazki.

Panayiotis Agapiou Panayi, Kafkaris bezala ezaguna zena, planifikatutako hiru erailketagatik zigortua izan zen (auto batean lehergai bat jarri zuen bertan zeunden bidaiariak hilez, gizon bat eta bere hamaika eta hamahiru urteko semeak). Hiru bizi arteko espetxe-zigor ezarri zitzaizkion. Hala ere, bere jokaera ona zela eta, 20 urtetan

¹² Giza Eskubideen Europako Auzitegia (5. sekzioa). Panayiotis Agapiou Panayi Kafkaris Zipreren aurka. 2008ko otsailaren 12ko sententzia.

askatasuna lortuko zuela adierazi zitzaion, baina 1996. urtean jokaera onagatik zigorra laburtzeko aukera ezabatu egin zen bizi arteko espetxe-zigorra ezarri zitzaizen pertsonentzat, beraz, Kafkaris jauna ez zen aske geratu jakinarazi zioten data horretan. Zegokion helegitea tarteratu zuen, baina ukatu egin zioten.

Kafkaris jaunak Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 3, 5 eta 7. artikuluen urraketa argudiatu zuen, bere iritziz ezarri zitzaion zigorra ez zelako murrizgarria, ezarritako data baino denbora gehiagoz espetxeratua mantentzeko legezko arrazoirik ez zegoelako, bere etorkizunaren inguruan ezjakintasuna eta herstura eragiten ziolako, eta hasiera batean ezarri zitzaion hogeituro urteko zigor zehatzaren luzapen aurreikusenezin bat jasan zuelako.

Kexa hauen inguruan Giza Eskubideen Europar Auzitegiak ondorengo erabaki zuen 3. artikularen inguruan: Zipreko zigor sisteman bizi arteko espetxe-zigorrera kondenatuta dauden pertsonen askatasuna berreskuratzeko dituzten aukerak mugatuak dira, baina bada askatasuna lortzen duenik, beraz, ezin daiteke esan ezinezkoa denik. Hala ere, espetxe-zigorra luzea dela onartu zuen. Bestalde, barneratzearen epea luzatzeari dagokionez, adierazi zuen legean emandako aldaketa batean oinarritzen zela eta legean aldaketa eman zenetik barneratuak bazekiela ez zela aske geratu esandako epean. Beraz, egun horretan aske geratzeko esperantza egun hori baino sei urte lehenago galdu zuen. Hori dela-eta, 3. artikularen urraketarik ez zela eman ondorioztatu zuen.

5. artikuluari dagokionean, Auzitegiak adierazi zuen Kafkaris jaunari hasieratik bizi arteko espetxe-zigorra ezarri zitzaioela eta hori zela bete beharke zigorra. Hogeituro urteren buruan askatasuna lortuko zuela esateak, eta ondoren, legedia aldaketagatik, epe hori ezabatzeak ez zuela artikulua hau urratzen adierazi zuen.

Azkenik, 7. artikuluari helduz, Auzitegiak adierazi zuen Kafkaris jaunak delitua burutu zuen momentuan, Zipreko legean ezin zitekeela modu argian aurreikusitako zein nolako zenbaterainokoa izango zuen ezarritako espetxe-zigorrak, jarrera onagatik zigorra hogeituro urtetara jaisteko aukera zegoelako, beraz, 7. artikularen urraketa partziala eman zela adierazi zuen. Aldi berean, Auzitegiak ez zuen onartu artikulua berdinaren urraketa defendatzeko erabilitako beste argudioa, hau da, atzeraeraginkortasunez zigor larriagoa aplikatu ziotela. Izan ere, Kafkaris jaunari ezarritako zigorra ez zen aldatu, bizi arteko espetxe-zigorra ezarri zioten eta hori da beteko duena, eman zen aldaketa ez zen zigorraren gainean izan, honen betearazpenean baizik, eta horrek ez du aipatutako artikulua urratzen.

4.8. Zuzenbide konparatuari buruzko ondorioak

Atal honek amaitzeko, ikusitako herrialdeetan bizi arteko espetxe-zigorrek duten arauketa eta Espainian duena alderatuko da. Lan hori errazteko informazioa taula batean jarriko da.

Lehen zutabean herrialdearen izena agertzen da, bigarrenean berrikuspena egin ahal izateko ezartzen den gutxieneko epea, hirugarrenean berrikuspena onartzeko kontuan hartzen diren baldintzak, laugarrenean zein delituren kasuan den zigor mota hau aplikagarri, eta azkenean zein pertsoneri zaien aplikagarri.

	Espainia	Alemania	EB	Hungaria	Frantzia	Italia	Finlandia
Epea	25 urte 28 urte (terrorismo a) 30 urte (pilaketa) 35 urte (pilaketa terrorista)	15 urte 18 urte (kasu larriak) 26 urte (terrorismo a)	Bizi osoa 30 urte 15 urte 12 urte	Bizi osoa (40 urte) 30 urte	18 urte 22 urte (berrerorleak) 30 urte	20 urte 26 urte	12 urte 10 urte (-21 urte)
Baldintzak	Denbora Arriskugarritasun eza Hirugarren graduan sailkatu egotea Autoritateekin kolaboratzea (terrorismo a)	Denbora Erantzukizunaren larririk ez Arriskugarritasun eza	Denbora Arriskugarritasun eza	Denbora Arriskugarritasun eza	Denbora Arriskugarritasun eza	Denbora Justiziarekin kolaboratzea (erakunde kriminalak) Arriskugarritasun eza	Denbora Arriskugarritasun eza
Delituek	Erailketa astundua Koroaren aurkakoa Hilketa terrorista Hitzarmen ez babestutakoaren	Erailketa Genozidio larria Berariazko hilketa Gidariari lapurreta	Erailketa +2 pertsonen hilketa Planifikatua Bahiketa edo motibazio sexual/	Estatuaren aurkakoak Bakearen aurkakoak Gerra-krimenak Delitu militarrek Delitu arruntak	Gizahilketa Terrorismoa Gizateriaren aurkakoak Tortura Espioitza Estatuaren segurtasun	Astundutako hilketa/erailketa Estatuaren izaeraren aurkakoak Osasun publikoaren aurkakoak	Hilketa, planifikazioz eta krudeltasun/indarkeriaz Astundutako erailketa Ofizial publikoare

	hilketa Genozidio kasua		sadikoa Arrazoi politiko, ideologiko edo erlijiosoak Funtzionari oen erailketa Su-arma/ lehergaiak erabilitako hilketak Arrazoi ekonomiko , sexual edo sadikoa		aren aurkakoak Droga trafikoa Biktimaren hilketa eragin Erailketa		n hilketa Genozidio a Gizateriare n aurkakoak Gerra- krimenak Astundutak o traizioa Astundutak o espioitza Hilketa terrorista
Zeini	+18 urte	+18 urte	+21 urte 18-20 urte 10-18 urte	+20 urte	+ 18 urte	+ 18 urte	+ 18 urte

Taula honetan ikus daiteke aztertutako herrialde gehienetan zigor mota hau delitu mota antzekoetan ezartzen dela: terrorismoa, genozidio kasuak, gizateriaren aurkakoak, Estatuaren aurkakoak eta erailketa bereziki larriak, gehienbat. Beraz, esan daiteke, oro har, pertsona baten hilketa ematea ezinbesteko elementua dela halako zigor luzeak, eta ondorioz, larriak, ezarri ahal izateko, nahiz eta badauden hainbat salbuespen.

Bestalde, herrialde guztietan barneratua jada arriskutsua ez izatea eskatzen da berrikuspena lortzeko, Espainian birgizarteratzearen aldeko pronostiko gisa ezagutzen den betekizuna. Herrialde guztietan ez du izen berdina, baina oro har birgizarteratzearen aldeko jarrera aurkeztea eskatzen da, edo, beste modu batera esanda, espetxetik irtetean ez duela beste delitu bar burutuko ziurtatu nahi dute herrialdeek, gizartea babesteko.

Nahitaez bete beharreko denbora bat egoteak espetxearen aurrezaintza bereziaren funtzioari erantzuten diola argudiatzen da, hau da, barneratuak birgizarteratzea lortzeko nahikoa denbora izatearen ideia. Funtzio hori betetzeko nahikoa kontsideratzen den epe bat ezartzen da, herrialde bakoitzak egokiena deritzona. Hala ere, espetxe-zigorak ez du funtzio hori bakarrik, gizartea babesteko funtzioa ere badu, eta hori da berrikuspeneren bidez bete nahi den funtzioa. Horregatik, azaldu den

moduan, herrialde gehienetan birgizarteratzearen aldeko pronostikoa edo antzekoak ezartzen dira askatasuna berreskuratzeko baldintza gisa.

Aurrezaintza bereziaz hitz egiten den arren, epe horren atzean benetan ordainketaren ideia dago, hau da, delitu bat burutu duen pertsonak nolabait ordaindu behar duenaren ideia, espetxe-zigorraren kasuan, denboran ordainduz (Sánchez, 2016). Aurrezaintza bereziaz hitz egiteko, birgizarteratzea lortzea, edo behintzat lortzen saiatzeak, ezinbestekoa izan beharko litzateke, baina azaldu den moduan, bizi arteko espetxe-zigor berriusgarria ez da printzipio horrekin bateragarria, barneratuaren bizitza osoa iraun dezakelako, epe oso luzeak aurreikusten direlako, eta irizpide nahasi eta zehaztugabeak ezartzen direlako berriuspena onartu ahal izateko.

Deigarria da Alemaniar legedian bizi osorako espetxe-zigorrera zigortutako pertsonen baldintzapeko askatasuna lortzeko bete behar dituzten baldintzak ezartzen dituen artikulua formulazioa eta Espainian gauza bera egiten duen artikulua. Izan ere, Alemanian zehazten da baldintzapeko askatasuna emango dela ezarritako hamabost urteak igaro ostean arriskugarritasunik ez badago. Espainian, aldiz, adierazten da hainbat baldintza bete behar dituela, denboraz gain. Beraz, formulazioa ikusita, badirudi Alemanian baldintzapeko askatasuna onartzea arau orokorra dela, ukatzea salbuespena den bitartean; Espainian arau orokorra ukatzea izango litzatekeen bitartean.

Herrialde bakoitzean berriuspena ezartzeko aurreikusten diren epeak oso ezberdinak dira, Finlandiako hamabi urteetatik Hungariako berrogeiraino doana. Giza Eskubideen Europar Auzitegiak adierazi izan du hainbatetan hogeita bost urte baino gehiago ezartzea ez dela gomendagarria, baina aztertutako epai batzuetan ikusi dugu zigor luzeagoak onartu izan dituela, Hungariako berrogei urteak kasu. Auzitegi honentzat ez da hain garrantzitsua ezartzen den epea, baizik eta berriuspena egiteko herrialde bakoitzak aurreikusten duen mekanismoa, garrantzi handia emanez berriuspen hori lortzeko aukera erreal eta egingarri bat egoteari.

Espainiako legedian, baldintzapeko askatasuna lortu ahal izateko baldintza batzuek, praktikan, traba gisa joka dezaketela ikusi dugu. Besteak beste, terrorismo kasuetan justiziarekin kolaboratzea eskatzen denean, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak adierazi zuen moduan Viola jaunaren kasuan, baldintza hori traba izan daiteke askatasuna lortzeko garaian, eta ez du barneratuaren arriskugarritasunaz hitz egiten zuzenean, beraz, baldintza hori eskatzea arazotsua izan liteke.

Azkenik, aipagarria dira Europar mailan egindako ikerketa baten emaitzak (Dudeck eta besteak, 2011), non ikusi zen 11 herrialdeetako 1.055 barneratuen artean seitik bati

estres postraumatikoarengatikoa nahastea diagnostikatu zitzaiola, Espainia portzentaia altuena duen zazpigarren herrialdea izanik (%9,6), lehena geratu zen Finlandiaren (%27,8) oso atzetik (Dudeck eta bestiak, 2011). Ikerketa honetan ikusi zen nahasmendu hori barneratu gehiagok pairatzen dutela bizi arteko espetxe-zigorrak ohiko moduan aplikatzen dituzten herrialdeetan zigor mota hori aurreikusten ez zuten edo oso kasu gutxitan aplikatzen dituzten herrialdeetan baino. Adierazi behar da, ikerketa egin zen urtean Espainian oraindik ez zela bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria aurreikusten. Zigor horren barneratzea dela-eta, ikusi beharko litzateke ea Espainiako datuak aldatuko liratekeen edo ez.

5. Ondorioak

Laburbilduz, Espainian zigor mota hau ez da beharrezkoa, dagoeneko iraupen luzeko espetxe-zigor arrunta aurreikusita dagoelako. Gainera, bizi arteko espetxe-zigorrak berrerortze-tasaren jaitsiera bat ekarriko duela ere ez da zerbait ziurra.

Era berean, ezin daiteke ahaztu Espainiar Konstituzioarekin bateragarrian den edo ez argitu gabeko kontua dela. Konstituzio Auzitegiak bere aurrean tarteratu zen helegitea ebaztea garrantzitsua da zigor honen inguruko eztabaidan, izan ere, Auzitegiak ez dela bateragarria adierazten bada, zigorra ezabatu egin beharko litzateke, edo Konstituzioarekin bateragarriagoa den moduan arautu, gutxienez.

Hala ere, zigorra barneratzen bada, arauketari arreta berezia jarri beharko litzaioke, ahalik eta arauketa egokiena bilatuz, iraupen bereziki luzea duen zigorra baita, bizi osorako iraupena izatera irits daitekeena. Espainian duen arauketa eskasa da eta teknikoki ez da ondo egin (Zigor Kodean arautzen ditu Espetxeen Lege Organiko Orokorrean araututa egon beharko luketen hainbat elementu, eta Zigor Kodean ere ez dira leku egokian txertatu bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria arautzen duten artikuluak), gainera berrikuspina egin ahal izateko epea luzeegia da (badirudi epe hori ezarri dela Europar Auzitegiak gomendatutako gehieneko muga delako, eta ez dela epe luzeago bat ezarri Auzitegi honekin arazoak izatea saihesteko) eta ezartzen diren baldintzak, oro har, ez dira argiak eta denek ez dute birgizarteratzearen inguruko informazioa ematen. Halaber, arauketan akatsak eta argitu gabeko hainbat gai geratzen dira, eta horiek lehenbailehen konpondu eta argitu beharko lirateke zigorra legedian mantenduko bada. Epeak laburtzea ere egokia litzateke.

Edukiari dagokionez, berrikuspena onartzeko edo ez onartzeko ezartzen diren irizpideak ez dira bereziki argiak, eta ez da oso argi geratzen zer egin behar duen presoak birgizarteratzearen aldeko pronostikoa eskuratu ahal izateko, derrigorrezko baldintza dena askatasuna berreskuratzeko.

Bestalde, kontuan hartu behar da espetxe-tratamenduaren garrantzia, bereziki hain iraupen luzeko espetxe-zigorren inguruan ari garenean. Hainbeste denbora espetxean pasatzeak ondorio kaltegarri asko ekar ditzake, eta horietako askok birgizarteratzean modu negatiboan eragiten dute, familiarengandik eta lagunengandik aldentzea, kasu. Hori kontuan izanda, pertsona hauei espetxe-tratamendu berezi bat ezarri beharko litzaike, duten gizarteratzea gal ez dezaten. Kalte sozialez gain, kalte psikologikoak ere eragin ditzake espetxeratze luzeak. Horiek ekiditeko ahalegin berezi bat egin beharko litzateke bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren kasuan, duen iraupen bereziki luzea dela medio. Hala ere, lehen aipatu den espetxeetako gehiegizko biztanleria dela-eta, zailtasun handiak daude preso arruntei espetxe-tratamendu egoki eta indibidualizatuak ezartzeko, beraz, ondoriozta dezakegu, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarrira zigortutako pertsonen dagokien espetxe-tratamendua ezin izango zaiela ezarri.

Hau guztia dela-eta, zigor hau espainiar legediatik ezabatu beharko litzateke, edo, gutxienez, berriro arautu, modu egokiago batean eta berrikuspen mekanismo argiago eta egokiago batez, barneratuek askatasuna berreskuratzeko aukera izango dutela ziurtatuz, hala *de iure* nola *de facto*, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak ezartzen duen moduan. Honekin batera, espetxe-tratamenduari duen garrantzia eman beharko litzaike, bereziki bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarrira kondenatuak diren pertsonen kasuan.

Bibliografía

Antinucci, M. (2017). Life sentence penalty and extradition under article 3 of the ECHR: A leading case of the European Court of Human Rights. *ILIRIA International Review*, 7(1), 119-127.

Arroyo, L., Lacuraís, J. A., Pérez, M., Alcácer, R., de León, J., & Martínez, L. (2016). Dictamen sobre la constitucionalidad de la pena de prisión permanente revisable. En L. Arroyo Zapatero, J. A. Lacuraís Sánchez, & M. Pérez Manzano, *Contra la cadena perpetua* (págs. 17-82). Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

Barne Ministeritza. (2017). *La estancia en prisión: consecuencias y reincidencia*. Valdemoro: Taller de Artes Gráficas Centro Penitenciario de Madrid III.

Bauer, M., Priebe, S., Haring, B., & Adamczak, K. (1993). Long-Term Mental Sequelae of Political Imprisonment in East Germany. *The journal of nervous and mental disease*, 181(4), 257-262.

Cabrera, M., & Francisco, D. (2015eko abenduaren 10a). *La prisión permanente revisable: algunas notas*. Obtenido de e-prints complutense: <https://eprints.ucm.es/34696/>

Cabrera, P. J. (2002). Cárcel y exclusión. *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*(35), 83-120.

Cancio Meliá, M. (2013). La pena de cadena perpetua ("prisión permanente revisable") en el Proyecto de reforma del Código Penal. *La Ley*, págs. 1-5.

Crétenor, M., & Liaras, B. (2013). *Prision conditions in France*. Erroma: Antigone edizioni.

Conde, S. (2018). *La pena de prisión permanente revisable: regulación, constitucionalidad y contexto de la unión europea* (Gradu amaierako lana). Universidad de Salamanca, Salamanca.

Cutiño, S. (2015). Algunos datos sobre la realidad del tratamiento en las prisiones españolas. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*(11), 1-41

Daunis, A. (2013). La prisión permanente revisable. Principales argumentos en contra de su incorporación del acervo punitivo español. *Revista de derecho penal y criminología*(10), 65-114.

de la Cuesta, J. L. (2013). El principio de humanidad en Derecho penal. *Revista Penal México*(4), 9-20.

Diéz Ripollés, J. L. (2013). Rigorismo y reforma penal. Cuatro legislaturas homogéneas (1996-2011). Parte 1. *Boletín Criminológico. Instituto andaluz intrauniversitario de Criminología*(142), 1-5.

Dudeck, M., Drenkhahn, K., Spitzer, C., Barnow, S., Kopp, D., Kuwert, P., . . . Dükel, F. (2011). Traumatization and mental distress in long-term prisoners in Europe. *Punishment & Society*, 4(13), 403-423.

Fuentes, J. L. (2014). ¿La botella medio llena o medio vacía? La prisión permanente revisable: el modelo vigente y la propuesta de reforma. *Revista de Derecho Constitucional Europea*(21), 309-345.

Gálvez, A. (2018). La Aplicación de la Prisión Permanente Revisable EX LO 1/2015, de 1 de Julio. *Revista Internacional de Doctrina y Jurisprudencia*(18), 28-46.

González, T. (2013). ¿Sería inconstitucional la pena de prisión permanente revisable? *Revista del Instituto Universitario de investigación en Criminología y Ciencias Penales de la Universitat de València*(23), 6-23.

Gruszczynka, B. (2015). The Penalty of Life Imprisonment in the Light of European Penitentiary Statistics. En A. Rzeolinski, M. Ejchart-Dubois, & M. Nielaczna, *The Penalty of Life Imprisonment. The Killer, His Crime and the Punishment* (págs. 1-13). Munich: CH Beck.

Gualazzi, A., Mancuso, C., & Mangiaracina, A. (2012). "Back door sentencing" in Italy: common reasons and main consequences for the recall of prisoners. *European Journal of Probation*, 4(1), 73-84.

Icuza, I. (2019). *La prisión permanente revisable: un análisis a la luz de la jurisprudencia del TEDH y del modelo inglés* (Tesi Doctoral). Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Juanatey Dorado, C. (2012). Política criminal, reinserción y prisión permanente revisable. *Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales*(65), 127-153.

Juanatey Dorado, C. (2013). Una "moderna barbarie": la prisión permanente revisable. *Revista General del Derecho Penal*(20), 1-13.

Köhalmi, L. (2006). Life imprisonment in hungarian penal law. *Iustum Aequum Salutare*, 2, 117-125.

Landa, J.-M. (2017). Prisión permanente revisable, prisión de muy larga duración, terrorismo y Tribunal Europeo de Derechos Humanos. En J.-M. Landa, E. Garro, & M.

- Ortubay, *Prisión y alternativas en el nuevo Código Penal tras la reforma 2015* (págs. 37-71). Madrid: Dykinson.
- Lévay, M. (2016ko azaroaren 23a). Life Imprisonment and Human Rights, Particularly Life Sentences Without Parole – Case – Law Of The Ecthr And The Legal Situation In Hungary. Inkeri Antillaren oroitzapenezko hamaikagarren hitzaldia. Helsinkin, Finlandian egindako hitzaldia.
- López, C. (2018). Más motivos para derogar la prisión permanente revisable. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*(20-30), 1-49.
- Lujan-Lago, J.C. (2016). *La prisión permanente revisable: la problemática de su aplicación en España* (Master amaierako lana). Universidad Internacional de la Rioja, Rioja.
- Marietti, S. (2013). *Prision conditions in Italy*. Erroma: Antigone edizioni.
- Nagy, A. (2016). Release from prison in Hungary and the European Court of Human Rights. *Zeitschrift für Internationale Strafrechtsdogmatik*, 199-205.
- Pérez, E. (2018). *La prisión permanente revisable: un análisis a la luz de la jurisprudencia del TEDH y del modelo inglés* (Tesi Doktorala). Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Pinedo, L. (2017). *La prisión permanente revisable* (Master amaierako lana). Universidad de Zaragoza, Zaragoza.
- Rodríguez, M. J. (2013ko martxoaren 5a). *Manual de introducción al derecho penal*. Obtenido de Universidad de Cádiz: <https://rodin.uca.es/xmlui/handle/10498/15084>
- Sánchez, M. J. (2016). La prisión permanente revisable en las legislaciones española y alemana. Análisis comparativo. *Anales del derecho*, 34(1), 1-50.
- Schartmueller, D. (2015). *Life imprisonment in Scandinavia: the ultimate punishment in the penal environments of Denmark, Finland, and Sweden* (Tesi Doktorala). Northern Arizona University, Flagstaff.
- Serrano, M. I., & Serrano, A. (2017). Cuestiones previas. En M. I. Serrano, & A. Serrano, *Constitucionalidad de la prisión permanente revisable y razones para su derogación* (págs. 13-19). Madrid: Dykinson.
- Varona, D. (2011). Medios de comunicación y punitivismo. *InDret. Revista para el análisis del derecho*(1), 6-35.

Vicens, E., Tort, V., Dueñas, R. M., Muro, Á., Pérez-Arnau, F., Arroyo, J. M., . . . Sarda, P. (2011). The prevalence of mental disorders in Spanish prisons. *Criminal Behaviour and Mental Health*, 5(21), 321-332.

Zabala, C. (2016). Prevalencia de trastornos mentales en prisión: Análisis de la relación con delitos y reincidencia. Valdemoro: Taller de Artes Gráficas del Centro Penitenciario Madrid III.

Jurisprudentzia

Espainia. Konstituzio Auzitegia (Plenoa). Sententzia zk. 65/1986, maiatzaren 22koa.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (4. sekzioa). Lucien Léger Frantziaren aurka. 2006ko apirilaren 11ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (5. sekzioa). Panayiotis Agapiou Panayi Kafkaris Zipreren aurka. 2008ko otsailaren 12ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2. sekzioa). Garagin Italiaren aurka. 2008ko apirilaren 29ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (5. sekzioa). Dieter Streicher Alemaniaren aurka. 2009ko otsailaren 10eko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (5. sekzioa). Rolf Friedrich Meixner Alemaniaren aurka. 2009ko azaroaren 3ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2. sekzioa). Tibor Törköly Hungariaren aurka. 2011ko apirilaren 5eko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (4. sekzioa). Douglas Gary Vinter eta besteak Erresuma Batuen aurka. 2013ko uztailaren 9ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2. sekzioa). László Magyar Hungariaren aurka. 2014ko urriaren 13ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (3. sekzioa). Pierre Bodein Frantziaren aurka. 2014ko azaroaren 13ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (4. sekzioa). T.P. eta A.T. Hungariaren aurka. 2016ko urriaren 4ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (4. sekzioa). Arthur Hutchinson Erresuma Batuaren aurka. 2017ko urtarrilaren 17ko sententzia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2. sekzioa). Marcello Viola Italiaren aurka. 2019ko ekainaren 13ko sententzia.

Txosten exekutiboa

Lan honetan bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriaren arauketa eta honen aldeko eta aurkako argudioak zehazten dira. Honez gain, zigor honen antzekoak dituzten Europako beste herrialde batzuetako araudiak, ikerketa enpirikoak eta Giza Eskubideen Europar Auzitegiak honen inguruan esandakoa ere aztertzen da.

Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria 2015. urtean barneratu zen Espainiar araudian, aurreikusten den zigor askatasun-gabetzaile larriena bihurtuz. Zigor hau delitu zehatz batzuentzat bakarrik aurreikusten da:

- Erailketa hiperkualifikatua (Zigor Kodeko 140 .artikulua)
- Erregea, Erregina edo Asturiaseko Printzea edo Printzesaren erailketa (Zigor Kodeko 485. artikulua)
- Erailketa terrorista (Zigor Kodeko 573 bis 1 artikulua)
- Beste herrialde bateko buruaren edo hitzarmen bidez babestutako pertsonaren erailketa (Zigor Kodeko 605. artikulua)
- Genozidio kasu batzuk (Zigor Kodeko 607. artikulua)
- Heriotza eragiten duten gizateriaren aurkako delituak (Zigor Kodeko 602 bis)

Zigorraren arauketari dagokionez, berrikuspena onartzeko, hau da, baldintzapeko askatasuna lortu ahal izateko, hogeita bost urteko espetxe-zigorra betetzea eskatzen da (kasu batzuetan hogeita zortzi, hogeita hamar edo hogeita hamabost urtekoa izan daitekeena), baita hirugarren graduan sailkatua egotea eta birgizarteratzearen aldeko pronostikoa izatea ere. Haez gain, erakunde kriminal edo talde terroristekin lotutako delituak burutzen dituzten pertsonen helburu eta bide terroristak utzi izanaren zantzu argiak erakustea eta autoritateekin modu aktiboan kolaboratzea eskatzen da.

Hirugarren graduari dagokionean, betearazpen-gradu honetan sailkatua izan ahal izateko, zigorraren hamabost urte bete beharko ditu barneratuak (kasu batzuetan, hemezortzi urte, hogeitaz urte, hogeita bi urte, hogeita lau edo hogeita hamabi), birgizarteratzearen aldeko pronostiko indibidual bat izan beharko du, erantzukizun zibila bete beharko du eta talde terrorista eta erakunde kriminalekin erlazionatutako delituak burutu dituzten pertsonen taldearen bide eta helburuetatik aldendu eta autoritateekin kolaboratu beharko dute.

Irteera-baimenei helduz, hauetako bat eskatu ahal izateko zortzi urteko espetxe-zigorra bete beharko dute presoek; eta terrorismo kasuetan, hamabi urte izango direnak. Irteera-baimenak onartu ahal izateko, ondorengo ukanbeharrak bete beharko dira: bigarren edo hirugarren graduan sailkatuta egotea eta jarrera ona izatea.

Azkenik, baldintzapeko askatasuna deliturik burutu gabe igarotzen badu barneratuak, zigorra azkenduko du, eta hamar urteren buruan aurrekari penalak ezabatuko dira.

Bizi arteko espetxe-zigor berriusgarria gai eztabaidagarria izan da legearen aurreproiektuak agertu zenetik. Hori dela-eta, zigor honen aldeko eta aurkako hainbat argudio eman dira.

Alde batetik, zigor hau defendatzen dutenek honako argudio hauek erabiltzen dituzte: Espainiar Konstituzioan adierazten den birgizarteratze printzipioarekin bateragarria da, gizatasun printzipioarekin ere bateragarria da, gizartearen eskaerei erantzuten die, hainbat espainiar organok zigor honen aldeko jarrera azaldu dute, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak hainbatetan onartu izan ditu zigor honen antzeko zigorrak eta Zuzenbide konparatuan aurkitzen den zigorra da.

Bestalde, zigor honen aurka ondorengo argudioak erabili izan dira: ez da bateragarria Espainiar Konstituzioarekin (birgizarteratze printzipioarekin, gizatasun printzipioarekin, berdintasun printzipioarekin, legezatasun printzipioarekin eta proportzionaltasun printzipioarekin), ezta beharrezkoa den zigor bat ere, Zuzenbide konparatuan eta Giza Eskubideen Europar Auzitegiak onartzen duten zigorrekiko ezberdina da Espainian aurreikusten dena, modu desegokian araututa dago, hiritarren nahiak ezin du krimen arloko politikaren gainetik egon, zigor zuzenbidearen erabilpen sinboliko bati erantzuten dio zigor honen barneratzeak, askatasun-gabetze luzeek ondorio negatiboak dituzten presoan osasunean eta ez dago nahikoa baliabide material eta pertsonal halako zigor bat modu egokian betearazteko.

Iraupen luzeko zigorrak aurreikusten dira hainbat europar herrialdeetan. Herrialde hauetako legedia, zigor hauei dagokionean, eta hauen inguruan Giza Eskubideen Europar Auzitegiak emandako epai garrantzitsuenak aztertu dira lana amaitzeko.

Lehenik eta behin, Alemaniako legedia aztertu da. Herrialde honetan, bizi arteko espetxe-zigorra zigor bereziki larrientzat aurreikusten da, gehienetan hilketa edo erailketak. Herrialde honetan berrikuspena hamabost urtetara egiten da (kasu batzuetan, hemezortzi eta hogeita sei). Gainera, berrikuspena onartzeko arriskugarritasunik ez egotea eta erantzukizuna bereziki ez larria ez izatea eskatzen da.

Bigarrenik, Erresuma Batuan ere bereziki larriak kontsideratzen diren delituentzat aurreikusten da bizi arteko espetxe-zigorra. Berrikuspena egin ahal izateko epe gisa lau abiapuntu aurreikusten dira: bizi osorako espetxeratzea, hogeita hamar urtekoa,

hamabost urtekoa eta hamabi urteko. Epe hauez gain, berrikuspena onartu ahal izateko, presoa ez dela arriskutsua deklaratu beharko du auzitegiak.

Hirugarrenik, Hungarian ere delitu larrientzat aurreikusten da. Berrikuspena egiteko epe gisa bizi osorako espetxeratzea, praktikan berrogei urte dena, eta hogeita hamar urtekoa aurreikusten ditu. Denboraz gain, auzitegiak barneratua ez dela arriskutsua deklaratu beharko du.

Laugarrenik, Frantzian zigor larrientzat aurreikusten den zigor bat da. Berrikuspena egiteko epea hemezortzi urtekoa da (kasu batzuetan, hogeita bi eta hogeita hamar). Bestalde, presoa arriskutsu gisa jotzen bada, ezin izango zaio berrikuspena onartu.

Bostgarrenik, Italian hilketa edo erailketa astunduei, estatuaren izaeraren aurkako delituei eta osasun publikoaren aurkako delituei bakarrik zaie aplikagarri bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria. Zigorra ordezkatzeko bi aukera aurreikusten dira: erregimen irekian sailkatua izatea hogeitaz urteko betearazpenaren ondoren edo baldintzapeko askatasuna hogeita sei urteko betearazpenaren ostean.

Seigarrenik, Finlandian delitu bereziki larriak kontsideratzen direnentzat aurreikusten da bizi arteko espetxe-zigorra. Berrikuspena hamabi urtetara egiten da, kasu batzuetan hamar urtetara. Epeaz gain, presoa arriskutsutzat ez jotzea eskatzen da baldintza gisa berrikuspena onartu ahal izateko. Gainera, espetxe-tratamenduari garrantzi handia ematen zaio herrialde honetan.

Herrialde hauetako legediak eta Espainiako legedia aztertu ostean, bizi arteko espetxe-zigorrei dagokionean, ikus daiteke atzeko delituentzat aurreikusten den zigor bat dela, eta herrialde guztietan aurreikusten den zigor larriena dela. Oro har, hilketa bat eragiten duten kasuetarako aurreikusten dela esan daiteke. Gainera, herrialde hauetan jada arriskutsua ez izatea ezartzen da baldintza gisa, gizartearen babesak duen garrantzia azpimarratuz.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak halako zigorrak aztertzean, bi irizpide ezartzen ditu: ezartzen den zigorra murrizgarria izatea *de iure* eta *de facto*. Horrek esan nahi du, herrialdeko legedian berrikuspen mekanismo batek aurreikusi egon behar duela (*de iure*), eta mekanismo hori aplikatuz zigorrak murrizgarria izan behar duela modu erreal eta betegarri batean (*de facto*).

Esandako guztiarengatik, ondoriozta daiteke Espainian zigor hau ez dela beharrezkoa, dagoeneko aurreikusten direlako iraupen luzeko espetxe-zigorrak (berrogei urtetarainokoa). Gainera, Konstituzioko hainbat artikulua urratzen dituen zigor bat da.

Hala eta guztiz ere, zigorra barneratzea erabakitzen bada, arauketa berri bat egin beharko litzateke, orain duena arazotsua baita eta erantzun gabeko galdera asko uzten baititu. Besteak beste, Zigor Kodean arautzen dira Espetxeen Lege Organiko Orokorrean arautu beharko liratekeen hainbat gain, epe luzeegiak aurreikusten dira, eta ezartzen diren irizpideak nahasiak eta lausoak dira.

Espetxe-tratamenduaren garrantzia ere adierazi beharrekoa da, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarriak duen iraupen luzeagatik sortu litezkeen kalteak gutxitzeko. Alde batetik, presoan gizarteratzean eragiten diren kalteak txikiagotzera bideratuta dagoen espetxe-tratamenduren bat jaso beharko lukete; bestalde, osasun psikologikoa zaintzera bideratutakoak.

Laburbilduz, bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria espainiar legediatik ezabatu beharko litzatekeen zigor bat da, edo gutxienez, modu egokiago batean arautu beharko litzateke, beharrezkoak diren espetxe-tratamenduak jasoko dituztela bermatzen delarik.

Lan honek ondorio praktikoak izan ditzake krimen arloko politikaren eremuan, duela bost urte barneratu zen zigor baten inguruko analisia egin den heinean. Gainera, Europako beste herrialde batzuetan dagoen arauketa ere azaltzen denez, Zuzenbide konparatuari ere aportazio txiki bat egin zaio. Hori dela-eta, lan honen irakurketa bereziki interesgarria izan daiteke krimen arloko politikan lan egiten duten erakunde eta pertsonentzat.

Eremu honetan hobetzeko asko egin daiteke, lanean zehar hainbatetan adierazi den moduan, zigor honen arauketa ez delako modu egokian egin eta hainbat arazo aurkezten dituelako.